

## **BOSTGARREN ATALA: LEHEN ALDAKETA HANDIA: XIX. MENDEKO AZKEN URTEAK ETA XX. MENDEKO LEHEN ERDIALDEA**

Atal honetan ikusi ahal izango dugun bezala, aro berria etorri zen Leioara: biztanleria ugartu zen eta etorkinak erruz etorri ziren; era berean, industria izugarri garatu zen, nekazaritzan oinarrituriko ekonomiaren kaltean, eta langile-klasea bere buruaren izaeraz jabetzen hasi zen. Beste alde batetik, gizartearen gizatalde asko borrokatzen hasi ziren politikan partaidetza handiagoa lortzearen, eta modemitateak apurka-apurka zipriztindu zituen eguneroko bizimodua eta hiriko paisaia. Gai horiek guztiak, baina, xeheago aztertu beharko ditugu.

### **DEMOGRAFIA**

Leioako biztanleria 1850etik aurrera hasi zen bilakatzen; lehen baino arinago hazten hasi zen, eta hazkundera XIX. mendearen azken herenean azkarragotu egin zen. Gerra Zibila etorri zenean, ordea, baita 60ko hamarkadako gerra-ondoko aldian ere, berriro moteldu zen<sup>69</sup>.

Industrializazioak sustrai sendoak egin zituen Lamiakon, eta ezkontzeko batez besteko adinak gora egin zuen. Izan ere, etorkin ezkongabe askok itxaron egiten zuen lan edo ekonomia egonkortasuna lortu arte, eta gero andregaiak ekartzen zituzten, edo beste etorkin batzuekin, edo Leioakoekin bertakoekin ezkontzen ziren. XIX. mendeko azken urteetan eta XX. mendeko lehenengoetan egindako ezkontza gehienak leioaztarren artekoak izan ziren. Beste alde batetik, oso gutxi ziren ezkongai biak edo horietako bat Beira lantegira etorri zirenen langile espezializatuen koloniaren baitako senar-emazteak. Jaiotza-tasak gora egin zuen 1930 arte, seme-alabak edukitzeko adinean zeuden etorkinak etengabe etortzen baitziren; ondoren, errepublikazaleen garaiko industri krisialdian moteldu zen. 1960tik aurrera, berriro ere izan zuen goraldi esanguratsua.

1870-1910 adian, heriotza tasa izugarri handia izan zen, eta, batez ere, haurrei eragin zien. Geroago ikusiko dugun bezala, lan istripuek ere eragin zuten heriotza kopuru handia, gaur egun hutsaltzat ditugun gaixotasunek eragindakoeekin batera. Adibide gisa, esan dezagun 1918 eta 1920 bitartean heriotza-tasa izugarri handitu zela, eta jaiotza-tasa guztiz moteldu, Lehen Mundu Gerraren osteko gripe izurri latzaren eraginez. Mendea aurrera joan ahala, heriotza-tasak (bai hondamendiek eragindakoa, bai unean unekoa) behera egin zuen apurka-apurka.

Demografiaren ikuspegitik, Leioan izandako gertaerarik esanguratsuenak, zalantzarik gabe, migrazioa eta berekin ekarri zuen paisaia aldaketa izan ziren. Bigarren karlistaldiaren ostean, garaitu asko, abentura bila zebiltzan beste asko eta, maiorazkoak eragindako lursailen eskasia dela eta, jende asko atzerrira joan zen, batez ere Amerikara, eta hantxe abeltzaintzari, ostalaritzari eta merkataritzari

loturiko jardueretan aritu ziren. Oro har, atzerrira joandako guztiak sorterrira itzultzen ziren noiz edo noiz (izan ere, XVIII-XIX. mendeetan ez zen Indietan hildako inoren berririk izan). Indianoek arrastorik utzi zuten sortetxean, haiena itxura eta kalitate handikoa baitzen, besteenaren aldean, eta ongintzazko ekintzak egin ohi zituzten, beste auzotarren onurarako.

Leioak biztanleak galdu zituen garai batean, baina gero udalerrira lan bila zetozen etorkinak jaso zituen. 1890 arte, Leioara etorri ziren gehienak Bizkaikoak eta Arabakoak ziren. Baina mendearen azken urtean gero eta etorkin gehiago etorri ziren ondoko probintzietatik: Burgos, Errioxa eta Kantabriatik, baita Asturias eta Zamoratik ere, eta Beira lantegira eta beste enpresa eratu berrietara, langile espezializatu gisa, behar egitera etorri ziren italiarrak, frantsesak eta belgiarrak.

XIX. mendearen azken laurdenean eta Lehen Mundu Gerratik 1929ko Depresio Handira doazen 15 urte horietan, hiri hazkunde garrantzitsuena izan zen. Jendea gune handietara joaten hasi zen eta gune txikiak husten hasi ziren. Apurka-apurka, biztanleriaren dentsitatea, batez ere Lamiakoko industria aldean, 70 bizt/km<sup>2</sup>-koa zeukaten herrien parekoa (Bilbo, Nerbioiaren itsasadarraren bi aldeak, kostaldeko herriak eta zelanbaiteko industri garapena eta komunikazio bide nagusietan zeuden barrualdeko hiriak) izan zen, eta batzuetan are handiagoa ere. Horrela, baserri sakabanatuek osaturiko habitatez bestekoa sortu zen: lantegien ondoko metaketa. Ordura arte oso garrantzi txikia izan zuten lekuetan, hazkunde izugarria gertatu zen; hala ere, geroago ikusiko dugun bezala, hazkundeak ez zuen beti ondorio onuragarriak izan.

## **EKONOMIA TRADIZIONALA**

XIX. mende osoan eta XX. mendearen aldi luze batean, nekazaritza izan zen ekonomiaren oinarria. 1889an, 1.003 lagunek jarduten lehen sektorean (1.000 nekazari, 2 jornalari eta 1 marinel), 14k bigarren sektorean (nekazaritza sektoreari loturiko jarduerak) eta 30ek hirugarren sektorean (gehienak, emakume jostunak eta neskameak). Hori dela eta, jakin beharko dugu zein ezaugarri zituen nekazaritza sektoreak eta zelan bilakatu zen denbora igaro ahala.

XIX. mendearen amaieran, familiako ustiategi txikiak nagusi ziren Leioan, eta horietan garia, artoa eta indabak lantzen ziren hainbanaturik, baita beste lekari batzuk ere, arbiak, erremolatxak, patatak eta mahastiak (txakolina eta muztioa egiteko), ortuariak eta fruta-arbolak (batez ere gaztainondoak, sagarrondoak, madariondoak, aranondoak eta mertxikondoak, biztanle bakoitzeko zuhaitz bateko ekoizpenaren arabera).

XX. mendearen hasieran, baserriarren ahalegin eta erakundeen bultzadari esker, nekazaritza teknika gaurkotzeko lehen saiok igarri ziren, bai etaazienda-espezieak hobetzeko lehen saiakerak ere egin ziren<sup>70</sup>.

Esate baterako, 1900an, Aldundiko Nekazaritza Zerbitzuak nekazaritza-abeltzaintza zerbitzua hobetzeari buruz eta, baserri-ereduak sortzeko egitasmoa plazaraturik, baso-berritzei eman gura zitzaien bultzadari buruzko azalpen-agiria bidali zituen udalerrri guztietara. Leioari hasiera-hasieratik interesatu zitzaion baserri-eredu edo esperimentazio gune hori ezartzea, eta Probintzia Batzordeak eskerrak eman zizkion eskaintzagaratik, baina, azkenik, Abadiñon ezarri zen.

Bi urte geroago, 1902an, Aldundiak gutunak bidaltzen hasi zen udalerriek ongarri kimikoen erabilera susta zezaten, eta behar zuten kantitatea jakinaraz zezaten, eskaera batera egiteko, horrela, prezio hobean lortuko zuten eta. Halaber, gutun horietan, ongarri jakin batzuk, fosfatodunak, hain zuzen ere, baliatzeko iradoki zuten, lurzoru guztietan erabili eta merkeak (10 pezeta 100 kg) izanik. Gainera, botanikari buruzko eskola magistrala balitz bezala, landareek azido fosforikoa, azoe edo nitrogenoa eta karea behar dutela adierazten zuen<sup>71</sup>. Osagai horiek guztiak ongarri guztietan egon eta landareen hazkundera ahalbidetzen dutela azaltzen zuen, eta zelan erabili, zenbat eta gordetzeko jarraibideak ematen zituzten. Gainera, ongarri horiek erabiltzeak zituen onurak aipatzen zituen: "behar-beharrezkoak dira uzta handiak eta larre bikainak lortzeko", 40 kg mineralarekin lortzen baitzen 1000 kg simaurrekin lortzen zena.

Ongarriari buruzko aholku horiez gain, Nekazaritza Zerbitzuak kalitate eta ekoizkortasun handiko haziak erabiltzeko gomendioa eman zuten<sup>72</sup>. Ildo horretan, Aldundiak sarritan bidali zituen hazi, tuberkulu eta landareak zelan eskatu eta erabiltzeari buruzko zirkularrak. Halaber, emaitzak eta ale nabarmenenak Abadiñoko etxaldera bidaltzeko eskatzen zuten.

Nekazaritzan jarduteko asmoa gero eta handiagoa bilakatu zen, baina erakundeek igarri zuten teorian sakondu behar zela, eta, hortaz, nekazaritzari loturiko argitalpenak kaleratzen hasi ziren. Sarritan, Bizkaiko Sustapen Batzordeak argitalpen jakingarri batzuen ale zenbait bidaltzen zituen udaletara, horiek ere argitalpenok zabaltzeko. Esate baterako, 1903an, Leioak La cartilla del agricultor vascongado aldizkariaren ale bi eta ongarri kimikoei buruzko liburu baten beste bost ale jaso zituen, eskoletan banatzeko. 1904an, udalak Concurso General Agrícola de Francia izeneko liburuaren ale bat eta beste sei ongarri kimiko eta haien erabilerari buruzkoak, nekazarien artean hedatzeko.

Nekazarien prestakuntzak ere laguntza handia jaso zuen. 1905ean, eredu-baserrietako ikasle-morroientzako araudia argitaratu zen. Honakoa zioen araudi horrek:

"herrialdearen oparotasunaren mesederako da nekazaritza ikaskuntza garatzea, eta baserri horietatik behar bezala ikasitako gazteak ateratzea, gurasoen oinordeko aritu behar duten etxaldeetan ekoizpen handia lortzeaz gain, garaia denean Probintziako Nekazaritza Zerbitzuan lan egiteko gai diren pertsonak baliatu ahal izateko ere".

Nekazaritzak zailtasun askori egin behar izaten ziren aurre, hala nola, prezioen igoera edo klimaren zoritxarrari, eta beraz, nekazari guztiek elkar hartu beharra izaten zuten, bai eta, tokiko eta lurraldeko erakundeen laguntza baliatu ere. Herriko taldeei dagokienez, oso eginkizun garrantzitsua izan zuten jarduera arrunt batean: kredituan. Nekazari txikiek hori eta laguntzeko beste modu batzuk eskuratu gura bazituzten, nekazaritza sindikatu sendo baten laguntza behar zuten. Sindikatuek zerbitzu garrantzizkoak ematen zizkieten laborari txikiei: lanabesak, ongarriak eta beste produktu batzuk eskuratzea prezio merkeagoan, kredituak eskuratzea (XX. mendearen hasieratik, Baserritarren Kutxek kudeatzen dituzte kredituak) eta, errentari edo maizterren kasuan, lursailak erosteko aukera. Sindikatuak katolikoak baziren, erlijioa landa-eremuan sendotzen eta sozialisten edo anarkisten doktrinak ez zabaltzen saiatzen ziren. Ingurumari horretan, Nekazaritza sindikatua sortu zen Leioan, eta Udondoko zubiaren ondoko bigarren etxean zuen egoitza, oraindik ere zutik dirauen eraikin batean. 1913ko azaroaren 2an, Erandioko Nekazarien Sozietate Kooperatiboaren lehendakariak Leioako alkateari jakinarazi zion Udondoko errota zaharrean zegoen biltegia Lamiakoko erriberako bigarren zenbakidun etxera aldatu gura zutela. 1917ko urtarrilaren 19an, Pedro de Villalabeitia lehendakariak baimena eskatu zion udalari, batzar nagusia domekan egiteko, goizeko 10etan<sup>73</sup>. Leioako baserritar guztiak nekazaritzarako behar izan duten guztia erosi duten sindikatu horretan duela gutxira arte.

Nekazaritza ekoizpenaren hein bat familiaren beharrezanean erantzuteko erabiltzen zuten, eta bestea, Portugaleteko azokan saltzeko. Leioako neska eta andre asko joaten ziren -gaur egun ere joaten dira- gurdi eta astoekin, Zubi Eskegiaren ondoan zegoen sail hesitu batean utzi, eta zubian zeharkatzen zuten itsasadarra, saltzeko produktuekin: urazak, azak, patatak, indabak, lekak, tomateak, piperrak, espinaka edo ziazerbak, txikoria, eskarola edo osterzuriak, eta abar. Geroago, azokaraino joaten ziren kamioi batzuetan zamatzen zituzten produktu guztiak, eta, horrela, eurek ez zuten azokaraino eskuz eroan beharrik.

Abeltzaintzari dagokionez, gero eta zailagoa zen jarduera horri eustea. Horregatik, abeltzainak batu ziren interes erkideen alde egiteko. Ildo horretan, udalaz gaindiko mailan, ermandade handia eratu zen 1875ean, Leioatik Loiraino, eta ia 1.300 bazkide zituen. 1925 arte, Leioako José Ramón Mendieta izan zen idazkaria. Ermandadeak ezbeharrak ordaintzeko egoitza bi zituen: bata Leioan, Matonen hain zuzen ere, Eleuterio Basañezen tabernan, Leioako eta Erandioren zati bateko bazkideei arreta emateko. Ordainketak hilean behin egiten ziren egoitza bakoitzean, arruntean domeketan, eta abagunea baliatzen zuten orduan askaldu eta musean aritzeko.

Beste alde batetik, abere azokak oso garrantzitsuak ziren abelburuak erosi eta saltzeko. Leku askotan antolatzen ziren azokak, baina batzuek beste batzuek baino ospe handiagoa bereganatu zuten eta haietara joaten zen beti jende gehiena. Leioako abeltzainak tokiko azoketara, Leioatik hurbileko udalerrietan antolatzen zirenetara, joan ohi ziren, besteak beste, Getxo<sup>74</sup>, Erandio, Barakaldo eta Bilbora (Basurtuko landan edo hiltegian), edo apur bat urrunago ziren beste batzuetara, hala nola,

Basauri (Arizgoitiko landan), Gordexola edo Mungiara. Lurralde mailako azoketara ere joaten ziren, arruntetara (hainbat erlijio-jai zirela eta ospatzen zirenak, esaterako San Jose, Santiago) edo apartekoetara, eta baita beste lurralde batzuetan antolatzen zirenetara, hala nola, Billaro edo Trebiñoko barrendegian antolatzen zirenetara. Udal antolatzaileek azokak iragartzen zituzten: afixak bidaltzen zituzten beste udal batzuetara eta horiek leku publikoetan paratzen zituzten, auzotarrek eta interesdun orok horren berri jakin zezaten. Aldundiak ere ematen zuen ekitaldi horien berri, eta urteko egitaraua bidaltzen zuen udal guztietara.

Leioako elizateetan antolatzen zirenazienda azokez den bezainbatean, jakin dakigu, 1863an, udalak Bilboko epaitegiaren agindua jaso zuela asteko eta hileko azokak galarazteko, baina, hala eta guztiz ere, Bizkaiko Nekazaritza, Industria eta Merkataritzako Lurralde Batzak eskatu zuen azoka ohiko leku eta egunetan egiteko, hau da, Udondon, hilaren lehen eta hirugarren domeketan.

Azokez gain, abere erakusketak eta lehiaketak ere antolatzen ziren, eta leku askotako bisitariak bertaratzen ziren horietara. Esate baterako, 1903ko abuztuan, abelgorrien eskualdeko azoka antolatu zen Begoñan, Ama Birjinaren jaiak zirela eta. Aurretik, barrutietako lehiaketak izan ziren, garai hartan, Bilbo, Balmaseda, Gernika, Markina eta Durangon, eta jabeek abelburu irabazleak eroan behar izan zituzten Atxuriko geltokira goizeko 11ak baino lehen, sariak (diploma eta brontzezko domina) eskuratzekotan. Zalantza barik, ikuskizun handia izango zen geltokiko nasak lau hankako bidaiariez lepo begiestea. Batzuetan, ordea, gertaeraren batek galarazten zuen lehiaketak egitea; kasurako 1920an, glosopeda izurria izan baitzen.

Erakundeek gogo bizia zuten abelburu kopurua zenbatekoa zen jakiteko (hori dela eta, 1904an, zezenzerrenda taxutzeko eskatu zuten, eta, horri esker, badakigu Angel Bárcena y Mota jaunak bertako zezen bat, urtebetekoa, eta Holandako beste bat, 4 urtekoa, zituela Leioan), baina, batez ere, espezieen kalitatea zelakoa zen jakiteko. Hortaz, eskura zituzten baliabide guztiak erabili zituzten erakundeek gurutzaketen erabateko anabasa baztertu eta bertako abelgorrien arraza hobetzeko, Markinako lehiaketa-azokan erositako hazitarako zezenen bidez, Markinakoa baitzen aspalditik lurraldeko azokarik garrantzitsuena.

Baserrietan abelgorriak hazten zituzten, eta hein apalagoan, txerriak, ardiak eta zaldiak, familiaren mantenuari eusteko. 1910 aldean, behi-azienda -betroia, holandesa eta suitzarra, bertakoarekin eta Kantabria nahiz Asturiasko mendietakoarekin gurutzatua- aparteko kalitatekoa zen eta esnea saltzeak ematen zien familiei etekin handienetako bat.

Lurra lantzea eta abereak hazteaz gain, mendiak ustiatzea eta zuhaitzak funtsezkoak ziren familiaren ekonomia osatzeko. Aldundiak 1858an zuhaitzak sustatzeari buruzko galdetegi bat betetzeko eskatu zuen. Galdetegia 1859an jaso zen, eta bertatik ateratako datu-erantzunen arabera, badakigu 130

nekazari zeudela Leioan, eta horiek 520 behi-abelburu, 12 zaldi-azienda eta 30 ardi-azienda zituztela. Halaber, galdetegi horri esker honako hau dakigu: "herriko mendiak (241.351 estatu), oro har, guztiak dira, eta larrez eta otadiz osaturik daude, zuhaitz barik, eta horien jabetza herriko jurisdikziopekoa da, nekazaritzarako eta laboreak lantzeko beharrezkoak baitira". Datu horien arabera, ez zen beste udalerrri batekiko partekaturiko mendirik, ezta zortasun lar, eta elizateko lurretan ez zutela bazkatzen kanpoko aziendek, eta artzain-etxolarik ez zegoela. Mendiak jabetunak ziren, baina horiek ezin zituzten jabetzak itxi. Galdetegi horren iradokizun artean, batzuen iritziz, Aldundiak norbanakoei eskatu behar zien zuhaitz-ale kopuru zehatza landatzeko urtean.

Horrela, apurka-apurka, Leioako lurak baso-berritu ziren zuhaitz-espezie batzuekin. Batzuetan, baso-berritzeak herrikoen ekimenez egin ziren, eta, beste batzuetan, erakundeen sustapenari esker. Horrela, 1885ean, Canuto de Atxutegik, Ondiz auzunean hainbat lursail zituen jabe batek, zuhaitz apaingarriak (12 platan) landatu, zaindu eta ustiatzeko baimena eskatu zuen, Ondizko landa eta iturriko herri-lursailetan. Aldundiak ahalegin bizienak egin zituen gai horri dagokionez. 1887an, 2.000 landare eskaini zituen eukaliptoen baso-berritzeak egiteko. 1896 urtean, gutuna bidali zuen haztegiak sustatzeko, haztegi bat barrutiko. Argitalpenak zabaltzeko lana ere bultzatu zuen, eta 1900an, gaztainondoaren gaixotasunak azaltzen zituzten ale bi igorri zituen. XX. mendearen lehen bosturtekoan, baso-berritze lan ugari egin ziren: itsas pinuen baso-berritzeari ekin zioten, udalei adierazi zieten hainbatetan baso-berritzeko zuhaitzen aleak eurek eskatzeko, eta espezie zehatz batzuk gomendatu zizkieten, hala nola, haritzak, gaztainondoak, pagoak eta pinu-aldaera batzuk (itsas pinua, pinu gorria, Rigakoa eta Eskoziakoa). Halaber, artzaintza askea (batez ere, kanpoko aziendek bazkatzen zutenean herri-basoetan), gehiegizko ustiategiak eta suteak saihesten saiatu ziren, eta landu gabeko lurak probetxatzen ere; beste alde batetik, aldundiak minoiak baliatu zituen mendiak zaintzeko, eta 1905ean, 20 basozain lanpostu atera zituen lehiaketan. Tokiko erakundeek horretan parte har zezaten ahalegindu zen, eta udalei gogorarazi zien aurrekontuetako sail bat erabili behar zutela zuhaitzak sustatzeko.

Zuhaitzek -fruituak, adarrak eta, mozten zituztenean, egurra- etekinak ematen zizkieten norbanakoei nahiz komunitetari. Herri-basoetan (esaterako Ondizko landako basoetan) ateratzen zen egurra enkantean jartzen zuten. Horrela egin zen 1894ko abenduan, eta urte horretan enkanterako baldintzak ezarri ziren. 60 pezetako eskaintza egin zen guztira, eskaintza bakoitzeko pezeta batekoa. Enkante haien arabera, egurra eskuratutakoan, erosleak 10 pezetako fidantza utzi behar zuen eta guztizko ordainketa egin 24 ordu igaro baino lehen. Batzuetan, ika-mikak eta kalapitak sortzen ziren zuhaitzak zirela eta; kasurako, 1898an, Evaristo Abandok kexa aurkeztu zuen Elexaldeko iturri aldeko zuhaitzen gerizak bertan zeukan baratzean ortuariak landatzea eragozten ziolako. Horregatik, zuhaitzak moztu zitezela eskatzen zuen, eta horietatik aterako zen egurraren truke 10 pezeta eskaintzen. 1904an, udaletxe eta Elexaldeko zuhaitzen egurraren enkanteak abadearen protesta eragin zuen, ordura arte zuhaitz haietako adarrak probetxatzen baitzituen. Mendibil Erreka izeneko herri-inguruan ere zuhaitz-sailak zeuden. 1911n, udaletxean egindako bilkura arrunt batean, landa publiko horietako zuhaitzak

moztu eta ateratako egurra saltzea erabaki zuten. Bost urte geroago, Eleuterio Basáñez Libanok kexa aurkeztu zuen, Elexaldeko plazatxoko zuhaitz bi haren etxetik lar hurbil zeudelako, eta beste leku batean landatzeko eskatu zuen, bere kontura.

Denbora igaro ahala, berdeguneak zaintzeko gero eta ardurua handiagoa hartu zuten denek. Agirietako aipamen batzuen arabera, norbanako batzuek zuhaitzak eskatu zituzten haien lursailetan landatzeko, eta 1914an -segururik, urte batzuk lehenago ere bai-, Zuhaitzaren eguna ospatu zuten Leioan, Errege Dekretu zela bide derrigorrezkoa izan baino lehen. Jai hori zela eta, egun horretarako guztia antolatzen ari ziren bitartean, udalak Juan Ruiz Romero jaunaren eskaintza jaso zuen. Juan delako hura Bartzelonako liburu-saltzailea zen, eta udalari eskaini zion "Mi amigo el árbol" ("Zuhaitza, nire laguna") izenburuko liburu argitaratu berria, pezeta baten truke liburua, eta 9,60 hamabiko sorta. Liburuak sortu zuen ikusmina zela eta, udalbatzak liburu bat eskatzea erabaki zuen. Urte horretan ere, San Bartolomen, Maximo Agirre kalean edo Elexalden zuhaitzak landatzeko baimena eskatu zen. Handik gutxira, Aldundiak aurreko urteko jaiari buruzko argibideak eskatu zituen (zein egunetan egin zen, zenbat zuhaitza landatu ziren, non landatu ziren, zein espezie, zenbat zuhaitz itsatsi edo errotu ziren, eta zein antolatzaile nabarmendu ziren). Era berean, landareak doan banatuko zirela esan zien eta eskaera egin zen. Bilkura arruntean erabaki zen jai otsailaren 28an egitea, domekarekin, arratsaldeko hirurak eta erdietan, Elexalden. Halaber, umeak ekitaldiko horretako parte-hartzaile nagusiak izango zirela kontuan hartuta, eta natura babesteko sentimendua haiengan bereziki sustraitu gura zuteneguz, egoki iritzi zioten parte-hartzaileei askaria ematea, honakoa: "0,05eko opila, txokolate-ontza bat eta laranja bat". Baina osterantzeko partaideek ere mokaduren bat hartu beharko zuten eta jaialdian musika (zelan, osterantzean!) ipini beharko zuten. Hori dela eta, udalbatzak erabaki zuen agintariei freskagarria eskaintzea eta danbolin-jole eta atabalariari jaiegun handi hura girotzeko eskatzea. Azkenik, egun horretan 50 intxaurrondo, 25 akazia eta 25 platano landatu ziren.

Urte horrez geroztik, egun hori ospatzen segitu zuten Leioan, gero eta bitarteko eta gogo biziagoz. Ez alferrik! 1917an, askariak txokolate-ontza bat gehiago zuen. Gainera, zuhaitz-kopuru handia eskatzen zenez, elizateko alderen bat edertzeko erabiltzen ziren ale batzuk: urte horretan, zuhaitz ilara bat landatu zen Lamiakoko eskoletako kalean.

Leioako biztanle gehienek ogibide nagusia nekazaritza zen, baina denbora igaro ahala, Lamiako lehen industriak ezarri zirenean, familiako kide batzuk txandaka ibiltzen ziren nekazaritza zereginetan eta lantegiko beharrean, edo, bestela, nekazaritza utzi eta lantegiari lotu zitzaizkion.

Leioako biztanleen itsas jarduerari dagokienez, esan dezagun, industrializazioaren lehen urratsak antzeman bezain laster, elizateko behealdea itsasadarrari atxiki zitzaizola, lantegi nagusiak ardatz horretan kokatu baitziren. 1889an, Leioan gabarrari bat zegoen, eta salgaiak eta bidaiariak garraiatzen zituen itsasadarraren alde batetik bestera. Gabarrari hark itsasontzia amarratzen zuen Txakurzulo portu

txikian, eta Kontratatzeko eta arraina saltzeko etxera joaten zen, hau da, Udondoko Erriko-etxe ezagunera. Horrez gain, itsasoaren garrantzia Ondiz armarrarian dauka islarik; Ondiz behatoki ederra da itsasadarraren tarte luze bat, eta bokalea begiratzeko.

## **INDUSTRIALIZAZIOAREN ERAGINA**

Lamiakoko lurak zelan egokitu ziren eta industria garrantzitsuenen finkapena

Lehen esan bezala, Leioako behealdean ezarri zen industria, itsasadarraren ertzean. Baina industriak ezarri baino lehen, alde horrek zeukan itxura eta gaur egungoa oso desberdinak dira, eta irudikatzen benetan zaila, orain arte gertatu ziren aldaketak direla eta.

Izan ere, XIX. mendearen erdialdera arte, Bilboko industrialari eta merkatari Maximo Agirre Ugartek (Bilboko alkatea izan zen eta kontsula Estatu Batuetan) Getxoko elizateari 280.000 m<sup>2</sup> erosi, balio zutena baino askoz ere prezio handiagoan, padurak lehortu, eta bertako lurak itsas pinuak eta otadiak landatuz finkatu zituen arte (era berean, Gobela eta Udondo ibaiak bideratzen saiatu zen), "itsasadarrak eremu zabala hartzen zuen, Ondiz eta Leioako muinoetatik Sestaokoetaraino. Itsasbeheran bi ubide oker eta, goialdean, sakonera txikikoak geratzen ziren" 77. Itsasbeheran, sakonera 3 oinbete baino txikiagoa zen, eta Sestaoko eskoletan ikasten zuten Udondo, Aketxe eta Ondizko ume askok oinez zeharkatzen zuten itsasadarra. Geroago, euste-hormak eraiki ziren eskuinaldean, Axpetik aurrera, eta ezker aldean -Benedictako kamingaina-, eta ibilgua dragatu zen askotan. Harrez geroztik, itsasadarraren urek ez zituzten padurak hartzen, ez eta hondartza zabalak eratzen, eta apurka-apurka, Santa Eugenia (Erromo) ibarreko lurak egokitu<sup>78</sup>, eta Areetako Santa Ana auzunea urbanizatu ziren. 1850ean, eraikin bi besterik ez zegoen auzune horretan: kontsuletxea eta udalaren benta bat, baina, handik aurrera, Madoz ministroak 1855ean agindu zuen desamortizazioaren aurrera hain zuten ere, alde hori Bilbo hiriko klase aberatsen turismo gune eta bizitegi bilakatu zen. Izan ere, garai hartan, Santa Ana baseliza eta udaldiko etxe bana, Maximo Agirrerren semeentzat, eraiki ziren.

Desamortizazio hori dela bide -Mendizabalek 30eko hamarkadan egin zuena bezain ezaguna ez, baina askoz ere erabatekoa-, 1855 eta 1868 bitartean, nazioko ondasun izendatu zituzten jabetza pribatuko erregistrorik ez zuten oro, hau da, enkantean jarri ziren Elizaren ondasun guztiak eta estatuaren, udalaren, udalbatzen eta gainerakoien esku zeuden ondasun zibil guztiak. Saldutako lursailen erdiak baino gehiago herri-ondasunak ziren. Une hartan, Maximo Agirrek Erandioko eta Leioako lursail gehiago erosi zituen ibarra orotara egokitu ahal izateko. 1860an, Baños de Lamiako izeneko herrixka berria eratzeko egitasmoa proposatu zen, baina azkenik ez zen abian jarri.

Bien bitartean, Areetako Santa Ana auzune sortu berria kalitate handiko hiri-bilbe bateko gune bilakatu zen, eta Lamiako aldeko lurzorua -Victor Txabarri industrialariak erosi zuen lurzati bat han<sup>79</sup>- nekazaritzarako lur emankorra bihurtu zen, txinboak edo ur-gainezkatzea kontrolatzen zuten ponpak jarri baitziren, eta nekazaritza eta abeltzaintzako etxaldea zabaldu zen. Maximo Agirre 1863an hil zen,

eta haren heriotzaren ondoren, Viuda de Máximo Aguirre e Hijos sozietatea eratu zen. Baltzu hori izan zen Lamiakoko eraldaketaren eragile behinena. Aipatu etxaldea kiroldegi bilakatu zuten eta, garai hartan, hipodromoa, hainbat futbol-zelai -behar beste zelai antolatzen ziren, jokatu beharreko partiden arabera-, uso-tiroko zelaiak eta poloan aritzeko zelai batzuk ere eduki zituen; beste alde bat, industriak ezartzeko erabili zen. 1865 eta 1868 bitartean, Eduardo eta Ezequiel Agirre, Maximo Agirreren semeek, estatuari eskatu zioten hondartzara ematen zuten ondoko lursailak enkantean ateratzea. Geroago, lursailak erosten eta urbanizatzen segitu zuten.

Hirigintza garapenak gora egiten zuenez, Leioako lurretatik ere igarotzen ziren hainbat garraiobide ezarri ziren, gero eta azkarragoak eta erosoagoak.

Lamiakon kokatu zen lehen industria, eta mota horretako lehena Espainian, Fábrica de Vidrio de Lamiaco izenekoa izan zen. Beira-lantegia 1890eko irailaren 13an zabaldu zen, Amadeo Depriten ekimenari esker. Amadeo Deprit Bilbora beiragintzan aritzera etorri ziren belgiarren semea zen. Lantegia gune estrategiko batean kokatu zen, komunikabideei begira, itsasadarrari kendutako lursail batean baitzegoen, Bilboko portutik hurbil, Bilbao-Areeta errepedearen ondoan eta Bilbo-Plentzia trenbidetik hurbil. Lursail horiek enpresa sortu zuten hamar enpresaburuetako batenak ziren: Eduardo Agirre, Maximo Agirreren oinordekoa, Eduardo Agirre, aipaturiko Deprit, Victor Txabarri, Carlos Jacquet, Tomas Allende, Evaristo Elizalde, Jose Antonio Errazkin, Jose Luis Villabaso eta Leopoldo Bellefroirekin elkartu zen.

Lantegiak 7.400 m<sup>2</sup>-ko azalera zeukan eta beira lauak edo leihoko beirak egiten jardun zuen. Hiru alde zeuzkan: itsasadarretik hurbileko eraikina, ontziratzeko toki batetik hurbil, lehengaien biltegia zen. Ondoan, sutegia, aroztegia eta buztinola zeuden. Erdialdean, Bassen sistemako galdaketa-labe handi-handia zegoen, Augusto Devilliers-en zuzendaritzapean eraikia (Devilliers Emile Gobbe-ren patentea zuen Charleroy-ko lantegiaren zuzendaria zen). Siemens gasogenoek eta lurrun-galdarek elikatzen zuten labea, eta 300 tonako edukiera zuen. Halaber, beira-orea zabaltzeko beste bost labe zeuden, eta, hortaz, artisau-beira egiten zen lantegi horretan; izan ere, langile batzuek beira-orban goriak puztu eta xafla handietan hedatzen zituzten, beira laua lortzeko.

1892ko apirilaren 18an, Bilboko artzapezak instalazioak bedeinkatu zituen, eta ekitaldi haren oroitzapen gisa, beirazko makila bana egin zieten opari, artzapezari eta Leioako abade eta agintariei. Urte hartan, ehun bat belgiar teknikari eta langilek behar egiten zuten lantegian, M. Devilliers-en aginduetara.

1895eko azaroaren 7an, Vidriera Vizcaína eratu zen, eta 1901ean, beira-lantegiak eta La Jerezana botila-lantegiak bat egin zuten, eta Compagnie Générale des Verreries Espagnoles enpresa eratu zuten, baina egoitza Bruselan zeukan. Urte batzuk geroago, 1925ean, Compañía General de Vidrieras Españolas, S.A. enpresa eratu zen, eta Bilbon ezarri egoitza. Enpresak izen horri eutsi zion 1971ra arte;

era berean, Fourcault sistema izeneko beira-zabaltzeko prozedura mekanikoa baliatu eta puzteko teknika bazter utzi zuen.

Beira-lantegiaren ostean, beste lantegi batzuk kokatu ziren Leioan: La Camera Española, Xaboi lantegi bat -geroago laga zizkion instalazioak La Compañía de Alcoholes izenekoari-, eta La Delta Española hodi eta metalen lantegia -geroago Earle & Bourne izena erabili zuen, eta, azkenik Eduardo K.L. Earle.

1904an, 96 langilek behar egiten zuen Earle lantegian, eta honako lanpostuak zituzten: gaueko eta eguneko atezainak, bulegariak, bulegoko arduradunak, zerrenda-egileak (eskaerak egiteko arduradunak), biltegiko baskula-arduradunak, eskarabilariak, arotzak, errementariak, igeltseroak, ijezlariak, xafla-ebakitzailleak, labezainak, suginak, urtzaileak, makinariak, mekanikariak, nagusiak, arduradunak, laguntzaileak, soldatzaileak, mailukariak, zerrariak, limatzaileak, garbitzaileak, arteztaileak, azaleztaileak, leuntzaileak, distiratzailleak eta hodi-paketatzaileak; horiek guztiak aritzen ziren leiozko hodi, burdinazko hori eta ornamentuko hodien tailerretan<sup>80</sup>. Garai hartan, Alkohol lantegian ere 19 lagunek egiten zuten behar, honako lanpostuetan: ugazabak, zerrenda-egileak, igeltseroak, peoiak, galdaragileak eta doitzailleak. Beira-lantegiak, ostera, 104 langile zituen, ondoko lanpostuak betetzeko: urtzaileak, gasistak, jasotzaileak, ebakitzailleak, makinariak, suginak, arotzak, errementariak, harginak, laguntzaileak, peoiak eta zaindariak.

1906an<sup>81</sup>, 30 industria-toki zeuden, eta ia-ia milioi erdi pezeta balio zuten guztiek (4 elkaturik zeuden, kafetegia-taberna-handizkako elikagai-denda, 20 janari-denda txiki, 1 errota, 1 errementeria, 1 harriak ateratzeko enpresa, 2 ile-apaindegi eta La Camera Española; azkenak, 1904an 7 langile zituen leiozko eta burdinazko oheak egiteko) eta 50 lursail hiritar (horien artean, enpresa nagusiak ziren, hala nola, Earle, alkohol-lantegia eta beira-lantegia, eta hiltegi publikoa). Horiek, 208.915 pta.ko errenta sortzen zuten urtean eta 3.784.500 pta.ko balioa zuten.

Udalerriaren industri izaera berria gorabehera, 1910ean, landutako lurrek 4 km<sup>2</sup>-ko azalera zuten, artoa, indabak, patatak eta lastoarekin. Aurrekoek barruko hornikuntzarako modua ematen zuten, baina ez zegoen lekadun, arroz, ardo, pattar, bakailao, dio eta hesteki nahikorik, eta horiek inportatzen zituzten.

## **Industrializazio garaiko gizartea**

Aristokraziaren benetako goraldia Berrezarkuntzan gertatu zen. Ordura arte, maila eta aberastasun apalekoa izan zen Euskal Herrian. 1875 eta 1931 bitartean titulu berri asko sortu ziren, eta beste batzuk lehengoratu ziren. Noble berriak politika, armada, eta, Bizkaiari dagokionez, industria eta finantzetatik etorri ziren jaun horiek, hala nola, Eduardo de Aznar y de la Sota, Evaristo Txurruka, Benigno Txabarri, Victor Txabarri eta Luis Urquijo, eta garrantzi handia izan zuten itsasadarraren alde bietako ekonomia suspertzen XX. mendearen hastapenetan.

Getxo hurbilean, gizartea nabarmen oligarkizatu zen kapitalen metaketaren eraginez, baina Leioan izugarri ugaritzen ziren langileak. Mendearen hasieran, lantegietako ekoizpen-sasoia (esaterako beira-lantegiarena) urte osokoak izan ez, eta "somara" edo amaituriko lanen arabera lan egiten zenez, oso langile finko gutxi zeuden. Ekoizpen goreneko sasoiak, aldi baterako langile asko kontratatzen ziren, atzerriko asko, batez ere belgiarrak, frantsesak eta italiarrak, baina horiek guztiak ez ziren Leioan finkatzen. 1903an, esate baterako, 108 atzerritar zeuden beira-lantegian; horietako asko orban-maneatzaileak ziren, eta, batez beste, 7 orduz egiten zuten lan, eta besteek irabazten zuten soldata poltsikoratzen zuten (14,5 pezeta 4ren aldean, eguneko). Beste alde batetik, herriko langileek 12 ordu baino gehiagotan behar egiten zuten egunean eta askoz gutxiago irabazten zuten, bai eta haien emakumeek eta seme-alabek ere. Azkenek zeregin "arinagoetan" aritzen ziren, hala nola, ikatz ontziak deskargatzen, gizonezkoek ateratzen zituzten soldatak baino askoz txikiagoak jasota (2,5 eta 1,5 pezeta eguneko, hurrenez hurren).

1905eko erroldaren arabera, 99 familia zeuden Lamiakon, auzuneak zituen 7 aldeetan banaturik: Hondartza, Eskoletako etxea, Erribera, Etxe Garaia, Maximo Agirre, Delta kalea eta Beira-lantegia.

## **Langileen bizi-baldintzak**

Leioako langileen bizi-baldintzen ezaugarriak, beste industri eremu batzuetan bezala, honakoak ziren: lansaio amaigabeak, lan istripu asko, segurtasun eta gizarte laguntzarik eza, higienerik eza, giza pilaketa eta izurriak. Horiek guztiek, tabakoaren eta alkoholaren ondorioez lagunduta, heriotza-tasa handitu eta miseria gorrienean utzi zituzten familia asko. Bilbon, garai hartan, klase ertainak Zabalgunera aldatu ziren 1876tik aurrera eta Negurira XX. mendearen hasieran. Etorkinak, ordea, aldirietan bizi ziren, ezelako arau eta antolaketarik gabe sortzen ziren etxoletan.

Lehen aipatu ditugun langileen bizi-baldintza kaskarrek goi-mailako klaseak eta erakundeak kezkatu zituzten, batzuetan giza elkartasuneko bihozkadengatik, eta, beste batzuetan, gizarte ordena bermatzeagatik. Hiriburuetan, erakundeak langileentzako etxebizitzak eraikitzen hasi ziren. Herrietan ere enpresek beraiek altxatu zituzten etxeak langileentzat, industri probetxuz blaituriko ongintzari atxikiz. Enpresa batzuek egin zituzten etxeak Lamiakon, hala nola beira-lantegiak. Hark Langileen Etxe ospetsua eraiki zuen lantegiaren barrutian, XIX. mendearen amaiera eta XX. mendearen hasiera

bitartean. Eraikin hura "galerietako etxeak" izenez ere ezagutzen zuten bertan, 3 solairu zeuzkan eta, batez ere, sasoi batzuetan behar egitera etortzen ziren Belgikako langileak bizi ziren han. Hasieran ez zeukan edateko urik. Izan ere, 1901ean ezarri zuten zerbitzu hori Lamiakoko auzoan, eta 50.000 pezeta inguru inbertitu ziren horretarako<sup>82</sup>. Nork bere burua garbitu, arropa garbitu eta ortuak ureztatzeko, putzu artesiarren ura erabiltzen zen, lurzoruko hareak iragazi eta gatza galtzen baitzuen. Janaria prestatzeko eta edateko ura lortzearren, herriko iturrira joan behar zen, Maximo Agirre kalearen eta Bilbo-Areeta errepidearen elkargunean. Apurka-apurka, hobekuntza batzuk egin ziren, eta 30eko hamarkadaren hasieran, demografiak gora egin zuenez gero, beste etxebizitza-eraikin bat jaso zuten itsasadarraren ondoan, eta aurrekoari lotu zuten galerien bitartez -umeak olgetan ibiltzeko eta auzotarrek bilerak egiteko lekua. Eraikin berriak 11 familia sartu ziren. Hori baino lehen eraikitako bestean 42 familia bizi ziren artean.

Langileentzako etxebizitzak egiteaz gain, beira-lantegiak horientzako jantokia egokitu zuen etxeetako behealdean. Leonor Suárezek gobernatzen zuen jantokia. Jantokiak mahaiak, banku luzeak eta sutegia zeuzkan, eta bertan berotzen zuten langileek etxetik ekarritako bazkaria. Ardoa, berriz, jantokitik hurbileko Magdalenaren tabernatik ekartzen zuten. Jantokiaren ondoan, biltegia eta zerrendategia zeuden, eta han taxutzen ziren nominak eta botikina prestatzen. Robustiano Egia, Vicente Zabala eta Carlos Larrea izan ziren botikineko titularrak. Apurka-apurka, etxebizitza gehiago eraiki ziren eta Maximo Agirre, Erribera eta Delta kaleak egin ziren.

Eduardo K. L. Earle industrialariak ere eraiki zituen langileentzako etxeak, langile asko erakartzeko asmoz. Alabaina, etxebizitzak ez zeuden beti egoera onean. Etorrin gehienak etxebizitza ahuletan bizi ziren, premiazko beharrezko erantzuteko arin batean jasotako etxebizitzetan. Auzune berri horiek, hala nola Delta lantegiarena, Lamiakon, ez zuten oinarritzko zerbitzurik izan -ura, estolderia eta zolaturiko kaleak- denbora luzean, eta, gainera, etxeak lar okupaturik zeuden, familia askok alogerekoak hartzen baitzituzten etorkinak. Hala zen "Gomazko etxean".

Beste alde batetik, baserrietan ez zegoen luxu askorik. Hormak lar lodiak ziren, eta hezetasun handia zuten, zimentazio barik egiten zirelako. 30 eta 40ko hamarkadetan, argia karburoko lanparekin lortzen zuten, eta edateko urik ere ez zegoen; ura etxe ondoko putzu batetik ateratzen zen. Ez zegoen bainu-gelarik; askoz jota, apaintzeko konketa zuten, eta batzuetan, komun-ontzia, baina orain dela denbora gutxira arte, korta erabili ohi dute baserrietan. Arropa garbitzeko, etxeko emakumeak errekarra joaten ziren, uhoitza buruan zeroatela. Koloreko arropa uretan eragiten zuten bitartean, arropa zuria zelaian zabaltzen zuten, eguzkiak zuritasuna nabarmentzeko. Latsarrietan ere garbitzen zuten arropa, hala nola, Ondiz edo Elexaldekoan. Egur-sutegiak erabiltzen ziren berokuntza gisa eta janaria prestatzeko, eta baserriko lursailletako zuhaitzekin enborrekin edo txirlorrekinekin elikatzen zituzten. Arropa lisatzeko sutegian beroturiko lisaburdinak erabiltzen ziren. Txarribodan egindako txorizoak sikatzeko ere erabiltzen zen sutegia.

Baserrietako ezerosotasunak gorabehera, bertako egoerak ez zuen zerikusirik langileak eta haien familiak pilatzen ziren etxeetako bizimoduarekin. Halako ingurumari batean, ez da harritzekoa txiroen kopuruak izugarri gora egin izana. Haien bizimoduaren latza arintzeko, udalak laguntza edo sorospen txikia ematen zien bularreko haurren esnerako, eta mediku eta farmazia arreta doakoa.

Txirotasuna eta gaixotasuna, oro har, ahizpak dira, eta askotan heriotza eragiten zuten. Hilkortasunaren zio nagusi<sup>83</sup> ziren arnasbideetako gaixotasunak, hala nola, bronkitisa, birikeria, pneumonia eta tuberkulosia, eta, batez ere, Lamiako auzuneko ume eta adinekoei eragiten zien, pilaketa, kutsatzeko arrisku handia, elikadura eskasa, padurek osasunari zekarkioten kaltea eta osasun urgazpenik eza zirela eta.

Beste batzuetan, lanak ahitzen zuen pertsonen bizitza, ezelako segurtasun barik behar egiten baitzuten. Beira-lantegian, sarritan gertatzen ziren lan istripuak, batez ere, beira diamantez eta eskuz ebakitzen zutenei, edo utzaile eta laguntzaileei (lehengaiak nahasi eta garraitzen ziren bagoietan, edo palaz eta orgatilaz laberaino), eta gasista izenekoei, hots, gasogenoak edo erregai-andelak zaintzen zituztenei. Sosa-karbonatoa ontzietatik deskargatzea ere oso zeregin arriskutsua zen. Itsasontzitik kanpo zegoela, sosa 100 kg-ko zakuetan eroaten zen bagoitxoetan, langileek bultzaturik, eta azkenik, biltegian uzti behar ziren. Sosak erredura larriak sorrarazten zituen azalean.

1900eko abenduaren 7an, 2 langile zauritu ziren beira-lantegian: goizeko zazpitan, Leandro Basañez Aretxabaletak eskumuturra ebaki zuen "beira-orri bat ateratzen ari zela galeriatik, berdintze sailean", eta goizeko hamarretan, Ernesto Chocco Expósito italiarrak, "botila plazako morroi handiak", erredura arinak pairatu eta zauria egin zuen eskuineko besoan "atal bigunak urratuta". Bederatzi egun geroago, "beira-lantegi honetako ontzirelekuan behar egiten ari zela, min hartu zuen Eusebio Bilbao Expósito langileak, beira-kutxak zamatzeko gidaria maneiatzan zuenak; ontzireleku horretatik jausi zen azpian zegoen gabarra batera (...) eta ornoetako eta gerrialdeko makadura izan eta laugarren eta bosgarren saihetsak hautsi zituen". 1904an, beste langile batek istripua eduki zuen andelak errematxatzen ari zela, eskailera apurtu baitzitzaion.

Eraikuntzan ere sarritan gertatzen ziren istripuak. 1902an, Atanasio Elgea Agirre harginak istripua izan zuen Deltan, Diego Quincoces jaunaren etxeko obran jarrita zegoen aldamiotatik jausi baitzen. Beira-lantegiko botikinera eramanean zuten berehalakoan, eta, azkenik, ustekabea besterik ez zen izan, makadura eta oin bateko lokadura soilik izan baitzituen.

Gaur egun, "lan ezbeharrak" deritzegun egoera horrek biziki gora egin zuenez, laneko medikuntza berezitasuna garatu zen. Lantegi guztietan botikina edo kontsultategia egon zen istripuak izandakoei arreta egin eta lehen sorospena emateko. Hala ere, langile batzuek ez zuten aseguratuta. Bazeukatenek

medikuaren agiriak aurkeztu behar zituzten kalte-ordaina kobratzeko. Horren zenbatekoa lantegiak berak edo aseguru-etxeak ezartzen zuen, istripua izandakoak jasotzen zuen lansariaren arabera.

Beste alde batetik, trenak ere hildako asko eragin zituen, horien artean ume batzuk ere bai. 1941ean Leioako langile batzuk hil ziren goizalde batean, txalupa batek Aurrera lantegira eramaten zituela.

Bizitzaren kostuari dagokionez<sup>84</sup>, 1893 eta 1899 urteen arteko aldian, badakigu lansariak 1,5 eta 3,5 bitartekoak zirela lantegietako beharginentzat, 2,5 eta 4 pezeta bitartekoak hainbat lanbidetako langileenentzat, eta 2 eta 2,5 pezeta bitartekoak nekazaritza jornalari entzat. Oinarrizko produktuen prezioa aintzat hartuta (produktu horien prezioa udal arielen arabera ezarri eta kontsumo eskubideek zergapetzen zituzten, eta zerga horiek udal-kutxetara biltzen ziren), ogiak, okelak eta ardoak egun beteko lansariaren halako %90 balio zuten. Zenbateko horretatik ateratzen den ondorioa oso garbia da: ia-ia ez zuten jateko lain.

Zergapetze horiek landa gizarte eta ekonomia bati zegozkion, baina gehiegizkoak ziren langileenentzat. Hala ere, onura ekarri zioten industriaren hedapenari, estatuan ezarrita zegoen zerga sistemaren arabera ordaindu beharrekoak baino zerga gutxiago ordaindu baitzituen.

Lehen Mundu Gerrako neutraltasunari esker metatu ziren etekinak ez zitzaizkien biztanle guztiei heldu. Ekonomiaren sektore batzuetako lansariak neurritz igo ziren, baina ez ziren parekatu itsas blokeoak eta itsaspeko gerrak -merkataritza izugarri eragozten zuten- eragindako janarien eta erregaien inflazio gorakorrekin. 1903 eta 1918 bitartean<sup>85</sup>, prezioak neurritz gaindi igo ziren, eta langileen klasea biziki txirotu zen, alokairuko etxebizitzaren prezioak ere larriki eragin baitzien (225 pezeta logela lakoitzeko urtean). Hori zela kausa, Lehen Mundu Gerratik Primo de Riveraren estatu-kolpea izan arte, laneko gatazkak izan ziren gertaerarik esanguratsuenak.

### **Politika eta gizarte aniztasuna, industrializazioaren ondorio**

Industrializazioak ekarritako goitik beherako aldaketek bultzatu zuten XX. mendearen bilakaera historikoa baldintzatu zuten politika eta gizarte arloko aniztasuna. XIX. mendearen amaieratik aurrera, hiru ildo nabarmendu, eta apurka-apurka finkatu ziren Leioan. Honako hauek, hain zuzen ere: batik bat, joera sozialista zuen langileen mugimendua, eusko nazionalismoa eta, besteka baino hein txikiagoan, liberalismo foruzalea. Azkenak joera zentralistako liberalismo dinastikoa bilakatu zen eta oso arin baztertu zituen tradizionalisten aukera politikoak.

#### **A. Langileen kontzientziaren sorrera<sup>86</sup>:**

1900eko ekainaren 20ean, Lamiakoko haur ikastetxean egindako bileraren ostean, Gizarte Erreformen Tokiko Batza eratu zen Leioan, uztailearen 1ean. Gehienez, 6 nagusik eta beste horrenbeste langilek osatzen zuten batza, baita alkateak eta parrokoak ere, moderatzaile lanetan. Aldi berean, lurraldeko

batza eratu zen, gobernadore zibilak, higiene eta osasun baldintzak jagoten zituen osagile batek, tokiko batzetako ordezkariak eta idazkari batek osatua. Batza horietako eginkizunak beheko puntuetan laburbiltzen dira:

1. Bi urteko epean, lansaiola 11 ordura murriztea.
2. 14 urtetik gorakoak eta 18 urtetik beherakoak gauetan egiten zuten lana zein enpresatan debekatu beharko zatekeen zerrenda taxutzea.
3. Gobernuari jakinaraztea zein enpresetan prestatzen edo erabiltzen ziren gai sukoiak, eta zeintzuk ziren enpresa arriskutsuak edo osasungaitzak.
4. Isunak ezartzea.

Gainera, tokiko batzek honako honetaz arduratu behar zuten: "aparteko ordu bidez berdintzea urte barruan izandako galerak, uraren indarrez ibiltzen ziren lantegietan matxurek, lehorteak edo uholdeek eragindako lan etenaldia edo murrizketaren zioz, bai eta derrigorrezko etenaldiek eragindako kalteak. Aparteko orduen kopurua astean ez da, inola ere, 12tik gora koa izango".

Baina neurri horiek ez ziren nahikoak izan eta langileen mugimendua lanbide eta laguntza antolakundeetan egituratu zen, esaterako, La Amparo Elkarren arteko Laguntza Elkarteak. Sozietate hori 1900eko uztailaren 16an eratu zen, eta, ordura arte, elizateko langileen sozietate eta politika, literatura eta jolas elkarte bakarra zen. 63 bazkidek osatzen zuten elkarteak, eta Vicente Ondiz jauna zen lehendakaria. Delta kalean zuen egoitza, eta 1903an, 88 bazkide zituen, gero eta gehiago.

1906an, Deltako langileen Unión Humanitaria Laguntza Elkarteak eratu zen, eta bermeotarraren etxeko 2. eskuinean hartu zuen egoitza. Elkarteko kide izan nahi zuten langile guztiek lansariaren araberrako kuota ordaindu behar zuten, eta horri esker, gaixotuz gero, (gaixotasun benereokak, borrokak edo mozkorraren eragina izan ezik), 15 pezeta astean jasotzea izango zuten, 6 hilabetean, medikuaren agiria aurkeztu ondoren. Urte batzuk geroago, 1927an, Earlek baimena eskatu zuen langileen batzarra egiteko lantegian bertan, elkarren arteko laguntza bahitetxea sortzeari buruz berba egiteko.

Hala ere, langileen batasuna nabarmendu zen alderdi politiko eta sindikatuetan. Apurka-apurka sortu ziren antolakunde haiek aldarrikapen eta gizarte eskabidea baliatzeaz ezagun ziren. Honako hauek izan ziren nagusiak:

#### a.1. Elkarte errepublikazalea

Elkarte horrek helburu zuen errepublikaren aldeko propaganda egitea, eta 1903ko irailean eratu zen, Manuel Ruiz Cepeda jaunaren lehendakarietaz. Elkartearen egoitza -hasieran, lehendakariaren etxea izan zen, Maximo Agirre kaleko 1. zenbakia, eta urte hartako urrian familia politikari buruzko hitzaldia egin zen- 1904ko maiatzean aldatu zen Juan José Larrinagaren etxeko 1. solairura, La Camera lantegiaren ondora, ordurako 42 bazkide baitzuten. Lokal horren alokairuaren truke 300 pezeta ordaintzen ziren, eta propaganda egiteko mitin batez inauguratu zen.

1905eko otsailaren 12an, errepublikaren aldeko beste mitin bat egiteko eskatu zuten. Baimena eman zieten, baina, mitina egitekotan, alkatearen ordezkari batek egon behar zuen mitinean "ordena zaintzeko eta iragarri ez den beste gairen bat ez jorrazteko, "Gora Errepublika" oihurik ez egiteko, eta erakundeen, errege-pertsonen, armadaren edo guardia zibilaren aurkako erasorik ez egiteko". Hilabete batzuk geroago, elkarte errepublikazalea desegin zen, 20 bazkide besterik ez zituela eta "beira-lantegia etenaldian zegoela".

#### a.2. Koalizio demokratikoa

1911n, Lorenzo del Moralek baimena eskatu zuen Koalizio demokratikoaren hauteskunde propagandarako mitina egiteko, Ondizko landan, martxoaren 5ean, arratsaldeko 4etan, bai eta manifestazio bat egiteko, bandera eta musika-bandarekin, Zentro Demokratikotik Ondizera, hantxe ospatuko baitzen Lanaren eguneko erromeria.

#### a.3. Anarkismoa

Arin-arin sustraitu zen, eta anarkistak elkarteetan antolatzen hasi ziren 1905ean, sozialismoa baino apur bat geroago. Litekeena da ideologia honekin bat egiten zutenak Facundo Perezaguaren erradikalismoarekin ordezkaturik sentitzea. Getxon Paso a la Revolución izeneko elkarte bat zegoen. Leioa, ordea, ez zen egiazko elkarerik, baina ideologia propagandarako zereginetan -debekaturik egon arren- aritzen zen, Areetako José Mauriz jaunaren antolatuta, Isidoro Gonzálezen kafetegian, Lamiakon.

1910ean, CNT sortu zen, eta anarkisten propagandak sozialista erradikalak erakarri zituen. Itsasadarraren inguruan, sindikatu bakarrak sortu ziren, baina gorabehera handiak izan zituzten bazkide kopuruari dagokionez. 1919 eta 1920 urteetako aldirian lan gatazka handienak izan ziren Bigarren Errepublikan, eta anarkismoak gora egin zuen garai hartan UGT sindikatua apaldu zelako. Sozialismoa oso leundu zen, Indalecio Prietoren adiskidetze-jarreraren eraginez; militante askok alde egin zuten alderditik, baina jarrera horrek mesede ekarri zion gizarte orekari.

#### a.4. Sozialismoa

1879an Partido Socialista Obrero Español delakoa eratu zen, eta 1880tik aurrera, langileen mugimenduak eragina izan zuen Bilboko egoeran eta itsasadarraren ertzeko meatzaritza eta industri herrietan (horien artekoa zen Leioa, eta, bereziki Lamiako auzunea). Bilbon, hamabi bat langile-elkarte zeuden, baina Elkarte Tipografikoa nabarmena zen. Elkarte horrek elkarren arteko laguntza, kooperatiba eta jolas zereginetan aritzen zen. Facundo Perezagua, elkarte horretako kidea, gailendu zen, eta 1886an Elkarte Sozialista eratu zuen. Hura bezalako beste elkarte asko sortu ziren meatzaritza herrietan eta azkar zabaldu ziren itsasadarraren ezker aldeko industri eremuetan. Alabaina, meatzariak ez bezala, eremu haietako industri langileak espezializatuak ziren, eta askoz egitura sendoagoa zuten; beraz, lehenengoen baino errazagoa zuten elkartzea. PSOE alderdia 1888an legeztatu zuten eta urte hartan bertan, sindikatu atala bereizi zen alderditik. Unión General de Trabajadores (UGT) sindikatuak greben

bitartez lotu zitzaien aldarrikapenei. Hasierako aldian, Facundo Perezagua buru zela, erradikalismoa zen nagusi, 1890-1892 urteetako grebek frogatzen duten legez<sup>87</sup>. Greba horiek erakutsi zuten sozialismoak sustrai sakonak zituela. Ideologia horren ondoko aldian, "militantea" zeritzon, grebak egiten segitu zuten langileek, eta indar politikoa nahiz jarduera ideologikoa finkatu ziren.

Sozialismoaren doktrina 1894tik aurrera zabaldu zuen La Lucha de Clases izeneko egunkariak. Sozialismoak etorkinak bertakotzeko tresna bihurtu zen eta langileen arteko ideologiarik zabalduena izan zen.

Sozialisten propaganda jarduera etengabea zen Leioak baino langile gehiago zituzten hurbileko herrietan. Horrela, 1904ko maiatzaren 29an, Erandioko Sozialisten Elkarteak baimena eskatu zion Leioako alkateari, Isidoro González jaunaren kafetegian mitina egiteko. Eskabidean honako argibide hauek eman zituzten:

"(...) Erandiokoez gain, Barakaldo, Sestao, Bilbo eta beste leku batzuetako Sozialisten Gazteriaren ordezkariak parte hartuko dute; eta Barakaldoko Sozialisten orfeoiak abestuko du. Mitinera gonbidatuta daude gure ideiekin mesfidati ageri direnak eta horien berri jakin gura dutenak, ideia horiek gaingiroki azalduko diren arren"<sup>88</sup>.

Sozialistez landa, Gizarte Erreformen Batzak ere egin zituen kudeaketa asko langileen aldarrikapen-mugimenduak zirela eta. 1904an, Tomás Meabek "Sozialisten Gazteria" eratu, eta 1903ko urriko greba orokorraren eragina aztertu zuen; ildo horretan, aintzat hartu zuen auzotar askok egindako eskaera, ogi hornidura berma zedin greba garaietan. Irailean, 17 frantziar langilek beira-lantegian egindako grebaren eragina aztertu zuen. Grebak alde batera utzita, Batzak eztabaidatu beharreko gaiak, besteak beste, ondokoak ziren: lan istripuak, langabezia eta etxebizitzaren egoera.

Inguruetako sozialisten elkarten jarduerak sendo sustraitu bide ziren, eta 1905eko martxoaren 16an, Leioako Sozialisten Elkarteak sortu zen "langileen interesak defendatzeko". Delta kalean zuten egoitza, Batasun etxean, eta 25 bazkide zituen. Vicente Corral izan zen aurreneko lehendakaria, Gizarte Erreformen Batzaren mahaikide aritzen ziren langile bat, baina egoera hori ez zen oztopo izan "Sociedad de tubos y metales" lantegira sartzen debekatzeko. Elkarteak sortu zenez geroztik, mitin, hitzaldi eta bilera asko egin ziren. Sozialisten Elkarteak gogotik jardun zuen, baina 1906ko azaroaren 26an, Nicolás Agirre Bretónek elkartearen desegitearen berri eman zuen.

1906tik 1916ra arte ez zen sozialisten jardueraren arrastorik izan. Garai hartan, sozialismoak indar handia hartu zuen Indalecio Prietori esker. Indalecio Prietok ugazabekiko elkarrizketa eta sindikatuen moderazioa sustatu zituen. Bestalde, errepublikazaleekin elkartu zen, eta, hala, klase ertainak bereganatu zituen.

1916ko abenduan berriro ekin zioten jarduerari, sozietate-propagandari buruzko mitin batekin, Lamiakoko Langileen Etxean elikagaiak oso garestitu zirelako. 1917an, mitin batzuk egin ziren Udondoko landan edo langileen etxean bertan, eguraldi txarra eginez gero; mitin horietan, grebaren berri ematen zieten Deltako langileei. Apurka-apurka, metalgintzako langileak elkartu ziren eta Bizkaiko Metalgintza Sindikatuaren Leioako atala eratu zuten, eta 1918an propaganda mitinak egiten hasi ziren. 1920an, gobernu zibilak Leioako elkarte sindikala edo sozialista ixtea agindu zuen; hala ere, handik gutxira Maximo Agirre kaleko etxe berria inauguratzeko mitina egin zuten.

1921ean, III. Internazionalean izandako desadostasunak zirela eta, sozialistak bereizi ziren eta Alderdi Komunista sortu zen. UGTri atxikitako sindikatu eta elkarteek greba aldarrikatzen zuten bestelako bide guztiak agortu eta gero; komunistek, aldiz, iraultzarako arma gisa erabiltzen zituzten grebak. Bigarren Errepublikan, sozialismoa oso ahitu zen, eta Largo Caballero aldarrikatuturiko erradiskalismora jo zuen. Alabaina, ospea galdu zuen 1934ko grebak porrot egin zuelako. 30eko hamarkadan, UGT sindikatuaren goraldian, sozialisten eta nazionalisten arteko lankidetzarako lehen saialdiak egin ziren. Geroago aztertuko ditugu horiek.

a.5. Sindikatu katolikoak, libreak (langileek bakarrik osatuak) edo ofizialak (langileek eta ugazabek osatuak).

Langileen Elkarte Katolikoek gizarte justizia defendatzen zuten, eta langilearen defentsa lotzen zuten erlijioaren eta moralaren defentsarekin. Elkarte guztiak San Bizente Pauleko Patronatuan bilduta zeuden, baina arrakasta apala izan zuten, errebindikazio ekintza ez zuten-eta lantzen. Gainera, ugazabekiko lotura hertsia zuten, eta goganbehartsu eta mesfidati ageri ziren edozelako sindikatu-ekintzarekin; beraz, ezin ziren lehiatu sozialisten eta anarkisten sindikatuekin.

## B. Grebak Leioan

Langileen bizimodu penagarria hobetzeko aldarrikapenak hasi ziren udaleko lehen elkarte politiko eta sindikalak eratzeaz batera; izan ere, elkarte horiek arin bai arin konturatu ziren presio egiteko tresna eragingarria zutela eskura: greba.

1904ko otsailean, beira-lantegiak jakinarazi zuen atzerriko langileak greban zeudela, baina hitzarmena lortu zuten lan egin gura zutenekin, eta hala konpondu zuten arazoa. Hala ere, greba hura bultzatzen zutenetariko hiru (gainerako zortziak jatorrizko herrialdeetara joan ziren), Areetara joan ziren bizitzera, eta egunero-egunero Langileen Etxera joaten ziren; hantxe, eztabaida biziak izan ohi ziren. Gatazkak horiek zirela eta, askotan, udalekoi eskatzen zieten parte har zezaten, beste grebaren batzuk eragozteko.

Batzuetan, langileen egoera okerragotzen zuten grebek. Hori dela eta, 1904ko maiatzaren 15ean, 34 auzotarrek alkateari idatzi zioten kexu agertzeko, ezen "Bilbon, grebak egiten direnean, okinena, esaterako, honako honen moduan, edo bestelako grebaren bat, oinarrizko gaien eskasia sentitzen duten lehenak aldirietako biztanleak dira, batik bat barruti honetakoak. Herri botereetara jotzen dugu aurreikuspen-neurri eske, Leioako biztanleek izan dituzten oroipen beltzeko egun hauek berriro ez gertatzeko, ezen, gizarte nahaste hauetan inolako zerikusirik izan gabe, ezin baitiete eman seme-alabei beharrezko duten ogia". Aurreko guztiagatik, eskatzen dugu, beste leku askotan egiten den moduan, udalak beharrezko ogia egin dezala, eta ezarritako pisutik behera ez saltzeko jagon dezala. Alkateak berehala hartu zuen esku eta laguntza eskatu zien ondoko herriei, hain zuzen ere, Areetako Abra Itsas Elkarteari, eta esan zien haien itsasontzietako bat irin bila joatean, Leioakoekin gogoratzeko. Urte horretako irailaren 7an, beira-lantegiko 7 langilek greba egin zuten.

Kleroak berebiziko eragina izan zuen langileen kontzientzia eratzean. 1907an, kasurako, Leioako Defentsa Katolikoaren Batzak eta herriko abade ekonomoak udalari eskatu zioten elkarteei buruzko lege-proiektuaren aurkako mitin eta manifestaziora joan zedila Bilbora. Aurreikusten zuten manifestazio hura gatazkatsua izango zela, eta, horregatik, Gobernu Zibiletik behin eta berriro adierazi zuten parte-hartzaileek "ez zutela ezelan ere makilarik edo astamakilarik eroan behar".

Ugazabek ahaleginak eta bi egiten zituzten ekoizpena eta mozkinak handitzeko, baina baldintza horiek gogor egiten zieten lan-baldintzak hobetzeko langileen aldarrikapenei. Greba asko egin ziren ugazaben gehiegikeriaren zioz, baina, beste batzuetan, ugazabek eurek protesta egin zuten gobernuak emandako xedapenen aurka. Esate baterako, 1919an, beira-lantegia eta alkohol-konpainia kexu ziren lansaióa 8 ordura murriztea ezarri zutelako, erregaiaren eskasia zela eta. Enpresek, jakina, ez zuten horrela ekoizpena handitzerik.

Leioako Gizarte Erreformen Tokiko Batzak eta Lurralde Batzak tartekari aritu ziren askotan langile eta ugazaben arteko gatazketan. 1910ean, beira-lantegian zeuden arazoak konpondu zituzten, eta 1919an baimena eskatu zuten bilera egiteko Lamiakoko eskoletan, langileen kemen grinatsua baretzeko.

Prezioek gora eta gora egin zuten, eta gizartea asaldatzen hasi. 1917ko apirilaren hastapenetan, Lamiakoko tailer batzuetako mutilek greba egin zuten. Apirilaren 16an, berrogei bat laguntzailek egin zuten greba, lansari handiagoa eskatzeko. Ugazabek eskaera errefusatu ziotenez, batzuk lanera itzuli eta gatazkatienak atxilotu zituzten. Horrela, hil horren 18an, amaitutzat jo zuten gatazka.

Apirilaren 27an, Deltako langileek greba egin zuten<sup>89</sup>. Antza denez, gatazka hasi zen "Ez erre" zioen afixa lantegian itsatsi zutenean. Ekintza funsgabe hark langile baten protesta eragin zuen, baina berehalakoan kaleratu zuten. Zuzendariak ez zuen onartu langile berriro laneratzea, ez eta afixa kentzea ere, eta lantegiko 600 langileetatik gehienek greba egin zuten. Guardia Zibilak jagon behar izan

zuen lantegia liskarrak saihesteko. Maiatzaren 3an, grebalariak trenean zetorren materialaren hustuketa eragozten saiatu ziren, eta Earlek lantegia aldi baterako itxi eta soldaten kitapena egitea erabaki zuen. Maiatzaren 6an, langileek hautaturiko batzorde batek proposatu zuen elkarrizketa egitea ugazabarekin, baina ustelak izan ziren maiatzaren 18a arte. Egun horretan, langileen aldarrikapenak adierazi zizkion idazki batean: lanean berriz hartzea; 2 zigarro erretzeko baimena; astean behin, 8etan sartzeko baimena, ez 7etan; lansariak igotzea, batez ere laguntzaile eta emakumeenak; eta handik aurrera, kexak aurkeztu ahal izatea alboko buruari, edo, adostasunik izan ezean, metalgintzako sindikatuari. Azkenik, greba 20an amaitu zen, baina ez zuten lortu gura zuten soldata-igoera.

Egoerak zegoen-zegoenean zirauenez, ezkerreko elkarte politikoek guztiak premiau zituzten greba orokor handia eta iraultzailea egiteko. Abuztuaren 13tik 20ra, lanuztea orokorra izan zen meatze-arroan eta itsasadarraren aldeko nahiz Bilboko lantegietan. Bilbon bakarrik, gatazkak 11 hildako eta zauritu asko eragin zituen, langile asko espetxeratu zituzten, eta beste batzuk erbestera joan ziren. Azken batean, grebak ezbehar handiak ekarri zizkion Leioako langileen mugimenduaren helburu politiko eta sindikalei. Bestalde, gogora dezagun, 3.000 biztanle zirela Leioan 20ko hamarkadaren hasieran.

1917ko grebaren porrota gorabehera, langileek eutsi zieten lortu nahi zituzten helburuei, eta askotan egin zituzten grebak. 1918-1920 aldian, ugazaba estutzeko xedez, lana uzten zuten tailer txiki eta lantegietan, eta, besteak beste, honako hauek aldarrikatzen zituzten: lansariaren igoera, 8 orduko lansaioa, gutxieneko soldata, laneko segurtasuna, somarako lana kentzea, aparteko orduen soldata igotzea, botikin iraunkorra, lanabesak enpresak ematea, lan istripua izanez gero, soldata osorik kobratzea, jaiegunak finkatzea, eta sindikatu aintzatestea. Ugazabek askotan onartu zituzten eskakizunak, nahiago baitzuten amore eman, ekoizpena etetea baino. Hori dela eta, langileen antolakundeak (UGT, sindikatu bakarrak eta SOV) indartu ziren.

1920ko uztailaren 22an, Lamiakoko eraikuntzako langileek (zurginek, igeltseroek eta harginek) greba egin eta soldata igotzea lortu zuten; halaber, erdietsi zuten ugazabek soldataren %75 ordaintzea, lan-istripua izanez gero; 30 pezeta ordaintzea lanabesen higadura eta joan-etorrietako gastuengatik; lan egindako orduak berreskuratzeko aukera, eta batzordeak egiteko baimena.

1921 eta 1923 bitartean, Lehen Mundu Gerran borrokatu ziren herrialdeen barruko ekonomia antolatu zen. Beste alde batetik, euskal ekoizpenak merkatu bikainak galdu zituen, ez zelako leihakorra, eta langabeziak gora egin zuen. Ugazabek ozta-ozta eusten zieten ekoizpenaren gastuei, eta, era berean, ezin erantzun zieten langileen erreibindikazioei. Langileek, berriz, baliabide gutxi zituzten, eta ez zuten greba luzatzerik. Aldi horretan, greba kopuruak oso behera egin zuen, aurreko biurtekoaren aldean, baina langileek askoz bortitzago aldarrikatu zuten ordura arte lortutakoari eustea. 1922an, Lamiakoko metal arloko langileek greba egin zuten, ugazabek lansaria gutxitu zitelako. Egoera benetan penagarria zen batzuentzat, eta horiek jatorrizko herrietara itzuli ziren.

Greben aldian, sindikatuen eginkizuna funtsezkoa izan zen. Grebara deitu ostean, sindikatuak ematen zizkien langileei gatazkari aurre egiteko bitartekoak, eta, horretarako, greba-sorospenak erabiltzen zituen (afiliatuek ordaintzen zituzten kuoten bidez lortuak); sorospenak nahiko ez baziren, sindikatukoak saiatzen ziren grebalari batzuek beste lan bat hartu eta soldataren zati batez lagundu zezaten; beste batzuei, jatorrizko herrirainoko tren txartela ordaintzen zieten; edo beste sektore batzuen laguntza eskatzen zuten (dirua bilduz, antzerkiko gau-emanaldiak eginez, liburuak salduz, mitinak eginez, dirua eskatuz, haurrak hartuz, eta abarren bidez).

### C. Euskal Nazionalismoa

Nazionalismoaren ideologia ahalbidetu zuten gertaerak. Haztapena.

Industrializazio azkarrak, horrek ekarri zituen gizarte aldaketak, foruen abolizioak, gero eta ugariagoa zen literatura foruzaleak eta karlismoaren krisialdiak, besteak beste, bultzatu zuten nazionalismoa. Sabino Aranak taxutu zuen nazionalismoaren ideologia, foruzaletasuna, independentzia, eta beste ildo batzuk elkarturik<sup>90</sup>, eta ahalegindu zen euskal herritarrek "hazio kontzientziaz" jabe zitezen. Euskal nortasun horrek oinarri zituen arraza, ohiturazko gobernu eta legeak, kristautasuna, nortasun historikoa eta berariazko izaera eta azturak. Ez da erraza aurkitzea hau bezalako gertaerarik, non jende- mugimendu batek horrenbeste zor dion sortzaileari.

Nazionalismoarne bilakaera Leioan. Langileria nazionalista.

Nazionalismoaren hastapenetan (1893-1898), erradikalismoa zen nagusi, eta bertako gaitz guztien errua leporatzen zien maketoei. Espainiaren ezelako lotura saihestearren, independentzia aldarrikatzen zuten irtenbide gisa. Hasiera horretan sortu ziren ikurrina, batzokiak, BBB (Bizkaiko Buru Batzar), eta, 1897an EAJ (Euzko Alderdi Jeltzalea). Hala, katolikoek uste sendoetan funtsaturiko misioa balitz bezala, nazionalismoari atxiki zitzaizkion hiriko klase ertainak eta landako klase aberatsak. Hastapenetan, ideologiak eskaini zuen irudi tradizionalista, ultraerlijiosoa, landatarra, eta industriaren aurkakoak kontraesankorra dirudi, mugimendua jaio zeneko gizarte eta geografi esparrua, Bilbo, aintzat hartzen baldin badugu. Hala ere, kontraesana itxurazkoa besterik ez da; izan ere, baserri inguruko esparrua idealizatzea ohiko ikuskera hiritarra da, mundu tradizionalari loturiko burgesiaren plazaraturikoa. Hasierako nazionalismo hark "bizkaitartasuna" sustatzen zuen, baina ideologiaren oinarrizko eduki batzuek<sup>91</sup> lurraldez gaindiko nazio teoria taxutzeko bide ematen zuten. Horrela, 1898an, Sabino Arana hautatu zuten Lurralde diputatu, eta horrek 1902 urtera arteko aldia nabarmendu zuen. Lehen baino ikuspegi ekonomiko moderatuago eta aukerakoagoak erabiltzen hasi zen (industrializazioa ez zen euskal izaeraren aurkako eraso, ezpada, haren adorea ezaugarria) eta Ramón de la Sota buru zuten foruzaleen atxikipena bereganatu zuen. Erabaki hori guztiz errentagarri izan zitzaion, hauteskondeak zirela eta, baina laster batean hasi ziren ildo bien arteko ezadostasunak: euskalerrirako izeneko moderazioa (autonomiazaleak) eta sabinotarren erradikalismoa (independentziazaleak).

1902-1903an, nazionalismoa espainolismora lerratu zen. Sabino Aranak berak erabili zuen konstituzioa onartu eta foruak berreskuratzearen alde borrokatuko zen euskal alderdi espainolista eratzeko ideia, baina egitasmo hori bertan behaera geratu zen, Arana 1903an hil baitzen. Sabino Aranaren heriotzaren ostean, nazionalismoaren baitan, elkarri aurre egin zioten aberritarrek (lehengo sabinotarrak; 1904an Euskal Gaztedia sortu zuten, eta Aberri egunkaria erabili zuten agerkari moduan), eta komunionistek (lehengo euskalerritakoak, Euskalduna astekaria erabiltzen zutenak).

Leioan, nazionalismoaren lehen agerraldia 1908ko ekainaren 20an izan zen, egun horretan, Ondizko batzokia zabaldu baitzen. Urtebetegarrenean, landan ospatu zen batzokiaren urteurrena. 1910eko grebaren ostean, EAJk harpidetza egin zuen langabezia zeuden langileei laguntzeko. Horrela, 1911n, ELA-SOV sindikatua (Euzko Langileen Alkartasuna/Solidaridad de Obreros Vascos) sortu zen, eta gero STV (Solidaridad de Trabajadores Vascos) izena hartu zuen. Sindikatuak nazionalismoaren eta 1891ko Rerum Novarum entziklikaren ideien alde egin zuen; halaber, bertako langileen berariazkotasuna defendatzen zuen, baina urte batzuk igaro ziren Leioan agertu arte.

Batzokiak gogotik heldu zion jarduerari, eta lehen udal batza egin zuten bertan 1912an, Euzkadi egunkaria sortu baino urtebete lehenago. Euzkadi EAJren agerkaria izan zen. 1914ko urtarrilean, Luis Basañez eta Florencio Zarragak, Batzoki-Lexonatarara izeneko elkartearen sortzaileek baimena eskatu zuten bilera bat egiteko, hil horren 18an, arratsaldeko 2etan, eta berriro ere urrian, hitzaldi bat egiteko. EAJk politika esparrura sartu zen 1915eko udal hauteskundeetan, 6 zinegotzigoetako bat lortu baitzuen. Lurralde diputatuetaarako hauteskundeetan, liskarrak sortu ziren eta kide batzuk alderditik kanporatu zituzten, nazionalisten hautagaitzaren aurkako lanetan aritzeagatik.

1917an, nazionalista leioaztarrek jai handia egin zuten diputatuen hauteskundeetan lorturiko garaipena ospatzeko (aurreko urtean, EAJk Komunio Nazionalista izena hartu zuen). 1918an, nazionalista batzuek osatzen zuten udalbatza, hala nola, Juan José Bidea alkateak eta Prudencio Udondo, Tiburcio Aranaga eta Luis Basañez zinegotziek. Urte horretako hauteskunde orokorretan, nazionalisten hautagai-zerrendak 200 boto izan zituen Leioan, mauritarrek baino 49 gutxiago. Horko garaipena ere ospatu zuten, eta otoruntza prestatu zuten batzokiko aretoan, martxoaren 16an, arratsaldeko 8etan.

1919, Epalzak, Komunio Nazionalistaren hautagaiak, 191 boto izan zituen, eta monarkikoek 186. Apurka-apurka boto gehiago eskuratzen zituen alderdiak, baina zenbait bereizketa gertatu ziren: 1921eko irailean, Eli Gallastegi buruzagi zuten aberritarrek, independentista porrokatuek, EAJ berria sortu zuten, eta komunionistek aurka egin zieten. Une horretan bultzatu ziren emakume abertzaleak eta mendigoizaleak batzen zituzten mugimenduak.

1928an, EAJren sindikatua sortu zen Leioan Euzko Langileen Alkartasuna/Agrupación de Obreros Vascos izenarekin. Abenduaren 2an egin zen inaugurazio ofiziala, egitaraua ekitaldiz beterik zegoela: otoitz-meza 9etan, eta ondoren ohorezko aurrekua, Basagoiti, Larrañaga eta Basterra hizlarien berbaldiak eta Batzar Nagusia; 12etan, ezpata-dantza, gero pilota partida eta 1ean, "lagunarteko bazkaria, erakundearen lokaletan". Elkarte horren klasearteko ideologiak "beharginak" ez ezik, "langileak" ere batzen zituen, eta jarraitzaile asko bereganatu zituen Bilbo Handian 30eko hamarkadara arte; batez ere laguntza zereginetan ziharduen elkarteak. 30eko hamarkadatik aurrera, ELAko solidarioek sozialisten eta anarkisten arriskuaren (haiek esaten zietenaren arabera) aurkako borroka gogorrari lotu zitzaizkion, eta azkenek deitutako greba asko utzi zituzten bertan behera. Hona gatazkaren muina: solidarioek jabetza, familia eta erlijioa defendatzen zuten, eta langile etorkinen aurka zeuden, langabetuen kopurua areagotzen baitzuten. Sindikatu horretan, Policarpo Larrañaga abadearen jarduerak nabarmenak izan ziren.

Ia hamarkada bat geroago, 1930ean, Leioako Euzko Langileen Alkartasunak -Elexalde kaleko 3 zenbakiko lehen solairuan zuen egoitza, eta gero sindikatuko kideentzako kooperatiba kokatu sortu zuten- sindikalismoari buruzko hitzaldi batzuk antolatu zituen, eta batzokia berriro zabaltzeko gaia jorratu zuten. Urte horretan bertan, EAJk eta Komunioak bat egin zuten EAJ berria eratzeko, eta alderdia goraldian hasi zen. Hala ere, beste bereizketa bat gertatu zen handik lasterrera: ANV (Acción Nacionalista Vasca). Atal horrek burgesia txikia eta Bilboko klase ertain liberalak batzen zituen, bai eta industria aldeetako langileak ere, eta EAJk baino proposamen erradikalagoak erabiltzen zituen. Autonomiaren bidea onartu, eta estatutua lortzea hartu zuten helburu. Hala, jendea mugitzeko ahalmen handia izan zuten errepublika garaian, eta eragin handia izan zuten lan eta kultur esparruetan. 1931n batzokiko zuzendariek beharrezko kudeaketa guztiak egin zituzten egoitza berria zabaltzeko, Libano-Elorriaga familiaren Udondoko Landako baserrian. Aldi berean, euskal ezaugarriak sendotzen zuen jarduera oro sustatu ohi zituzten, esaterako, mendizaletasuna, dantzak edo musika. Urte horretako uztailan, hain zuzen ere, "Azkelari" izeneko mendigoizale taldea eratu zen, eta gerotsuago ezpata-dantzarien talde bat eta musika batzordea. Azkenik, 1932ko uztailaren 19an, Udondoko auzuneko plazari "Alfontso XIII.a plaza" izena aldatu zioten eta "Sabino Arana plaza" eman. Halaber, hainbat gerorapen eduki ostean, "Txori-Herriko jaiak", batzokia inauguratu zen. Ekitaldi guztiak Ondizko landan egin ziren, eta horietan guztietan parte hartu zuten alderdiko emakumeek. Aurreko egunean, txistulari talde bat abiatu zen Lamiakotik eta biribilketa batzuk egin zituen. Goizaldean, txapliguak bota ziren, eta goizean meza eman zen parrokan. Mezatik irtetean, Leioako eta Erandio-Goikoako ezpata-dantzarien eta iruleen erakustaldia izan zen, eta otoruntza bi, bata Txori-Herriko jaia zela eta, eta bestea batzokiak antolatua, eta amaitzeko mitina eta erromeria egin ziren.

Bigarren Errepublikan, gutxiengoan zeuden Jagi-Jagikoen bereizketa izan zen (horrela zuen izena Bizkaiko Mendigoizaleen Federazioaren astekariak; Gallastegi erradikala zen federazioaren buru), eta autonomia estatutua lortzeko lehen saiakera egin zen. Estatutua 1936ko urriaren 1ean onartu zen,

baina udal askok ahalegin bizia eta laguntza izugarria eman behar izan zuten; ildo horretan, 1933ko azaroaren 1ean, Elexaldeko pilotalekuan, estatutuaren aldeko mitin jendetsua egin zen. Errepublika garaian, nazionalisten hautagai-zerrendak jaso zituen boto gehien, eta hiru batzoki egon ziren batera: Udondokoa, Lamiakokoa eta Sarrienakoa. Lamiakokoa Arestiko etxeetan zegoen, ikaztegiaren ondoan. 1935 aldean, hainbat jarduera antolatzen zituen, hala nola, hitzaldiak edo mus txapelketak, eta bertan sortu ziren dantza-taldeak eta emakumeak batu ziren, eta berariazko zuzendaritza eratu eta jarduerak antolatu. Sarrienako batzokiari dagokionez, Euzko Etxea izenez ere ezaguna zen (badirudi Lamiakokoa baino zerbait lehenago zabaldu zutela, 1933an eraturik baitzegoen emakumeen batza) eta Juan Atxalandabasoren Altamira baserrian zegoen. Atxalandabasok Florencio Zarragari alokatu zion baserria, eta gero Leonardo Ormaetxeari, eta Lamiakokoaren antzeko jarduerak garatzen zituen.

Leioako batzokiek beste jarduera batzuk ere bultzatu zituzten, laguntza eta ongintzako jarduerak, hain zuzen ere, eta horiei guztiei ekiteko Acción Católica Femenina elkarteak sortu zuten. Elkarrekin egoitza zabaldu zuen 1935eko urtarrilaren 6an, José Ramón de Aketxe jaunaren plazan, eta jostailuak banatu zituzten umeei. Behartsuentzako laguntza ematearren, beste jarduera batzuk ere egiten zituzten, hala nola, Santa Agatako koruak. Entseguak egiteko, koruek Eleuterio Basañezen taberna erabiltzen zuten, Elexalden, Sarrienako Euzko Etxea, eta Lamiakoko eskolen kaleko 7. zenbakia. Halaber, antzerkiko gau-emanaldiak egiten zituzten, zeinahi antzeztokitan, besteak beste herriko pilotalekuan edo elizako arkupeetan. Oso esanguratsua da "aktoreen" taldeak "Eusko Laguntza" izena hartu izana antzerki-talde gisa. 1937ko uztailaren 17a arte, hots, Bilbo mendean hartu zuten eguna arte, Euskal Estatuaren hasikina antolatu zen. Hala ere, Franco atera zen garaile Gerra Zibilean, eta diktadura ezarri zuen XX. mendearen azken laurdena arte; horren eraginez, atzerrian hartu behar izan zuen egoitza Euskal Estatuak.

## **BERREZARKUNTZATIK GERRA ZIBILA ARTEKO GERTAKIZUN BEHINENAK**

### **Berrezarkuntza aldiko politika giroa (1875-1931)**

1868-1874 aldiko gizarte gatazkak, gerra zibila eta politika anabasaren ostean, agintari politikoez, kosta ahala kosta, ordenari eutsiko zion sistema ezartzea zuten hartu zuten helburu nagusi. Araubide berriaren egilea Antonio Cánovas del Castillo izan zen, ingelesezko parlamentu-sistema miresten zuen politikari bat. Sistema berria bakearen bidetik finkatu zen, boterean txandakatzen ziren bi alderdi politikoez hala bideraturik. Egoera hori abian jarri zen Práxedes Mateo Sagasta jaunak, liberalen alderdiko buruak, Koro tartekari gisa onartu, eta Pardoko Ituna sinatu zenean, 1885ean. Itun horren arabera, kontserbadoreek uko egin zuten eta erregeari iradoki zioten liberalak hautatzea.

Sistema hark oinarri zuen hauteskundeak gobernutik kontrolatzea: gobernuak eraturik, Gorteak desagitzen ziren eta hauteskundeak "fabrikatzen" ziren, lerrokatze prozeduraren bitartez; hau da, hautagaien zerrenda taxutu eta gehiengo zabala esleitzen zen, eta diputatuak lurralde bakoitza banaturik zeuden izenbakarreko barrutietan banatzen ziren. Jauntxoek eta tokiko oligarkiek alde edo

moldez lortzen zituzten gobernuak aurreikusitako emaitzak, eta, horretarako, hauteskondeak faltsuztatzen zituzten sistemaz. "Hauteskunde-iruzurrak, barrutian, aurkaritzarik gabeko hautagaiak, errolda aldaketak - aurrekoen hainbat lagin aurkitu ditugu azterturiko agirietan-, aktak faltsuztatzea, eta noiz edo noiz, botoak erostea ziren sistema politiko bitxi honen emaitzak bermatzeko bideak, sistema tokiko jauntxoek boterean funtsatzen baitzen, eta jauntxoek bezeroak eta gizarte presioa eragiteko sareak zituzten"<sup>92</sup>.

1890ean, errolda-hautespenetik (boto-emaitzen kopurua murrizten zuen) gizonezkoen hautespen unibertsalera igaro ziren arren, oinarri politikoak ez zen aldatu, eta jauntxokeria gizabanako zehatz batzuen tokiko eraginaren mendekoa zen, baita eragin hori politika laguntza bihurtzeko ahalmenaren mendekoa. XX. mendearen hasieran, alderdi liberala eta kontserbadorea zatikatu ziren, eta biztanleriaren politizazioa gero eta handiagoa izan zen; hortaz, prozedura hori ere oso zaila izan zen.

Euskal Herrian, eta bereziki Leioan, erregimen horren eragina eskasa izan zen. Jauntxoek sistema eta hauteskunde-iruzurra bai ezarri ziren, tokiko oligarkiek bezeriaren laguntza izan baitzuten boterea eskuratzeko (lanak, eraikitze baimenak, zerga salbuespenak edo soldadutzatik libratzea agintzen zieten, adiskideak baitzituzten administrazioan), baina sistema politikoak gobernuaren orientabideez landa ibili zen. Zenbait arrazoi direla bide, Bizkaian ez zen ezarri alderdien txanda sistema, besteak beste, alderdi kontserbadoreak gizarte eta politika ospea erabat galdurik zuelako -alderdi horri leporatzen zioten foruen abolizioa, eta hark eragin zuen tokiko burgesia alderdi liberal fusionistari atxikitzea-, eta meatzaritza oligarkia politikari lotu zitzaizkion 1890eko hamarkadan. Azkenek Sagastaren liberalismoaren protekzionismoaren aldekoa zen Canovasen kontserbadurismoa lerratu ziren, eta aukera horrek alderdi-bitasuna eragozten zuen.

Aniztasun politikoak artean jaio barik zegoenez, garai hartako alderdiek ez zuten traza berririk, ez antolakuntza egonkorrik, ez eta helburu orokorrez gaindiko programa zehatzik. Handikiek osatzen zituzten alderdi politikoak eta haien eragin-sareak elkartzen zituzten hauteskundeetan; eta, jakina, ez zuten euskarri herrikoirik haien egitura ahuletan txertatzeko. Horrelakoak ziren alderdi liberal guztiak, eta tradizionalista batzuk ere bai, baina horiek tokiko batzuk eratzen zituzten, erabakiak "indar bizi" jakinarazteko. Hala ere, monarkia eta autoritarismoaren ildokoak zirenez, erabakiak goi-karguek hartzen zituzten.

Berezarkuntzan, boterea legez eskuratzen zen hauteskundeek emaitzen arabera, baina sistema politikoaren egiturak desitxuratu zuten iritzi publikoaren nahia. Ideologia orokorra nabarmentzen zen, baina barrutik bakoitzeko botere faktikoaren arteko desadostasunek zeharo baldintzatzen zituzten hauteskundeek emaitzak. Hauteskunde-tirabirak egonez gero, jauntxoek arteko norgehiagokak agintzen zuten.

Hauteskundeetako botoak zenbatu ostean, arazoak ageri ziren batzuetan, esaterako, Pantaleón de Aresti y Basáñez jaunari 1891n gertatu zitzaiona<sup>93</sup>. Urte horretan berretsi zen Leioa bi barrutitan bereiztea eta horietan 937 biztanle bizi ziren, baina horietatik 167 besterik ez ziren hautesleak. Zinegotzi aukeratu zuten maiatzaren 14ko hauteskundeetan, baina hil horren 20an, haren ezintasunari buruzko espedientea bideratu zuten. Antza denez, ahoz hitzartu zuen udalekoekin Lamiakoko beira-lantegia eraiki eta betetzeko materialaren garraioa; harea auzune horretako herri-lurretatik ateratzen zen, eta garraiatzeko, Bilbao-Areeta trenbidearen burdinbidea zeharkatu behar zuen, gurdiekin. Gainera, diru asko zor zion udalari. Jakinarazpena jaso ostean, salatuak idazkia aurkeztu zuen, eta bertan esaten zuen dena gezurra zela, harea ateratzen zen lekua pribatua zela, erreklamazioa ez ziotela helarazi, extraofizialki izan baitzuen horren berri, baina, hala eta guztiz ere "ez zuela amore eman behar malapartatu batzuek gordeka eta isilean bere hautespenaren aurka ari ziren azpikeriaren aurrean". Azkenik, hautagarritzat jo zuten ekainaren 4an. 1903an, beste hautespen bat baliorik gabe uztea eskatu zuten Marinerri barrutian, eta horretarako argudiatu zuten Arestik 20 boto baino gehiago erosi zituela, baina Lurralde Batzordeak iritzi zuen ez zela froga biribilik aurkeztu. Handik gutxira, jendaurrean iragarri ziren Hauteskunde Erroldaren Batza Nagusiaren irizpenaren ale bi. Irizpen hori eman zen Herrizaintza Ministerioaren hauteskundearen garbitasunari buruzko zirkular bat jaso ostean.

Indar tradizionalistak atzerapen bizian zeuden. Liberalismo dinastikoak, bigarren karlistaldiaren ostean nagusitu zen oparoaldiaren laguntzaz, Bizkaia hartu zuen mendean. 1880ko hamarkadaren amaieratik hurrengo hamarkadara arte, meatze jatorriko burgesia berriak ez zuen bere interesen defentsa politiko eta intelektualen esku, eta herrialde osoa ordezkatzeko zuelako ustean, politikara ere bihurtu zuen une hartako nagusitasun ekonomiko eta soziala, eta Udalak, Aldundia eta Gorteak bereganatu zituen, eta Estatu hertsatu zuen protekzionismoaren alde egin zezan. Arantzel-langak ezarri ziren inportazioa apaltzeko, eta horrek ahalbidetu zuen industri eredu berria finkatzea; gainera, lege-esparru berriaren arabera, euskal ekoizpena barne merkatuan saldu ahal zen errentagarritasun baldintza hobezinetan.

## **Berrezarkuntza aldiko krisia**

### **Langileen mugimendua 1918-1923 aldian**

Zantzu guztien arabera, Alfontso XII.aren monarkia indargabe zegoen 1876ko Konstituzioak taxaturiko erregimenaren azken arnasaren aurrean. Ezinezkoa zen gobernu egonkorra eratzea. Annual-en hondamenak, Espainiaren neutraltasunak Lehen Mundu Gerran ahalbideturiko ekonomiaren goraldi bat-batekoak, sektoreen arteko alde handiak, etorkizunik gabeko inbertsioak eta langileen bizimodua okerrera egitea eragin zituen. Bizimodua lehendik ere zaila baldin bazen, txarrera egite horrek astindu zakarrak eragin zituen, hala nola, 1917ko greba iraultzailea, arestian aipatu dugun legez. Aurrekari horiek kontuan hartuta, krisi politikoa, krisi ekonomikoa eta gizarte nahasmena nagusitu ziren, enpresa asko itxi zituztelako -batez ere, ontzigitza eta burdingintza arlokoak-, gerraren ostean, eskaria amaitu zen eta. Batik bat, gizartea asaldaturik zebilen Bartzelonan (pistolerismoa eta anarkismoaren aurkako gobernuaren jazarpena) eta Andaluziako landan (gertaerak hain ziren latzak izan, ezen aldi horri

"boltxebikeen hirurtekoa" deitu zioten), baina beste liskar ugari izan ziren Bizkaian, non alderdi politiko sozialista, nazionalista eta monarkikoez erakutsi zuten jendea mobilizatzeko ahalmen handia zutela. Gizarte erasoak erruz gertatzen ziren Espainia hartan, Euskal Herria salbuespena izan zen; bertako tirabirek, oso salbuespen gutxitan izan ezik, ez zioten ordena publikoari ezbehar handirik eragin. Hori guztia izan zen horrela Indalecio Prieto sozialistaren adiskidetze-politikari esker, enpresaburuen gogoaz elkarriketa eta negoziaketa lantzeko gertatu baitzuten.

### **Primo de Rivera-ren diktadura (1923-1930)**

Berezarkuntzako alderdi dinastikoez iritzi publikoari arreta handiago egin eta iritzi hori kontuan hartuta legeak egiten hasi zirela, 1923ko irailean, Kataluniako kapitain jeneral Miguel Primo de Rivera-k, estatu-kolpe batez, buru eman zion krisialdiari eta gizarte bakearen ezari, eta berezarkuntzako sistema bertan behera utzi zuen. Kolpea eman eta hiru egunetara, Alfontso XIII.ak gobernuburu izendatu zuen. Honako hauek izan ziren harturiko lehen neurriak: dekretu-legeen bidez gobernatzeko eskumena bereganatzea, eskubide zibilak baliogabetzea eta gerra-egoera deklaratzeko. Jauntxoei ere gerra deklaratu zion, nazioa onbideratze aldera, baina gobernuaren politika-tresnak, Unión Patriótica alderdiak, jauntxoei azkena eman beharrean, antolakundearen barruan sartu zituen. Aldi horretan, alderdi guztiak ingurumari horretatik kanporatzeko xedez, CNT eta Alderdi Sozialista zeharo jazarri zituen. Beste alde batetik, UGTk, erregimenari eta tartekaritza batzordeekin lankidetzan aritzea erabaki zuen, eta, beraz, gizarte liskarrak nahikoa apaldu ziren.

Diktadurak Leioan izan zuen eragin nagusia ondokoa izan zen: udalbatza berria eratu zen, Guardia Zibilak begiratuta. Bizkaian, Primo de Rivera-k boterea galdu ondoren, jendearen gogoaz eta mobilizazioak nonahi azaleratu ziren. Batzoki batzuk zabaldu zituzten eta Emakume Abertzale Batzar antolakundea berregituratu zen. Monarkiaren zentzuak txanda hartu zion diktaduraren higuinari, eta 1930eko abuztuaren 17an, errepublikazale eta sozialisten bategite batean islatu zen. Bategite horretan ez zuen parte hartu EAJk, baina bai ANVk, hots, EAJtik bereizitako alderdiak.

Bigarren Errepublika (1931-1936)

### **Politika giroa demokratizatzea**

Errepublika aldarrikatu zenean, lehenik eta behin, Estatu osoan zabaldu zen modernizazio ildo bati lotuko zitzaizolako itzaropena, Mendebaldeko demokrazia handietan, Frantzian eta Ingalaterran gertatu zenaren parekoa. Bederen, horixe espero zuten jende xehearen parte-hartze politikoa bermatzen ahalegintzen zirenek; izan ere, Berrezarkuntza garaian, diru-kopuru batetik aurrera ordaintzen zuten zergapekoek soilik bozka zezaketena<sup>94</sup>.

1929ko porrotak eragindako munduko krisialdi ekonomikoak eta atzerapen materialak nahiz kulturalak areagotu zuten estatuaren gobernuaren mendean hartu nahi zuten taldeen arteko gatazka. Hala, Primo de Rivera-ren diktadura ekarri zuen bortizkeria giroa ezarri zen. Diktaduraren kudeaketa ekonomikoaren

ageriko porrotak eta diktadorearen aldekoen arteko desadostasunek krisia eragin zioten 1923ko estatu-kolpean eta Marokoko kolonia-politikan parte hartu zuen monarkia ez-legitimoari. Kolpea bera jukutria izan zen, Annual-eko Hondamendiaren (1921) erantzukizuna saihesteko, militarrei eta Alfontso XIII.a erregeari baitzegokien.

### **Alderdi politikoak eta hauteskundeak**

1931ko apirilaren 12ko udal hauteskundeak, II. Errepublika aldarrikatu zuten haiek, etorri zirenean, jauntxoak ondo finkaturik zeuden landa-eremu askotan. Egiatan, errepublikarrek eta sozialistek egindako koalizioak baino udal gehiago bereganatu zituzten erregetiarrek, baina gehienak hiri txiki eta herriak ziren, eta haietan prozedura zaharrak erabiltzen ziren orduan ere. Errepublikazaleen garaipena nabarmena izan zen hiri handietan eta hiriburuetan, hango botoa ez baitzuten horrenbeste kontrolatzen jauntxoek.

Bizkaian, errepublikazaleek, sozialistek eta ekintzako nazionalistek osatzen zuten blokeak garaipen garbia lortu zuen 6.000 biztanletik gorako 17 udalerrietan<sup>95</sup>, eta 317 zinegotzietatik 150 (47%) berenganatu zituzten. Hala ere, Bizkaiko gainerako udalerrietan, Leioan kasu, 33 kargu lortu zituzten. Euzko Alderdi Jeltzaleak emaitza bikainak izan zituen (86 zinegotzi 6.000 biztanletik gorako udalerrietan eta 83 gainerakoetan). Monarkikoen, guztira, 203 zinegotzi eta lehen indar gisa geratu ziren %32rekin. Hala ere, ordezkari nagusia funtsatzen zen dentsitate txikiko landa-eremuetan. Eremu horietan, ondasunen jabe handiek botoa ezarri ohi zieten maizterrei. Azkenen aukera politikoa, beraz, galtzaile atera zen herritarren babes handiagoa zuen blokearen aldean, eta monarkiaren berrezarkuntzaren auzia ebatzi behar ei zen hauteskunde haien eztabaidan hasi ez zen EAJren aldean.

Artean, Leioan, nazionalisten batzokiak urte batzuk emanak zituen jardunean, halaxe ageri baita herrian jardueraren bat zeukaten establezimendu guztiek betetzen zituzten industri matrikuletan. Barruti bietan (Udaletxekoa eta Lamiakokoa), 1.426 eta 1.340 hauteslek botoa eman zuten, hurrenez hurren. Hautaturiko 12 zinegotziak honela banatu ziren: EAJk 4 lortu zituen, PSOEk beste 4, Monarkikoen 1 eta Independenteen 3. Banaketa horrek agerian utzi zituzten hautesleen arteko aldeak; batetik, industri eta langile giroko Lamiako auzuneko hautesleen botoa zegoen, eta bestetik, landa-azuneetako hautesleen botoa, kontserbadore eta nazionalistagoa.

Udala honela osaturik geratu zen:

Alkatea: Prudencio de Udondo Sarria

Lehen alkateordea: Santos Fernández Blanco

Bigarren alkateordea: José Ramón Aretxabaleta Moja

Zinegotziak: Nicolás Bilbao, Venancio Aurrekoetxea, Ricardo Victoria Etxebarria, Claudio Jauregi, Cesar Moja Villanueva, Luciano Bilbao Bilbao, Leopoldo Sabatel Gracia, Mauricio Olabarrieta Uriagereka eta Eusebio Gaubeka.

Aurrekoek gain, hauek ere aurkeztu ziren hautagai zerrendetan: Eulogio Learra Zarraga, Emeterio Mota Learra eta Simón Ayo Mota udaletxeko barrutian, eta Nicolás Bilbao Obieta, Víctor Gana Zarraga eta Onesifero Merino Serrano Lamiakoko barrutian.

1931ko udako Gorte Konstituziogileetarako hauteskundeetan, bi koalizio indartsu aurkeztu ziren: eskuinaren koalizioa (Euskal Herrian, Euzko Alderdi Jeltzaleak, Komunio Tradizionalistak (karlistak) eta katoliko independente batzuek osatzen zuten, eta Lizarran, ekainaren 14an, onarturiko euskal estatutuaren egitasmoaren alde egiten zuten), eta errepublikazaleen eta sozialisten blokea. Acción Nacional eta Hirugarren Internazionalari atxikitako komunistak bakarrik aurkeztu ziren hauteskunde haietan.

Bizkaiko hiriburuko barrutian -Leioa barruti horretan zegoen- errepublikazaleen eta sozialisten blokea atera zen garaile, botoen %51,8 eskuraturik; Eskuindarrek, aldiz, botoen %37,4 berenganatu zituzten, baina Bizkaiko lurraldean atera ziren garaile, botoen %76,7 eskuratu zituztela, lehenengoen %20,8ren aldean. Leioan ere Koalizioak garaitu zuen, baina ez zien alde handirik atera besteei (botoen %48,1, %42,1ren aldean), Blokeak jarraitzaile asko baitzituen Lamiakoko auzunean. Acción alderdiko ezker nazionalismoak ordezkari txikia baina esanguratsua lortu zuen (%7,9). Komunistek lorturiko emaitzak garrantzi gabeak izan ziren.

Azken batean, euskal lurraldeetako emaitzak aintzat hartuta Koalizioak Blokea garaitu zuen, baina hiriburuetan eta hiri nahiz industri gune nagusietan, ezkerria zen gailena. Euskal herriko egoera politikoa Estatu osoan antzematen zen goranzko bipolarizazioa baino zatikatuago zegoen.

Azañaren erreforma-politika eragingarria izan ezenez, Gorte arruntetarako deia egin zen berriro, 1933ko azaroan. Estatuan, errepublikazale eta sozialisten koalizioa desegin egin zen; Bizkaian, ordea, Prietok beste koalizio bat eratu zuen, sozialista erradikalak bazter utzita. Nazionalistak bakarrik aurkeztu ziren, Acción nazionalistaren laguntza baliatuta, azkenek ez baitzuten hautagairik aurkeztu Bizkaian. Eskuindarrak eta internazionalistak ere bakarrik aurkeztu ziren hauteskundeetan.

Hauteskundeetako emaitzak iragarri zirenean, nazionalismoa nagusitu zen euskal lurraldeetan. Bizkaiko hiriburuan botoen %40 eskuratu zuen, eta Bizkaiko lurraldean %57,3. Ezkertiarren koalizioak botoen %36,1 eta %13,7 berenganatu zituen, eta eskuindarrenak %14,4 eta %28,5.

Eskuindarrek aldea atera ziotenez, sozialismoa errepublikazale moderatuengandik urundu zen, eta greba orokor iraultzaileak deitzen hasi ziren; horrek guztiak isla garbia izan zuen 1934ko urriko gertaeretan. PSOEk eta UGTk antolatu zituzten ekintza guztiak, eta sozialistek eta komunistek parte hartu zuten haietan, anarkista, aeneuvista eta Jagi-Jagiko mendigoizaleen laguntzaz. Hilabete batzuk lehenago, udalak debekatu zuen musika-bandaren emanaldia Maiatzaren Lehenean, sozialisten aldeko

jaia zela, eta ez langile guztiena, iritzi baitzion. 1936an, ordea, egun hori alaitsu ospatu zuten eta txapliguak bota zituzten, eta hamabi musikariren eskutik, kalejira eta erromeria egin ziren.

Eskuineko gobernuak errepresioa erabili zuen, eta ezkerrekoak berriro elkartu ziren askotariko politika ildoak baturik, hala nola, Martínez Barrioren errepublikazale moderatuak eta komunistak (Euzkadiko PC sortu berrian). Beste alde batetik, ELA-STVko kideek propaganda eta solidaritate ekintzak egiten segitu zuten; ildo horretan, langabezia zeuden langileentzako kooperatiba, eskola eta elkartasun kutzak eratu zituzten.

1935eko abuztuaren 4an, Euskal Kooperatiben lehen jaia ospatu zen Ondizko landan. Meza egin zen baselizan, eta ondoren, Leioa eta Ondarretako kooperatiben lehendakariak ohorezko aureskua dantzatu zuten. Txistulariek giroturiko herri-bazkaria egin zen landan bertan, eta oturuntza ofiziala Eleuterio Basañezen tabernan. Arratsaldean, mitina egin zuten Basañeztarren lursail itxi batean, eta horretan, hizlariak -besteak beste, José Antonio Agirre- baserritarren lan egiteko ahalmena goretzi zuten eta haien interesak babestearren eta haien arteko elkartasuna lantzearen, elkartzeko beharraz aritu ziren. Amaitzeko bertsolari batzuek kantatu zuten eta erromeria egin zen.

1936ko otsaileko Fronte Popularraren hauteskundeak -lehenago egin ziren, erakundeen hondamena agerikoa zen eta- buru eman zioten hautespenari Bizkaiko hiriburuan, Baina Bizkaiko lurraldean bigarren txanda egin behar izan zen martxoaren 1ean. Hautesle bakoitzak hautagai-zerrenda bateko kideei eman behar zien botoa. Honako hauek ziren hautagaiak: Fronte Popularraren izenean, Paulino Gómez Beltrán, Indalecio Prieto, Julián Zugazagoitia eta Leandro Carro, Nazionalisten izenean, Jáuregui, José Horn, Manuel Robles eta Francisco Arregui, eta Eskuindarren izenean Gaytán de Ayala, José María Areilza, José María Juaristi eta Miguel Goldakarena.

Bizkaiko lurraldean Fronte Popularra atera zen garaile, eta boto gehien (%48,3) jaso zituen hautagaia Mariano Ruiz Funes izan zen, Ezker Errepublikazaleko kidea. José María Irauzieta nazionalistak botoen %30,7 bereganatu zituen eta Joaquín Adánek, eskuindarren koalizio eta haultzaren kontrako blokeko kideak, %21.

Ezkerrekoek eta eskuinekoek aurreko hauteskundeetan baino boto gehiago lortu zituzten, baina nazionalistak gailendu ziren berriro ere, kanpaina osoan nagusitu zen bipolarizazio giroa gorabehera, boto gutxiago eskuratu baitzituzten. Eskuineko indarrek porrot egin zuten Manuel Azaña buru zuen gobernu frontepopulista bidezkoaren aurka prestatzen ari zen azpilanean nahasteko ahaleginean. Ezkerrekoen eta nazionalisten iritziak bat etorri ziren autonomia politikoaren gaineko gaiari zegokionez. 1936ko uztailaren 17an, Marokoko armada kolonialak gobernu zentralaren aurka matxinatu zen. Ondoko egunetan, penintsulako hainbat guarniziok bat egin zuten. Gerra Zibila hasi zen, eta Bizkaian,

kolpearen inguruko indarra ahula zenez, instituzioen boterea legezko ordezkarien esku geratu zen. Ordezkari haiek matxinadari aurre egiteko baliabide guztiak abiarazi zituzten.

### **30eko hamarkadaren krisialdia**

Orain arte, alderdi politikoei besterik ez diegu erreparatu, baina orain garai hartako ekonomia jorratuko dugu. 29ko krisialdiko eragina handia izan zen Leioan: industri ekoizpena moteldu zen, batez ere meatzaritza eta burdingintza arloetan, ordura arte estatuaren protekzionismoak lagundu bazien ere. Etxe askotan gertu-gertutik jakin zuten langabezia eta bestelako gabeziak zer ziren, are gehiago nekazaritza ustiategi txikia izan ezean, bizirik irauteko oinarrizko-oinarrizkoena eskuratu, eta, zer edo zer sobera geratuz gero, azokan saldu eta diru apurra eskuetaratzeko. Krisia oso latza izan zen Bizkaiko burdingintza lantegi nagusietan (Bizkaiko Labe Garaiak, Basconia, Echevarría, Constructora Naval, Babcock Wilcox eta Euskalduna; guztien artean, 1.000 langiletik gora zituzten); hala, 1929 eta 1934 bitartean, 5.000 lanpostutik gora galdu ziren. Enpresa txikietan, onik atera ziren ekaitzetik, ekoizpena aniztu eta lanastea murriztu zutelako (langileek eroste-ahalmena galdu zuten baina lehengo lanpostuei eutsi ahal izan zieten), plantilla gutxitu behar izateke. Krisiak berebiziko eragina izan zuen metalgintzan (Earle, Victoria eta Echevarría Hnos), eta beira-lantegian.

Krisialdi horren ondorioz, lan-gatazkek sarritan gertatu ziren, eta gizartearen asaldura hain zen handia, ezen San Maximoko kapilau Bernardo de Iza tirokatu eta hil zuten, eta haren lagun Zoilo de Agirre parrokoa larri zauritu zuten.

1931ko ekainaren 13ko bilkuran, udalak telefono automatikoa jartzeko proposamena onartu zuen, baina krisiari aurreko egiteko beste proposamen batzuk ere aintzat hartu zituen. Bideak konpontzeko obretan lana eman zien behargin batzuei, eta beira-lantegiari Gobela ibaiaren ondoko lursail batzuk laga zizkion, enpresa herrian finkatzeko edo. Udaletxeko lokaletan behin-behineko eskola egokitzeko erabakia ere hartu zuen udalbatzak.

1935ean, Lamiakoko parrokia bereiztu zen urtean<sup>96</sup>, La Delta enpresak ezin zien oporraldia ordaindu langileei, eta horiek lansari igoera eskatzen zuten. SOV, UGT eta CNT sindikatuek bideraturiko negoziaketa luzearen ostean, 1936ko apirilean lansari guztiak igo zituzten, 0,25 eta 0,75 pezeta bitartean eguneko, eta neurri hori itun batean jaso zen.

### **Nekazarien jabetza**

Nekazaritza arloan, XVII-IX. mendeetan gertatu zen apurkako zorpetzearen eraginez, jabe txiki asko bilakatu ziren jabe absentista handiek metaturiko ondasunen errentari. Handik luzarora, egoera antzekoa zen: jabe gutxi batzuek (noblezia eta burgesiatik, bietatik zetozen familiak, euskal bititza politikoa, baita naziokoan ere, eragin handia zutenak, hala nola, Oriol, Ramón Coste, Lamiakoko markesa edo Santo Mauroko dukesa) baserrien %30 eta lursailen %75 zuten mendean.

## **Laburpena**

Errepublika berrezartzearen ondorioz, politika giroa indarberritu zen, eta demokratikoago eta anitzagoa bihurtu; era berean, bloke handiek, eskuindarrek eta ezkertiarrek, izandako desadostasun politikoak are gehiago muturtu ziren, eta bloke horiek garrantzia hartzen hasi ziren estatuan. Hala ere, gizarte eta ekonomiaren barruko egoerak eta kanpoko prozesu politikoaren eraginak elkarrizketa lantzeko bide guztiak itxi zituzten.

1931 eta 1933 bitartean estatua gobernatu zuten errepublikazale eta sozialisten erreformismoak ez ziren herritarren iguripenei erantzun -ekonomiaren krisialdiak jota baitzeuden- eta monarkiko-eskuindarren "kolpeari" (1932ko Sanjurjada) eta anarkisten estremismoari aurre egin behar izan zieten. Eskuindarren biurtekoak (1933-1935) ere ez ziren ezer ganorazkorik ekarri gizarte eta ekonomia arloko aldaketa behar-beharrezkoei. Aitzitik, aurretiaz lorturiko aurrerapenak moteldu zituen, eta langileen mugimendua bare antzean egon bazen, 1934ko urriko mugimendu iraultzaileen (Bizkaian oso esanguratsuak izan ziren) ondoko errepresioaren eraginez izan zen, eta ez ministerioaren lan bikainaren eraginez. Ezkerrak Fronte Popularrarekin batu eta mendekua hartu zuen 1936ko hauteskundeetan, baina ezkertiarren garaipenak militarren kolpea azkartu zuen. Hala, uztailleko matxinada zela eta, estatua baliabiderik gabe geratu zen politika eta gizarte arloko indarkeriari aurre egiteko, eta, beraz, Gerra Zibila piztu zen.

Euskal Herrian, politika giroa askoz konplexuagoa zen, Euskal Nazionalismoak pisu handia zuelako bertan. Izaera konfesionala zuenez gero, lehen biurteko gobernatzaileek erabili zuten elizaren aurkako erradikalismoaren erabat kontrakoa, eskuindarrei lagundu zien, bereziki tokikoei, nazionalisten helburu nagusia lortzen ahalegintzeko: autonomia politikoa. Alabaina, eskuindarren jarrerak eragotzi zuen Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa elkartzen zituen Autonomia Estatutu bakarra. Horregatik, eta garai hartan gizartean zebilen gatazka kontuan harturik, nazionalismoak zentrismo posibilistara jo zuen, eta autonomia eraikitzen laguntzeko prest zegoen aliatua aurkitu zuen: Indalecio Prietoren sozialismo moderatua. Gerra pizturik, autonomia onartu zen 1936ko urrian, baina Bizkaiko lurraldean bakarrik izan zuen eragina, militarren erasoak zirela kausa, Errepublikari men egiten zion euskal lurralde historiko bakarra baitzen ordurako.

## **GERRA ZIBILAREN ERAGINA (1936-1939)**

Bizkaiko altxakorren sarea deseginda eta lehen euskal gobernu autonomoa sortu baino arinago, gobernu zibilak erresistentzia antolatu zuen, errepublika suntsitu gura zuen altxamendu militarreko kideei aurre egiteko. Eta hori errepublikaren legezkotasunaren aldeko alderdi eta sindikatuen lankidetzari esker egin ahal izan zen; gainera, horiek, ahal izan zuten ginoan, beste leku batzuetan jazo ziren gehiegikeria iraultzaileak baztertzeko ahalegindu ziren.

Gauzak horrela, 1936ko abuztuaren hasieran, herritarren guardia eratuta zegoen. Guardiak ordena jagon behar zuen udalerrian, eta 35 gizonak osatzen zuten; nahikoa arma ere bazuten (6 pistola, 160 eskopeta eta 9 errifle), baina ez ziren oso erabilgarriak, benetako ekintza militarretan parte hartu behar izanez gero<sup>97</sup>. Aldi berean, Leioako Ikerketa Batzordea izenekoak "Euzkadiko Behin-behineko Erregimenaren aldeko etxagunen zerrenda egin zuen<sup>98</sup>.

Orduan, matxinatuek Gipuzkoa azpian hartu eta gero, alderdietako miliziak antolatu ziren Bizkaian. Manuel Vargas-ek<sup>99</sup> dioenez, milizia horiek Iparraldeko Armada Errepublikazalearen Lehen Gorputzaren -alegia "Euskal Armadaren", ernamuin izan ziren; Eusko Jaurlaritzaren Defentsa Sailaren mendekoa zen, eta abertzaleen miliziek (EAJren Euzko Gudarostean batutakoek eta ANV-EAE, EMB eta ELA talde xeheagoenak), fronte popularrekoek (Faxisten aurkako Euzkadiko Herri Milizietan batuta), eta CNTrenak osatzen zuten. Leioako herritar askok parte hartu zuen milizia horietan, boluntario edo soldadutzara deituta, gudari batailoiak osatzeko. Leioan -Artatza jauregian, zehatzago esateko-, "Larrazabal" (49.a) eta "Gogorki" (Ingeniarien 7.a) batailoiek kaserna paratu zuten. Beste batzuek Leioatik hur egin zuten, hala nola, "Sasetak" Asuan, "Martiertuk" Erandion eta "Beldar" gerra-gurdien batailoiak Getxon. Beste leioaztar asko Euzkadiko beste batailoi batzuetan borrokatu ziren, hala nola, EAJren 62.an -"Ariztimuño" izenekoan-, 64. Ofizialean - "Disciplinario" izenekoan-, CNTren 11 eta 36.ean -"Isaac Puente" eta "Malatesta" izenekoetan-, PCEk antolaturiko 4.an -"Rosa Luxemburgo" zeritzon hartan-, JSUren Meabe 1.a/Largo Caballero y Meabe 2.a/Stalin 2.a batailoietan, bai eta Ertzaintzaren Motordun Sailean ere.

Aireko defentsari dagokionez, Lamiakoko aerodromotik, bai eta Sondikako orduko aerodromo badaezpadakotik, ateratzen ziren zeuden hegazkin bakanak (1 10en aurkako proportzioa zegoen, eta, hegazkin eraitsiak eta matxurak zirela-eta, amaieran are handiagoa izan zen aldea) alemanen Legión Condorren, italiar legionarioen hegazkinen eta matxinatuen euren hegazkinen aurka borrokatzeko asmoz. Matxinatuen armadaren hegazkin gehienak aliatuen biltegietatik ekarri ziren.

Lamiakoko aerodromoaren pista 1 km luze eta 250 m zabal zen, eta XIX. mende goienean hipodromo izaniko lursailetan zegoen. Hegazkin-pista hori gauzatzeko, larrea berdindu eta mundrunaz estali zen. Irteera bi zituena: bata "La Delta-n" eta bestea gero Dow Unquinesa jarri zen lekuan. Pista horretatik eta Sondikakotik amerikar, ingeles eta errusiar hegazkinak ibili ziren, modelo askotakoak<sup>100</sup>, batik bat Polikarpov I-15 ehiza-hegazkina, baina horren gutxi izan ziren, ezen ia ez zegoen ezelako aire-babesik. Baina, horren hegazkin gutxi egon arren, halako 6 atera ziren Lamiakotik, eta Araba ikuskatu eta bonbardatzeko hainbat irteera egin zituzten. Hegazkin batzuk Leioan jausi ziren: bata oraingo unibertsitatearen alderdian, bestea Peruriko oilategi batean, eta beste bat, lau motorreko amerikar hegazkin bat, nahiko hur, Erandioko zelaiko garitza batean.

Aerodromo horretatik ateratzen ziren hegazkinen burrunba Bilbotik entzuten zen. Eta zarata hori guda denbora bizi izandakoek gogoan daude oraindik:

"laster itsaso aldera entzuten zen, Lamiakon ehiza-hegazkinentzako pistatxo bat zegoela-eta, zelan aireratu eta Bilbo gainera igarotzen ziren burrunbaka" 101

Hango pistak hegazkinen aurkako arma bakar batek babesten zuen, eta etsaiaren hegazkinen helburu izan zen etengabe. Horrela, 1936ko abuztuaren 10ean, oso laster beraz, lekua bonbardatu zuten; hilabete amaieran ere, hainbat bider egin zuten, eta horietan jendea hil egin zuten.

Gudarako adinean zeuden gizon gehienak errepublikazaleen alde borrokatu ziren, eta horiek Unben eta beste leku batzuetan lubakiak egin zituzten, nazionalen aurrerakada geldiaraztearren. Orobat hegazkinen aurkako babeslekuak eraiki zituzten herritarrentzat. Leioan hainbat babesleku egon zen: Udondon, Ondizen, eta Elexaldeko errotatik hur. Eta bazegoen beste bat Leioatik hurren dagoen Erandioko alderdian ere, Txakurzulon. Labe garaietako eta antzeko lantegien sirenek jotzen zutenean, guztiek jotzen zuten hara. Ume batzuk, jakin-minak jota edo benetako arriskuaz konturatzen ez zirelako, ez ziren babeslekuetara joaten, eta otzara baten azpian ostentzen ziren, bonbardaketak hurretik ikusteko. Gehienek, ostera, ordu luzeak ematen zituzten ilunpean (jatekorik ere eroaten zuten, badaezpada ere), obusek harrapa ez zitzaten (halako bat Matonetik hur jausi zen) edo bonbek jo ez zitzaten (Halako batek hil zuen Maria, Estartetxe baserriko jabea).

1936ko azaroan, EEBBko hainbat ehiza-hegazkin heldu ziren, errefortzu gisa. Horiei esker, Gasteizen aurkako erasoaldian (Legutioko gudaldian) esku hartu eta Bilboko zerua defendatu zuten gobernuaren hegazkinak, hilaren 30a ezker, eta zelako edo halako arrakasta lortu. Hala ere, 1937ko martxoaren 31tik aurrera, Bizkaiaren aurkako erasoari ekin zioten frankistek. 65 batailoi eta 200 hegazkin ekarri zituzten, meategietako eta industriako erreserbez jabetzeko, eta haien aurka Euzko Gudarosteko 51 batailoi eta Lamiakoko hegazkin apurrak borrokatu ziren. Apirilaren 8an hiru erasoaldi egin ziren, eta lurtean zeuden hainbat barrakoi eta 4 ehiza-hegazkin suntsitu ziren horietan; beste 3 hegazkin matxuratu zituzten. Hilaren 22an, berriro ere jo zuten eraso, eta, hori dela-eta, defentsarako ehiza-hegazkinak Sondikara jo behar izan zuten; bertan lurra hartzean hainbat hegazkin itzulikatu egin ziren. Egun bi lehenago, Felipe del Río -euskal aire-defentsako heroia- hil egin zen guda-ekintzan. Erabil ezin zitezkeen Lamiako eta Sondikako zelaiak Somorrostroko batez ordeztu gura izan ziren, baina horretan ere porrot egin zen, lurtean, gutxienik, 6 ehiza-hegazkin suntsitu zituzten-eta; alabaina, italiarrek haien hegazkinlari trebeenetariko bat galdu zuten, Guido Presel.

Eusko Jaurlaritzak, airean zuen babes ezaren jakitun, laguntza handiagoa eskatu zuen behin eta berriro, baina, Prieto, Itsas eta Aire ministroa, bera tramiteez arduratu arren, ez zen ganorazko ezer lortu, gobernuak ez zeukalako behar beste hegazkinik, eta, gainera, ez zegoen prest horiek alferrik galtzeko. Penintsula iparraldera hegazkinak garraiatzen zetozen hainbat itsasontzi harrapatu zituzten frankisten

espioitza zerbitzuek, eta frantses agintariek nahiz Esku-hartzearen aurkako Batzordeak ez zuten espero beste lagundu, hegazkin asko matxuraturik edo arruta ezin topaturik itzuli egin ziren eta.

Etsaien etenbako bonbardaketak zirela-eta, azkenean, aerodromoa kendu egin zen, eta, hala, matxinatuek Bizkaia azpiratzeko erabilitako guda-fronte hori galdutzat jo zen. 1937ko ekainaren 17an, frankistek eta armada altxatuaren "Gezi beltzak" dibisioak hartu egin zuten Leioa, eta Lamiakoko aerodromo izandakoan hegazkin hondatu bi topatu zituzten, eta beste bi sutan, bai eta 30 hegazkin-motor ere -gehienak ere hondatuta-. Horietariko batzuk Lutxanako trenaren tunelean gordetzen ziren, olio eta hegazkinetarako bomba batzuekin batera. Abertzaleek, arin-arinka, ikurrinak lurpean sartu zituzten, eta Batzokiko erregistro-liburuan Kurkudi mendian. Mendi horretan bertan hainbat guda-gurdi paratu zuten, armada errepublikazaleak Sestaon hartutako lekuetara artilleria-piezak jaurtitzeko. Hala ere, ikurrinen hondar ustelak ezin izan ziren berreskuratu, eta batzokiak arpilatu eta erre egin zituzten, Udondokoa legez. Ordura arte politika arloan ageriko lana egina zuten gizon eta emakumeak etengabe zelatatu, espetxeratu eta iraindu zituzten. Baina, batzuetan, erregimen berriaren aldekoen kontrol zorrotzari izkin egitea lortu. Batza klandestinoak ere sortu egin zen, eta hurreko mendi eta baserrietan elkartzen zen, propaganda lana koordinatzeko eta dirua batzeko -alderdiaren eta hurreko sindikatuaren egiturari eustearren. Konpromiso politikorik ez zeukan jendeak ere bere ondasunak ostendu egin behar izan zituen, eta are sats artean sartu, errevisa ez ziezazkieten.

Besteak beste, aireko babes ezak defendatzaileen indarren arteko batasuna hautsi zuen, ezen jende multzo batek uste zuen Madrilgo gobernuak ez zituela Euskadirekiko betebeharrak betetzen. Hori dela-eta, euskal abertzaleek irtenbide negoziatua bilatu zuten, Vatikanon, italiar indar erasotzaileak bitartekari eta solaskide zirela. Hala, 1937ko ekainaren 19an Bilbo errenditu egin zen, eta Santoñako ituna sinatu zen, baina italiarrek ez zuten bete, frankistak haren aurkako ziren eta.

Leioatik hur, Unben hain zuzen, Francoren alde borrokatzen ziren italiar soldaduen destakamendu bat zegoen. Ume asko haiengana hurreratzen zen, ogi-puska bat eman ziezaien.

Matxinatuek atzerriko laguntza handia jaso zuten, armetan eta gizonetan (italiarrak, alemanak, portugesak y marokoarrak). Eta horri aurre egiteko, 1936ko amaiera aldetik aurrera, fusil-kartutxoetarako letoizko kubotxoak eta horietarako bala-zorroak<sup>102</sup> ekoitzi zituzten Delta lantegian. Hori dela eta, ingurunea bonbardatzen zuten hegazkinek are gogorrago ekiten zioten leku horri. José María de Irala ingeniariak zuzentzen zituen lanak Earle-n, eta aipatu zuen kartutxogintzarako makina egokiagoak erosi behar zirela Ingalaterran edo Frantzian, ezen, Lamiakon erabilitako prentsak lar handiak zirenez, altzairu gogorragoa erabili behar zen.

Eusko Jaurlearitzak industria erabili gura izan zuen, hornigaiak lortzeko, itsas bideak frankistek estuki blokeatzen zituzten-eta, baina lehengaien eskasiak, industria-zuzendaritza kaskarrak eta etsaiaren hegazkinak industria-herrietan eten barik egiten zituzten erasoek (1937ko maiatzaren 11n, hiru herritar hil ziren) zapuztu zuten ekimena.

### **LEIOAZTARREN EGUNEROKO BIZIMODUA, GERRA ZIBILA HASI ARTE**

Gerratea amaituta, atal honetan aipatuko ditugun eguneroko biziera eta aisialdiko aukera batzuk aldatu egin ziren guztiz. Aisialdirako tarterik ere bazegoen, baina betiere gose berrindu eta edozein kontrol edo errepresio modurik izkin egin beharren pentzudan zegoen, Francoren diktadura nagusitu zenetik halako giroa zegoen eta.

### **ZELAKOA ZEN ELIZATEA?: OBRAK ETA ERAIKIN BERRIAK**

Udalek, edozein herri-lan egin baino lehen, jarraitu behar zieten Aldundiak onartu eta 1869ko apirillean gutun bidez jakinarazitako arauei<sup>103</sup>: lehenik, udalak hausnartu behar zuen lan egokia zen ala ez. Gero, batzorde bat izendatzen zen, txostena egin zezan, planoak eta guzti; ondoren, egitasmoan jendaurrean jartzen zen ikusgai, eta azkenik, baimena lortuta eta kostuak udal aurrekontuaren %2 baino gehiago hartzen zuenean, errematean ateratzen zen; eskaintzarik onenak nork egin, hark lortzen zuen esleipena.

Hori izan zen udaletxe berria eraikitzeko jarraitu zen prozedura. Probintziako aldundiaren agindu bat izan zen pizgarria, bertan udalei ondorengo egiteko ematen zien: "ardura eta arreta handiz udal-agiritegiak sortu eta koka zitzatela eta hala gorde eta zaindu zitzatela, behar bezala paper sortetan eta zenbaki koerlatiboen arabera bilduta, agiri, liburu, espediente eta udalari dagokion guztia; eta udaletxeko sarraila bikoitzeko lokaleko departamentu bateko armairu baten ipini ditzatela". Horregatik, abuztuan udaletxea eraikitzea erabaki zen "apala izan arren, behar-beharrezko bulegoak izango zituen: udalak bilerak egiteko gela, udal-agiritegia, idazkaritza, atxilotze-gela eta abar, eginkizun guztiak bete ahal izateko eta udal zerbitzuek puntualtasun eta zehaztasunez jarduteko (...) ezin besteko bezain premiazkoa da eta, horregatik, eta nagusiek agindutakoa bete ezinean dagoelako, hain zuzen ere, udala egoera lotsagarri bezain larrian dago, liburuak eta agiri garrantzitsuenak etxe partikular batean gordeta". 1891eko irailaren 6ko bileran, gaur egungo udala eraikitzea erabaki zen, lehengoa 1865ean José Ramón de Aketxeren itzalpean eraiki zen, eta 1881ean berriztatu<sup>104</sup>. Eraikin berria José Bilbao Lopategui jauna arkitektoari agindu zioten, eta lana, Prudencio Anzonegui barakaldarrak obra, lanak 36.515 pezetan esleitu ondoren.

Lehenengo solairua eta arkuen hasiera eraikita zeuden, eta obra oso ondo zihoala ematen zuen. 1893ko urtarrilaren 30ean, José Ramón Aketxe, obrak ikuskatzeko arduradunak ondorengo esan zuen: "Atsekabe handiz jakinarazi behar dut urtarrilaren 19an goizeko seiak inguruan, iparraldeko horma eta bertan eutsita zegoen kanoi-ganga erori egin zirela, eta horrek harlanduak igotzeko garabiak matxuratu

zituen (...) eta nik uste izozte latzek eta etengabeko euriek, karea bigunduta eta oinarriak hondatuta, eragin dutela ezbehar hori."

Badirudi hortik aurrera dena nahasten hasi zena: langile batzuek lana utzi zuten, soldatarik ez zutelako jasotzen; kontratistak ez zuten bere gain hartzen eraisketa, eta inork ez zekien non zegoen.

1894ko hasieran, oraindino gauza asko zeuden bukatzeke, eta, handik urte askotara, oraindino arazoak zeuden, ezen kaserna-gelen sabaizuna erori egin zen. 1905a arte ez zen lana bukatutzat eman.

Maiatzaren 1936an hastekoa ei zen Rafael Fontán udal arkitektoak udalaren batzar gela eta auzi gelarako egindako apaintze-proiektua, baina Gerra Zibilak geldiarazi zuen.

Hilerrian hainbat konponketa eta zabaltze lan egin arren, hura, hazkunde demografiko izugarria zela-eta, txikiegia gertatzen zen, eta, azkenean, Leioako hilerriaren egoera osasun publikorako arriskugarria suertatu zen, eskola eta etxebizitzetatik hurbil zegoelako.

Azkenean, 1896ko irailean, hilerri berriaren proiektua aurkeztu zen; proiektua, berez, lehengo hilerria zabaltzekoa zen, baina atontze-lanak handiagoak ziren. Baina ez zen dena hain erraza; izan ere, Probintziako Osasun Batzako Medikuntza Batzordeak errefusatu egin zuen proiektua. 1899an, Leioa eta Getxoko Deogracias de Armentia y Zubiaur jauna eta Donato Saloña y Cecin osagileen aldeko txostenak aurkeztu ondoren, kapera eta gorputegia izango zituen hilerri berriaren lanak hasi ziren. Behin lanak bukatuta, leioaztar askok baimenak eskatu zituzten familien kriptak eta panteoiak erosi edo eraikitzeko, horiek santu izeneko kaleetan banatutako eremuan zeuden antolatuta, eta eremu horren zati bat hilerri zibilerako erabili zen.

Hilerriek etengabeko arreta behar zuten, utzikeria itxura saihestu nahi izatekotan, 1914an José Martínez Leioako Agrupación Socialista Obrerako idazkariak udalari bidali zion eskaeran, zera eskatzen zuen, otoi, "hilerri zibila txukun atondu dezala, bai neurrietan bai garbitasunean, belarra nahiko hasita dagoelako, eta ezin da bereiztu hilerria edo lur abandonatua den".

1921ean, Matilde Aketxek, José Ramón de Aketxe y Agirremota elizatearen ongile izandakoaren oinordeak, hilerri zaharra konpondu guran "familia osorako gogorapen ahaztezina du-eta ", hilerri zaharra eta berria batzeko lanen plano eta aurrekontua aurkeztu zituen, haren arabera, honakoak egin behar ziren: erdian zegoen soroa erosi, horma zaharraren altuera beheratu, alboko eta erdiko ate bat ireki, eta bide bat eraiki.

XIX. mendearen erdialdean, Leioako egoera hezkuntza aldetik, honela laburbil zitekeen: "Herri honek ez du heziketa publikorako beharrezko lokalik, ezta bere eskolarako maisurik ere, eta eskolaren egoerak irtenbide azkarra eta eraginkorra behar du". 1855ean, egoera hori konpontzearren, Elexaldeko eskolak eraikitzen hasi ziren San Joan elizaren ondoan. 1894an, aldundiak baimena emanda, lanak enkantean atera ziren, eta Pedro de Guenetxea getxoztarrari esleitu zizkioten eskola eraikitzeko, herriko plaza hareaz estaltzeko eta obrarako materiala garraiatzeko zubia Gobela ibaian eraikitzeko lanak 14.500 pezetan. Eta 1898ko uztailaren 28an, Lamiakoko eskolak zabaldu ziren.

Obra horiek udal arkitektoak ikuskatzen zituen, eta lanpostu hori hutsik zegoen. 1896ko irailean Marcelino de Arrupe y Ugartek bilbotarrak eskatu zuen, eta berak bete zuen kargua Gerra Zibila heldu arte.

Udalerriko eta noiz beteko edo noiz itsasoratuko zain lotuta zeuden itsasontzietarako okela hornidura merkeagoa lortzeko xedez, 1886 eta 1887ren bitartean, Udondon hiltegi bat eraikitzea otu zitzaien. 1888an, Osasun Batzordearen baimena lortu zuten, eta 1890ean, itsasondoan -Bilboko itsasadarra, Udondo eta Gobela ibaiak elkartzen ziren eremuan- jabari publikoko lursail bat mugarritu zuten Herri Lanekoek, eta bertan hiltegia eraiki zen. Baina planoak moldatu behar izan ziren, hurreko hipodromoak eta inguruko merkataritza eta industria jarduera gero eta biziagoak hartaraturik. Sarritan konpondu behar izan zuten.

1855ean, Udondon alondegia bat eraikitzeko asmoa izan zuten (Lehenengo karlistaldiaren aurretik egon zen beste bat), baina gero, egokiago iritzita, Malabadena etxea eta bertako hogeitahogeita biko gizalaneko nekazaritza-lurak erosi zizkioten José Ramón de Mentxaka jabeari 1.100 dukatean, bertan hiltegia altxatzeko. XIX. mendearen bukaeran, bulego-gelaren egoera hain tamalgarria zen, ezen oholeztatu egin behar zuten, eta Donato Zarragak, alondegiko arduradunak, eta bere familia ugariak lo egiteko leku duina izan zitzaten, gune zabalago bat prestatu zuten.

Denboraren poderioz eta premia berriak agertzeaz batera, Leioako paisaia izugarri aldatu zen. 1905eko bizilagunen erroldari esker 105 -bertan eraikuntzen izenak eta bertan bizi ziren familia buruenak agertzen ziren-, badakigu elizatean baserriak zirena nagusi, bizilagunentzako hainbat solairutako etxebizitza eraikinen aldean; izan ere, halakoak ziren Lamiako behealdeko eta industrializatu berrikoak, eta bertan etxe berriek Maximo Agirre, Erribera eta Delta bezalako kaleak osatu zituzten.

Udalerraren goiko aldean, baserriak sakabanaturik edo auzune txikietan elkarturik zeuden. Garai horretan, baserrietan familia bat edo batzuk (zazpi ere bai) bizi izaten ziren, eta askotan senideak elkarrengandik hurbil bizi ziren, jatorrizko baserriaren ondoan eraikitako ondoko baserrietan.

Obra berriak egiteaz gain, eraikitako etxeak egoera txukun edukitzen saiatu ziren. 1884an, José Ramón de Aketxe jaunaren legatu bati esker, San Joan elizako kanpandorra konpondu zen, eta testamentu-betearazleek udalari honakoa eskatu zioten: "arretaz zaindu dezala, elizate honen seme ongilearen gogorapenak urteetan irauteko, eta bere jokabide eskuzabala Leioako biztanleengan eredu izan dadin." 1904an San Joaneko ataria erreteilatuta egin zuten, eta San Bartolomeko basilika ere luzitu, hormatu eta erreteilatuta. 1913an, Dioniso Iza Beobide erlojugile sestaoarrak kanpandorreko erlojua konpondu zuen, eta bere lanaren ordainetan 270 pezeta kobratu zuen, "hura konponduta auzoei egiten dien mesedea kontuan izanda".

Sarritan konpondu arren, badirudi erraz bai erraz hondatzen zena. 1915ean, kasurako, berriro aditzera eman zen "San Bartolomeko basilika egoera negargarrian zegoela eta epe laburrean, behintzat, osorik erreteilatuta beharra zegoela". Urtebete geroago, San Joan elizaren kanpandorreko erlojua konpondu zen, eta kanpaiari eusten zioten burdinazko hagak margotu eta xehatu egin ziren.

## **ELIZAREN ERAGINA**

Elizako goi agintariek ahalegin handiak egiten zituzten, erlijio-agiriak ondo sailkaturik eta gordeta egon zitezten, eta ahalegin horretan jardun zuten XIX. mende osoan. 1877an Gasteizko gotzaina, Sebastián Herrero y Espinosa de los Monteros jauna, bisita pastoralean etorri zen Getxo, eta Leioako abadea bertaratzeko eskatu zuen, bataioen liburuak erakutsi ziezaien; bertan, akats eta hutsune batzuk aurkitu zituen, eta haiek artetzeko eskatu. Itxura batez, errieta hura ondo aintzat hartu zuen, ezen 1887an Pedro L. de Castañares artzapezak atzera aztertu zituen parrokiaren liburuak, eta goraiatu egin zituen -XIX. mende goieneko beste bisitetan legez-, "argiak eta garbiak" zirelako. Parrokien liburuak bateratzearen, horiek aurretik, sinodoetan, ezarritako eredu jakin batzuen arabera taxutzen hasi ziren, eta, denboragarrean, inprimategian bertan egiten ziren, eta abadeak hutsuneak betetzea baino ez zuen.

Abadeei sakristauek laguntzen zieten haien eginkizunetan. Horiek elizkizunetan "lan egiteaz gain" (haietariko asko "apartekoak", hala nola, Te Deum meza eta litania loretotarra, bai eta 1906ko apirilaren 14an komentu-meza esan zen San Joan elizan, gotzainak hala aginduta "eskerrak emateko eta, Jaungoikoa bitarte, Erregina Andere Gehiena zoriontasunean erdi zedin"), osterantzeko zereginik ere izaten zuten, elizari lotuak betiere. 1898ko apirilaren 17an, José Ramón de Mendieta y Fullaondo izendatu zuten sakristau, eta erlojuko pisuak altxatu, kanpaia jo eta ehorzte-lanak egiteko, urtean 700 pezetako soldata zeukala. Soldata horren zati bat udalak egiten zuen.

Eliza zerbitzuetako lanpostuen artean, organo-jolearena ere garrantzitsua zen, baina hainbatetan estuasun ekonomikoak izan zituen. 1909ko abuztuaren 28an, Victorio Luzarraga organo eta danbolin joleak, Deustuko ikastetxeko ikasle itsu izanak, udaletxeko gela bat eskatu zuen, ezen, Algorta bizi zenez, Leioan bizi izanez gero hobeto bete ahal izateko zuen lana, baina ezin ordain zezakeen

errentarik, ez eta txikia izanik ere. Urte biz-edo, tira-biraka ibili zen udalarekin, eta azkenean errenta ordaindu egin behar izan zuen. Horrek horrenbesteko kaltea ekarri zion, non 1917ko ekainean, diru eta familia arrazoiak zirela-eta, atzera Algortara joan behar izan zuen, eta hurrengo urtean Anacleto Toñak hartu zuen haren lanpostua. 1920an, azkenik, Juan Barrenetxea<sup>106</sup> presbiteroa hasi zen organo-jole.

1891an, Leon XIII.a Aita Santuak, marxismoa langileengan lortzen ari zen eraginak ikaratuta, Rerum Novarum entziklika idatzi zuen, eta bertan gizarte justiziaren oinarriak eta gaiari buruz Eliza Katolikoak zeukan dotrina ezarri zituen. Orobat, sindikatu katolikoak sortzearen aldeko agertu zen. Horra hor zergatik zegoen Elizatea -handikiak eta elizjendea batik bat-, XX. mendea hasi berritan, hain arduratuta Lamiakoko auzune sortu berri eta populatuko herritarren beharrezko espiritualak betetzeaz, zertarako eta "fedea hondatu eta moteldu guran dabiltzan fedebakokeriari eta erlijioarekiko axolagabekeriari aurre egiteko, eta bihotza apurtu ohi dituzten dongearen pizgarriei aurka egiteko"<sup>107</sup>. Zoilo de Agirre jaunak, San Joaneko parrokoak, 3.000 bat gutun bidali zien herritarrei, herriko enpresei eta Bizkaiko banka eta industriako pertsona gailenei -hala nola, Ramón de la Sotari edo Martínez de las Rivasi-, eliza eraikitzekeo gastuak ordaintzeko dirua batuko zela jakinarazteko. Guztira, 8.977 pezeta batu zen, eta Bizkaiko Aldundiko Ogasun Sailak eraikuntza-laneko gastuen %10eko dirulaguntza eman zuen, 63.000 pezeta hain zuzen. Marcelino de Arrupe udal arkitektoak egin zuen kaperaren proiektua, eta eskola publikoen ondoan eraiki zen, 33.219 pezetan.

Lanek luze jo zuten, zimendatze-lanak padura egin behar izan zirelako, baina, aldea paraturik, Alkateak berehala Gasteiza jo zuen, kapera elizkizunetan erabiltzeko beharrezko baimena lortzearren. Ondoren, erabaki zen udaleko batzorde batek bisita egin behar ziola gotzainari haren Bilboko jauregian. Jende askoren dohaintza eskuzabalei esker, 6 urte igarota, 1907an bedeinkatu eta elizkizunetarako zabaldu zen kapera, uztailaren 13an Santanderretik Bilborako Trenen Konpainiaren Areetako geltokian kapera irekitzeko baimena eman eta kaperaua izendatzen zuen gotzainaren telefonema jasota. Kaperauari 750 pezetako ordainsaria ezarri zitzaion. Eta kapera Enrique de Aguirre y Sobrinosek -Maximo Agirreren oinordeak- dohaintzan emandako lursailetan altxatu zenez gero, San Maximo izena hartu zuen. Ongile eta agintari guztiak inauguraziora gonbidatzea erabaki da, eta "elizkizunaren ondoren, freskagarri edo kopau batera gonbidatzea; gonbitea udal aurrekontuaren bizkar egingo zen, bai eta ospakizuna girotzeko kontrataturiko musika-banda eta danbolin-joleak eta jaieguna goratzeko erositako txapliguak ere"<sup>108</sup>. Egun horretantxe, Bernardo Iza y Alday laguntzaile edo kaperau lanpostuaz jabetu zen, eta goizeko 9etan udalbatza prozesioan atera zen udaletxetik, bandera eta guzti. Ekitaldia horren garrantzitsua izan zen, ezen egunkari guztiek haren berri eman zuten, eta prentsako txatalak gorde egin zituen udalak.

1916an, Lamiakoko Gurtza eta Lan Batzordea eratu zen, eta Lamiakoko hiru lantegietako ordezkari banak osatzen zuen. 1935ean, kaperak parrokia maila bereganatu zuen, eta lehenengo parrokoa Valentín Montejo jauna izan zen. 1946an, Bilboko elizbarrutia sortu zen urtean (Casimiro Morcillo jauna

izan zen bertako lehenengo gotzaina), moldaketa handia egin zen parrokian; Amann-ek egin zuen proiektua eta Clemente Beltrán de Heredia jaun parrokoak sustatu zuen. Urte horietan, Earleren seme bati eskainitako kapera eraiki zen, Bigarren Mundu Gerran aliatuek bonbardatutako ontzi baten hil zela-eta.

Kontu "burokratikoek" landa -elizaren paper-lanak antolatzeaz gain-, elizjendea arduratuta zebilen ume, gazte eta helduen erlijio-heziketaz, nahiz eta 1895ean Ramón Fernández de Piérola y López de Luzuriaga gotzainak zoriondu Leioa herria "Jaungoikoaren berba denek entzuten duten otzantasunagatik".

San Joan elizako parrokoak berak antolatzen zuen katixima, eta Neguriko goi gizarteko andre eta andereñoek ematen zuten. Asko eta asko oraindik gogoan dute 1923tik 1941era parroko jardun zuen Pedro León Etxeandia jaunaren izaera.

Eskoletan eskainitako erlijio-heziketa, katixima, umeen jaun-hartze eta sendotza, sermoiak eta aitortza ez eze, parrokiak kanpoko bestelako bitarteko batzuk era erabiltzen ziren, sinestunen fede eta gogoa sendotzeko edo artean osoa sinestun ez ziren arimak erakartzeko. Besteak beste, zorrozki zelatatzen zituzten herritarrak, eta parrokoek jokabide oneko ziurtagiriak egiten zituzten, edo, bestela, aurkako txostenak. Horrela, 1912ko abuztuan, Salvador Arriola sakristauak honakoa jakinarazi zion alkateari "arrastiko 5 eta erdietan, San Bartolomé landan idi-probak ikusten nengoela, Asensio Fullaondo izeneko herritarrak birau handia esan zuen Jaungoikoaren izen santuaren aurka"<sup>109</sup>; atrebentzia hori dela-eta, segurutik, errieta ederra egingo zioten.

Elizjende sekularrak ere kontrolatu egiten zituen herritarrak. 1910an, "Giltzarrapoaren legea" izenaz ezaguturiko legea sartu zen indarrean, eta haren bidez Canalejas Ministroen Kontseiluko buruak debekatu zuen erlijio-kongregazio berriak ezartzea, Berrezarkuntzaren sasoian ugaldtu ziren-eta, Bilbon eta antzeko hirietan bizi ziren ongile aberatsen laguntza tarteko. Baina debekuak ez uzten eragotzi dagoeneko bazeuden ordenek zabaltzen jarraitzea. Areago, euren misio-lana indartu egin zuten. Gure herriari dagokionez, 1914ko martxoaren 27an, aditzera eman zen arrastiko 5etan helduko zirela fraide misiolariak, San Joan parrokian misio santuari jarraitzeko Ereinotz domeka arte. Misio-lan horrek egundoko garrantzia izan zuen herri euskaldun garbietan, eta, ñorkinak aldraka etorriak zirela-eta, euskararen erabilera gainbehera garbian zegoen Elizateko alderdietara zabaldu zen, alderdi horietan beste arrisku modu bat sortu berria zegoen-eta: sozialismoa. Hortaz, 1915eko martxoan Lamiakoko elizan misioak egin ziren, eta, urte bereko irailaren 19an, Areetan antolaturiko Katixima Jaialdiko ekitaldi batzuk Lamiako auzunean egin ziren, gotzaina bertan zegoela. Hona hemen ekitaldien egitaraua: 9:30ean Mesedeetako plazan batu ziren parte-hartzaileak, eta ordu laurden geroago Santa Ana basilizarantz abiatu ziren, honako hurrenkeraren edura: Udal banda, Areeta, Algorta, Getxo, Berango, Sopela, Plentzia, Gorliz, Leioa, Desertu-Erandio, Loiu, Sondika, Deustu, Burtzeña, Alonsotegi,

Gallarta, Erretuerto eta Sestaoko katixima-taldeak eta agintariak. Bitartean, "Jesús es Rey" [Jesukristo errege] himnoa abestu zuten. Baselizara helduta, idazkunek adierazitako lekua hartu zuen katixima-talde bakoitzak. Bandera eta zutoihalak zeroatzatenek biribil erdi osatu zuten, aldarearen albo banatara, eta meza nagusia esan zen 10:00etan. Bazkaria 12:00etan hasi zen, eta 3:00etan arrosarioari ekin zioten. Arrosarioa amaituta, denak Lamiakoko landara jo zuten, Gobela erreka ertzetik, "En vano Satanás" [Alferrik Satan] eta "Animosos cantemos" [Kanta dezagun gogotsu] himnoak kantuta. 4:15ean honela iragarritakoak egin ziren:

"Jaialdia Lamiakoko landan. Foot-ball partidua, Errekako ertz bietako katixima-taldeen osaturiko selekzio biren artean, Katixima abesturiko andre batzuek opari emandako zilarrezko kopa lortzeko lehian. Gotzain Txit Prestuak talde irabazleari emango dio kopa. Zelaian bertan askaria banatuko da, eta neska-mutil guztiek hurrenkerari jarraitu beharko diote, zorrozki, askaria banatu behar dutenen beharra erraztearren. Amaiera, atzera "Jesús es Rey" himnoa abestuko da, eta katixima-taldeen goizean moduan desfilatuko dute, potinak dauden lekura."

Leioaztarren fedea indartzeko ahalegin guzti horiek batu zuten emaitzarik. Jesusen bihotzaganako debozioa handituz joan zen, eta sarritan haren omenezko elizkizunak antolatzen ziren, hala nola, 1918ko ekainaren 9an antolatu zena, edo osterantzeko ekitaldi batzuk (Jesusen Bihotza udaletxean koroatu zen). Ereinotz domekan (halako egunean Bilbon erosi eta Leioara trenez bidalitako ereinotzak eskuan hartuta ateratzen zen udalbatza prozesioan), Gorpuzti egunean eta batik bat San Joan Bataiatzaile zaindariaren egunean, elizkizun distiratsuak antolatzen ziren oraintsu arte. Bestetzetan, udalerriko mugartetik harako elizkizunetara joaten ziren herritarrak, hala nola Begoñako Andra Mariaren koroatzera (1900ko irailaren 8an), edo 1903an Bilboko santutegira antolaturiko erromesaldia, zeinera leioaztar asko joan zen, udalak tren-bidaia ordainduta. 1926ko urriaren 30eko osoko bilkuran, Bilboko Kale Nagusiaren luzapenean zegoen Jesusen Bihotzaren monumentuari buru emateko, Leioako Udalak "erabaki zuen hainbat diru ematea eta udalbatza inauguraziora joatea". Segurutzat, leioaztar asko ere joan zen neurri horretako ekitaldira.

Eta ospakizun berezi horietan, herritarrei parte hartzeko deia egiten zitzairen. Hala jazo zen, apur bat geroago, 1943 aldera, Carmelo Ballester Gasteizko gotzaina (gogora ekar dezagun 1946a arte ez zela Bilboko elizbarrutirik eratu) Leioara joan zenean, Saturnino Barreiro alkate zela. Halakoetan, herriko agintari guztiek joan behar zuten ezinbestean: alkateak, udalbatzako kide guztiek, gotzaina eta haren laguntzaileek, eliza bietako parrokoek, maisu-maistrek, lege eta ordenaren ordezkariak (militarrek, guardia zibilek, udaltzaingo buruak), Probintziako gobernuko kideak eta familia dirudunenek osatzen zuten segizioa, eta herriko lekuriak nagusiak ibiltzen zituzten.

Parrokoak eta herritarrek hartu-eman estua zeukaten, baina bazegoen arazorik ere. Izan ere, 1907ko maiatzaren 23an, udalbatzak aditzera eman zuen Zoilo de Agirre parrokoaren eta eliztarren arteko hartu-emana motelduta zebilela, eta gotzainari honako kexua agertu zion:

"beti oso gogor gertatzen da kexura jotzea, baina are gogorrago haren egoera dela-eta begirunerik handiena zor zaion pertsona batez badihardugu, baina jadanik hainbeste arrazoi dago, eta hain petralduta daude harremanak (...) eta hain arraroa jokabidea (...), herritar guztiak kexu direnez, ezen herritarren uste duten, herriak gaiari buruz dauzkan askotariko iritziak gorabehera, (...) ezin genezakeela ziurtatu herrian zorionez dagoen erlijio-sentimendu sakona tamalez eta galgarriri motelduko ez denik, egoera bestelakotu ezean"110.

1913an, gotzainak Salvador Arriola kaperaua izendatu zuela-eta, hainbat tira-bira gertatu zen, ezen Ibarra parrokoak Santurtziko kaperau-lanpostu batez jabetu behar zuen.

Apurka-apurka, denbora joan eta joan, ez zen aldaketa handirik gertatu erlijio arloan, harik eta, 50eko hamarkadaren amaieran, Francoren erregimenaren aurkako elizjendearen mugimendua gorpuzten hasi zen artean. Baina fedeari eta politikaz-eta jendaurrean iritzia azaltzeko moduari ez eze, Elizateko eraikuntza gailenei ere eragin zieten ondorengo aldaketek, hala nola, San Joan elizari; izan ere, 1968an nabarmen aldatu eta zabaldu zen, urte bi arinago elizaren zati batzuk eraitsi eta gero.

## **ONGINTZA**

XIX. mendean geroztik, txiroenganako jarrera aldatuz joan zen: gizartean zuten egoera zoritxarreko baina Jainkoak maitea eta gogoaren erabilgarri aldatu egin zen, eta oztopo eta are arrisku bihurtu ei ziren. Betidaniko karitate moduei eraso egin zitzairen: orduan ez zitzaion txiroari lagundu behar, baldin eta haren ezgauzatasunak hartaratua bazuen, eta laguntza jasotzea merezi zuen txiro modua aukeratzeko eskubidea bere gain hartzen zuten; gainera, eskekoei eta kalean amoina emateko ekanduari gogor egiten zitzaion -norberaren eskuzabaltasuna agertzeko modu erraztat jotzen zuten- eta, eta behartsuak erakundeetan batzeko premiaren alde egiten zen, bertan lanaren bertutea ezagut zezaten. Orobat, Estatuaren jardunaren osagarri gisa, karitateko elkarte pribatuak eratzearen aldeko jarrera zegoen; horietan andre boluntarioek -goi mailako eta maila ertainekoek, batik bat- zelako edo halako laguntza material eta morala eskaintzen zuten, eta behartsuen etxeetara sartzen ziren, haiek onbidean jartzeko asmotan. Hala, pobrezia arazoa konpontzeko bideak sekularrak ziren, erlijioak barik, antzina egindakoaz bestera; alabaina, eliza eta komentuetako elizjendearen lana ezinbesteko gertatzen zen oraindino.

Txiro, gaixo, atso-agure, umezurtz eta zoroak haien "mailarekin" bat zetozen erakundeetan -barnetegietan, hobeto esateko- batzen hasi ziren. Harik eta Bermeoko zoroetxea ireki zen arte (1900 aurretik bertan sartutako leioaztarrik ez dugu aurkitu), familiek laguntzen ez zieten buruko gaixo txiroak Valladolideko zoro-ospitalera eroaten ziren. Hala jazo zitzaion José Vicente Atxalandabaso nekazari txiroari: 1869an heldu zen Valladolidera, eta han hil zen, 14 urte geroago, demenzia kronikoak jota, eta segurutik behar zuen laguntza medikorik jasotzeko.

Halakoetan barnetegian sartzea modu bakarra zen senitarteko eta auzoei arazorik sor ez ziezaieten. Hori dela-eta, 1881an Francisco Bilbao nekazariak kexu-eskabidea aurkeztu zuen, haren auzo Pedro Aketxe zorotzat zeukala-eta, ezen "hil bi ingurutik hona, enbarazu egiten du eta mehatxuka ibiltzen da (...), eta hainbat kalte eragin du soroan (...) haren jokatzeko eta berba egiteko modua ikusita, esan daiteke aldikada batzuetan ez dela ezertara bere buruaren jabe; orobat, etxera desorduan etortzen da (...) eta atea jotzen du, aldarrika eta biraoka; orobat, orain 15 egun etxera etorri zen, goizeko hamarretan, aizkora handi bat lepoan zeroala, eta etxeko guztiak hil behar zituelaka" 111.

Zoroetxera sartu ahal izateko, honako agiriok aurkeztu behar ziren udaletxean: eskabidea, bataio-agiria, pobrezia-ziurtagiria, medikuaren ziurtagiri sinatua (bertan epaitu behar zen ea eromena jarauntsitakoa zen, zer aldi zituen, zelan osa zitekeen gaixoa, bai eta emaitzan ere) eta udala bidaiaren erdia ordaintzeko prest zegoela adierazten zuen agiria.

Eskekoei dagokienez, udalak zorrotz kontrolatzen zituen, eta soilik alkateak baimena emanda, eska zezaketen txiroentzako sorospena, baldin eta herrian jaio edo bertan bizi baziren. Miñoiak arduratzen ziren kanpoko eskelak sartzeko ez uzteaz eta agintarien esku uzteaz; gero, agintariak euren herrietara eroaten zituzten; horrek, batzuetan, maltzurkeriarako parada ematen zuen; izan ere, batzuek tren-txartelaren helmuga (probintziaren mugaz bestaldeko lehen geltokia) adierazten zuen txatala urratzen zuten, eta haren ordean kanporatzen zituzten probintziako herri baten izena paratzen zuten, atzera txiroentzako sorospena eta beste tren-txartel bat eskatzeko. Eskekoei datu guztiak txosten batean batzen ziren, eta hiru hilabeterik behin probintziako gobernari bidaltzen zitzaizkion.

Erakundeengatik giza multzo baxtertu horiek zituen xede, baina baita pobrezia larri-larrian zeuden familiei laguntzea ere. Laguntza hori edoskialdiko sorospenen, etxerik etxeko sorospenen edo doako laguntza mediko-farmazeutikoaren bidez bideratzen ziren<sup>112</sup>.

Sasoi hartan, artean, esneak ordezkorik ez zuenez gero, inudeek egiteko guztiz garrantzitsua zeukaten, eta udalak ordaintzen zien (25 pezeta hileko, 1902an), eta are garrantzitsuagoa zen haien lan, familia txiroetako ama alargunak, osasuna edo behar egin beharra dela-eta, titirik ezin eman ziezaietenean seme-alabei. Amak hainbat umez erditzen zenetan, hainbat premiazkoagoak ziren edoskialdiko sorospen horiek. Hala eman zuen aditzera José Arresek, ezen seme-alaba bikien edoskialdirako 4 hilabeteko pentsioa lortu zuen (0,50 pezeta eguneko jasota), eta 1902an pentsioa luzatzeko eskatu zuen, umeak lar txiki izan eta ama bularreko flemoiak jota zegoela-eta. Familia txiroetako inude horiek umei euren etxean eman behar zieten titia, eta hilean behin medikuarenera eroan behar zituzten, azterketa egin ziezaien. Familia dirudunetan, ostera, sarritan "inude freskoak" (titia ematen zutenak) eta "inude idorrak" (umeak jagon besterik egiten ez zutenak) egoten ziren, eta halako zerbitzua izatea gizarte maila jasoaren erakusgarri zen.

Gizartean zeuden aldeak beste egoera batzuetan ere azaleratzen ziren, hala nola, langabezian egon eta seme-alaba asko edukitzeagatik sorospena eskatu behar zenean, baita ere lan istripua izateagatik, gaixotasun luze eta kronikoak edukitzeagatik, oso adindun izateagatik edo familiaren beraren laguntza ez jasoteagatik egin eskatu behar zenean; baina, batik, bat seme-alabak edo ezkontideak gaixotzen zirenean, edo biak batera, nahigabeak egungo ez datoz-eta bakarrik. Ume gaixoez, etenbako arreta ez eze, medikuak aztertzea ere behar izaten zuten, eta hark agintzen zizkion sendagai garesti eta elikadura berezia ezin zezaketen ordaindu etxekeok. Batzuetan, ortopedia-aparatuak erosi behar ziren, edo ebakuntza bat ordaindu; hala, 1904an Manuel Etxebarria Libanoren urte biko alabari ebakuntza egin zioten Santanderren. Bestetuetan, dirulaguntza barik, lanpostu bat eskatzen zen, familia mantendu ahal izateko. Kasurako, 1894an Benigno Ayok udaltzain edo haren herrenak betetzen lagako zion edozein udal zerbitzutako laguntzaile lanpostua eskatu zuen.

Halako eskabideek beti izaten zuten ziurtagiria medikoa erantsita, eta batzuetan egoera benetan lazarriak agertzen zituzten, hala nola, 1905ean Félix Rodríguezek, Artatza auzuneko biztanleak, azaldutakoa: "ez dauka ondasunik eta ez du ezta ogi puska bat bere ere seme-alaba maiteei emateko, eze, etxe horretan denbora gutxi egin duenez gero, ezin izan du batu bere lan neketsuaren emaitzarik. 10 egunik hona gaixo mingarri batek eutsi dio, eta haren egoera penagarria areagotu du; harrezkero, auzo gupidatsuek emanikoa baino ez du ahoratu".

Esanda gauden legez, denboragarrenean, agintariak hartu zuten euren gain ongintzaren zati bat, baina, hala ere, leioaztarren borondate onak lehengoetan jarraitzen zuten. Borondate horrek ordainsaririk ere ekartzen zien, kasurako, 1882an Juan José Basartek eta haren amak 30 pezeta jaso zituzten etxean hartu zuten eskeko gaixo batek eragin zizkien gastuen ordain. Bestetik, leioaztar batzuek diru politikak utzi zizkieten herriko txiro behartsuenei. Hala egin zuen aipatua dugun José Ramón de Aketxe jaunak: 1874an eginiko testamentua 10.000 pezeta utzi zizkien (ez zen gutxi, gero)<sup>113</sup>.

Hainbat egoeratan agerian geratzen zen gizabanakoen elkartasuna: herritarren artean dirua batzen zenean edo gerratetako biktimentzako dohaintzak eskatzen zirenetan (Afrikakoa 1860an eta 1921ean, Melillakoa 1893an, Kuba eta Filipinetakoa 1898an, azken horretan 3 leioaztar borrokatu ziren), edo hondamendi naturalek kaltetutakoentzat dirua eskatzen zenean (hala nola, Manilako lurrikara 1863an, 1879 eta 1887an Espainiako eguzkialdean eta Andaluzian jazo ziren uholde eta lurrikarak edo 1891eko urtarrileko elur-denboralea), edo atentatuek (errege-erreginek ezkontza-egunean jasandakoa) nahi hurreagoko beste ezbehar batzuek ukitutakoentzako dirua batzean (besteak beste, Bermeo, Elantxobe, Mundaka eta Ondarroako arrantza-ontziek hondoratzen zirenean). Minusbaliatuek ere -Deustuko gormutu eta itsuentzako ikastetxeak, zehatzago esateko-, dirulaguntzak jasotzen zituzten, eta haietzako dirua batzeko tonbola edo kermessea antolatzen zen, Bilboko handiki guztiak bertan zirela.

## OSASUNA

XIX. mendea arte ez zen egon gaixoei arreta egiteko berariazko lokalik; hala ere, Leioako Udalak halako osasun-gastuak ordaintzen zituen, eta Osasun Ikuskaritzako Batza eratu zuen. Udalak ordaindutako medikuek, etxerik etxe, bisita egiten zieten gaixoei. Baina izurriteek jotzen zituztenean herritarrak, gehienbat langileak, bitarteko horiek ez ziren nahiko: lar urriak ziren.

Izurrite-agerraldia penintsularen edozein tokitan agertu bezain laster, 1854. urtean kolerarekin gertatu zen bezala, probintziako gobernuak berehala bidaltzen zituen zirkularrak herri guztietara, konponbideak jar zitzaten eta horrela gaixotasuna heda ez zedin.

Beti erne egon beharra zegoen, noizbehinkako agerraldiak izan arren, eta 1885eko udan, Itsasadarraren Eskuinaldeko Osasun Ordezkaritzak bilerarako deia egin zuen:

"Osasun publikoaren alde higiene-neurri zorrotzak hartzea, asiar kolera gaitzaren lehenengo agerraldiak menperatzeko guztiz beharrezkoa ei zen eta, gaitza ez zabaltzeko ."114

Hartutako neurri nagusiak isolamendua (Portugaletoko merkatura joaten ziren leioaztar esne-saltzaileen kexak sortu zituen) eta gaixoen etxeen eta tresneriak desinfektatzea izan ziren, eta horretarako itsasadarreko gabarra batean etxola bat ezarri zen.

1889ko abuztuak 29an, "El Fuerte" izeneko tokian dagoen Gaztelu Etxea alokatu eta ospitale gisa erabiltzea erabaki zen ohiko bileran, badaezpada zoritxarrez izurrite-agerraldi latzen bat gertatuko bazen.

Lau etxebizitzako eraikin hau Antonio Barrenetxearena zen, eta baldintza guztiak betetzen zituen: oso zabala zen eta herri-gunetik urrun zegoen, eta urrun egote hori, gaitza hasieratik menperatzeko bide eragingarrieneraiko bat izan zen.

1890 eta 1900 bitartean, Aldundiak, gaixo kutsagarriak ohe beharrean zegoen Bilboko Ospitale Zibilera ez eramatea eta beraien etxeetan zaintzea, ezarri zuen.

Aipatzekoa da, 1893an Leioan berriz hedatu zela kolera, 1895ean ezkabia eta 1898an elgorria.

Kolerak ez harrapatzeko, itsasadarrean bainurik hartzea, arropak eta tresnak garbitzea eta ura edatea debekatu zen.

Gomendatu zuten kare kloruro, sublimatu korrosiboa eta kobre sulfatoa erabiltzea desinfektagarri gisa, gaixoak leku isolatu baten izatea, toki publiko, ibai, putzu, iturri, komun eta estolderien garbitasuna gehiago zaintzea, padurak lehortzea, ur kalitatearen analisiak egitea eta kontsumo-gaien salmenta behatzea.

Behin gaitzak kutsatuta, arroz zopa, esne, okela, arrautza, eta arrain zuri egosietan, madari eta sagar erre edo egosietan, mahaiko ardo, latseko ur egosi eta Rueda edo Jerezko ardo zurietan oinarritutako dieta berezia egin behar zen.

Garrantzitsua zen artilezko arropak janzteia, eta sabela eta gorputz-adarrak bero edukitzea. Gogo aldarteari dagokionez, "lasai egon behar du, edozein gehiegikeri sentsual eta sabelkeria saihestuz, loaldi atsedengarri eta lasaiak eginez, horrek lagunduko diolako".

Ondoeza sintoma txikiena agertzerakoan, osagileari deitu behar zitzaion eta horrek arroz egosiko aiuta ezartzen zion, gaixoari eta hamabi laudano-tanta gehitzen zitzaizkion hogeitun urtetik gorakoa bazen.

Bismuto subnitratoa eta Syderhameko laudanoa urarekin nahastuta hartzea, te infusioak absenta, koñak edo pattarrarekin edatea eta izerdia botatzeko igurtzi lehorrak hartzea, gomendatzen ziren.

Higienea zen araua, eta, hortaz, "aldeztatik kare kloruroz edo kobre sulfatoz desinfektatutako lekuetan libratu edo sabela hustuko da, eta izurriterik egonez gero, estolderia orokorrarekin loturarik ez duten ontzi berezietan egingo dira."

Inor hilez gero, zendutakoaren etxea desinfektatu egin beharko zen, bere arropak eta tresnak kiskali, eta hilotza berehala eraman hilerrira, bere izaran bilduta, desinfektagarrian bustitako zerrautsez inguratuta eta barrutik bikeztatutako kutxa batean sartuta. Jakina, hileta-elizkizunak gorpua bertan ez zela egingo ziren.

Leioak ospitale txiki bat zuen, eta bertako zaindaria Lucas Bilbao zen. Hortaz, 1900. urtean José Dalmaso, hogeita bost urteko italiarra eta Beirate-lantegiko langilea, nafarrerian gaitzak jo zuenean eta hara ospitaleratu zuten (elizatean, 1897ren bukaeratik 1903ren erdialde arte hedatu zen gaitza). Elikadura egokiari eta osagilearen bisita ugarietarako, hamabost egun baino gutxiagotan alta hartu zuen.

Ospitalean egon zen bitartean, txahalkia, esnea, azukre-kozkorra, isatsa, garagarra, Jerezko ardoa, opila, barbantzuak eta fideoak jan zituen, eta egunak pasatu ahala dieta oparoagoa eman zioten. 1903ko udaberrian izan zen nafarrerian agerraldi latza zela eta ondorioz ospitaleratu zituzten gaixoei tratamendu bera ezarri zieten, eta kutsadurei aurre egiteko, txertaketa-kanpaina antolatu zuten. Baina gaixoak gero eta gehiago ziren, eta alboko etxe bat hartu behar izan zen, gaixoak bertan isolatzeko, eta Fausto Aldamak Udalarik utzitako galdara, gaixoen arropa garbitzeko erabiltzen zena, alokatzea edo erostea erabaki zen.

1905ean Osasun Udal Batzordeak osasun ikuskapen bat egin zuen Lamiako auzoan izurriteak han zabal-zabal ibiltzen ziren, eta egoera tamalgarria hori zuzentzeko zaborra biltzeko zerbitzu finkoa sortu zuen (zaborra leihotik behera bota beharrian, kutxetan ipini eta udal zabor biltzaileari ematen zitzaizkion) eta konketak kare kloruro eta urarekin astean behin, bi hilabetez, desinfektatu beharra ezarri zuen.

Gainera, Fernando Bravo jauna, Casa Alta-ren errentatzailea, eta Martin Atxalandabaso jauna, kale bereko beste etxe baten jabea behartu zituzten, hogeit hamar eguneko epean, "etxe horietan hidraulikaz eta adreiluz librakinetarako (beharrezko) biltegiak, egoera higieniko egokian eraikitzea eta biltegiek baldosa edo burdinazko xaflez hermetikoki itxita egon behar zuten, gauzez egiaztatuko zen garbiak dauden, eta haien edukia itsasadarrera edo bizigune orotik urrun isuriko da."

Beste bizilagun askok putzu beltzerainoko hodiariak estali egin behar zituzten, eta erabat debekatu zen biltegi horien edukia baratzak ongarrizko erabiltzea.

1918ko urriaren bukaeran gripe izurrite latz bat hedatu zen. Berehala bizilagunen arteko elkartasuna lanean hasi zen, eta gaixoen familientzako dirua biltzeko harpidetzak irekitzeaz gain, alkatetzak ukitutako familien artean berrehun litro esne baino gehiago banatu zituen. Leioan gripeak hildako asko eragin zituen gero, boluntario aurkeztu ziren ohatila-eroaleak galtzak bete lan ibili ziren hilotzak hilerrira eramateko.

1919an futbol partidua jokatu zen Lamiakon izurriteak kaltetutako alde eta bildutako 113 pezetak Udalari eman zizkion Athleticeko jokalariei leioaztarra, Sabino Bilbaok.

Gero eta argiago zegoen udal osasun-etxea sortu beharra zegoela, higiene-neurririk eta laguntza medikorik ez zegoela eta sarritan biztanleak sarraskitzen zituzten izurriteei aurre egiteko.

Horrela, 1921eko otsailaren 19ko ohiko bileran, gaixo epidemikoentzako ospitalea eraikitzea proposatu zen. Ondoren, 9.000 pezetako aurrekontua aurkeztu zen proiektua garatzeko, eta prezio horretan hondeaketa, aurretiko bista eta zimenduen harri-hormak, atalaseko harlanduzko lauza, trenkadak, sabaizuna, baldosak, sukalde osoa, Moruras putzua, estaldura, solibilak, habetzanak, oholeztaketa, barruko ateak, ate eta leihoen muntaia, zokaloak, teilatu-hodia, bandeletak, eta zink eta komunaren jaistek

## **UMEAK ETA HEZKUNTZA: ESKOLA**

### **Atarikoa**

Estatu liberalak onartzen zuen zenbait zerbitzu eskaini behar zizkiela herritarrei, eta horietarik garrantzitsuena hezkuntza zen. Cadizko gorteetatik aurrera, hezkuntza estatuaren ardura bihurtu zen. Cadizko Konstituzioak ezartzen zuen herri orok lehen mailako eskola eduki behar zuela, eta XIX. mendean eginiko lege eta hezkuntza-planetan oinarri horri eutsi zitzaion: 1821, 1836 eta 1845eko

planetan. 1857an, Hezkuntza publikoaren sistemak behin betiko antolaera ezarri zuen azkenean, Moyano legearen bidez, eta mende bete baino gehiago egon zen indarrean. Lege horren arabera, bederatzi urte bitarteko umeek derrigor jaso behar zuten lehen hezkuntza, eta, gainera, doan ordaintzerik ez bazeukaten. Eskola udalerriek finantzatu behar zuten, eta ez Madrilgo gobernuak, baina hark programak eta erabili beharreko liburuak ezartzen zituen. XX. mendearen hasiera arte, aurrekontuek hezkuntzari ematen zioten dirua urri bai urria zen, baina 1900an Hezkuntza Ministerioa sortu zen, eta irakasleak funtzionario bihurtu ziren -ordura arte udal langileak ziren-, eta, hala, hezkuntzarekiko interesa handitu egin zen

### **Leioako eskolak**

1855az geroztik, bazegoen eskola bat Elexalden, José Antonio de Ondiz jaunaren fundazioari esker sortua eta Patronatu Batzak gobernatua. Batza honakoek osatzen zuten: abadeak, alkateak, eta hezkuntza publikoaren tokiko nahiz probintziako batzetako kideak. 1871eko ekainean, Ondizek berak eta José Ramón de Aketxe y Agirremota jaunak hala eskatuta, Ondiz-Aketxe Fundazioaren patronatua eratu zen, umeek doako irakaskuntza jaso ahal izan zezaten. Handik gutxira, neska-mutilen eskola eta maisu-maistren gelak jasoko zituen etxe berria eraiki zen, José Ramón de Aresti jauna lanen zuzendari zela. Etxea eraikita, Udalak finantzatzen zuen lehengo eskola kendu egin zen.

1895ean, Pantaleón Aresti alkate zela, Lamiakoko eskola zabaldu zen. "Leioako San Joaneko sexu bietako gazteen irakaskuntza publikoa hobetzeko" Juan José Libano jaunak, Mexiko hirian bizi zen leioaztarrak, testamentuan utzitako 5.000 pesoei esker sortu eta finantzatu zen eskola. Lanak Pedro Basterra arkitektoak zuzendu zituen, eta 1894an Eduardo Coste y Agirre jaunak udalari utzitako 1.000 bat m<sup>2</sup>-ko lursail batean altxatu zen. 1903an, Libano-Ondiz Fundazioa eratu zen urtean (1906ko maiatzaren 12ko Errege Aginduak hura onetsita), umeen eskolaren lokalak honako ezaugarriak zituen: 9 x 3 metrokoa eta 3 metro gora zen, eta 54 m<sup>2</sup>-ko azalera eta 162 m<sup>3</sup>-ko bolumena zeuzkan; lau leihok ipar-ekialdera ematen zuten, eta hiruk hego-ekialdera; leku erosoan zegoen kokatua, eta 60 ume baino gehiago har zitzakeen. Baina eskola hori laster txikiegi gertatu zen, eta urte bakan batzuk geroago, udalak honako eskabide bana bidali zien Irakaskuntza Publikoko eta Arte Ederretako Ministerioari eta Coste y Agirre jaunei:

"(...) udalbatza honek, atzera ere, lotsaturik eta astuna izatearen beldurrez, zuengana jotzen du, zeuen jabarietan egin gura izan diren lan publikoetarako behar beste lur, aldarte onean eta herriaren mesedean, eskuzabaltasun handiz eta gogo biziz, laga duzuenongana"<sup>115</sup>.

Biztanle kopuruak gora egiten zuen, eta eskola gehiago eskatzen ziren beste auzune batzuetan. 1928an, Altamiran neska-mutilentzako eskola berehalakoan sortzeko errege agindua jaso zuen udalak, eta horretarako lokalak egokitu ziren.

## **Eskolaratzea**

6 urteko umeak derrigor eskolara joan zitezten gobernuak lan ehoak egin arren, garai hartan, lanean hainbat lasterren hastea zen funtsezkoena, etxean diru gehiago jasotzeko, eta guraso guztiak ez ziren konturatzen zein garrantzitsua zen haien seme-alabek heziketa egokia jasotzea, eta batik bat zelako edo halako jarraitasunez. 1902an Lamiakoko maisu-maistrek aurkezturiko kexu-idazkian argiro azaltzen da egoera hori: "denbora guzti honetan sumatu dugu neska-mutilek askotan huts egiten diotela eskola hauei"<sup>116</sup>. Umeek sasieskolarik egin zezaten, honako erabakia hartu zen: ikasleak 15 egun baino gehiago, jarraian, egiten bazituen eskolara joan barik, zentzuzko arrazoirik gabe, zerrendetatik kenduko zela, eta, atzera hara itzultzekotan, udalaren baimen argia beharko zuela. Itxura batez, guraso askok ezin har zezaketen seme-alaben kargurik, lanera joan behar zutelako, eta nahitaezko adina bete barik bidaltzen zituzten eskolara; hori dela-eta, erabaki zen bataio-agiria eskatuko zela, izena ematen zihoazenean. Agiri hori aurkezteaz landa, gurasoek umea Leioako eskoletan inskribatu gura zituztenean, udalari gutuna bidali behar zioten, eta txertoen egiaztagiria aurkeztu. XX. mendearen hasieran, atzerritar franko etorri zen, Lamiakoko lantegietara behar egiten, eta, haiek, ondoren, euren senitartekoak ekarri zituztenez gero, umeak eskolan sartzeko eskatzen zuten, agintariek ezarritako adina betetakoan. Horrela, italiar eta frantses abizeneko neska-mutilez bete ziren ikasgelak: Bellandi, Enriog, Rapp, Criner, Stoquart, Bougamont..., bai eta hango izenekoez ere, hala nola, Edilio, Francesca, Renato, Clodovea, Claudio, Amable, Néstor, Ida, Marie Felicie, Walter Emile Henri eta Joseph Claude. Izen-abizen horiek laster gaztelaniara ekarri baziren ere, benetan arrotz ematen zuten, betiko Serapio, Manuel, Eufrosia, Simón, José, Felipe, eta abarren aldean. Ume batzuk zerrendetatik kendu ziren, eskolara ez joateagatik, eta haien gurasoek gutuna bidali zioten udalari umea zer dela-eta ez zen joan azaltzeko; batzuetan, mamizko arrazoiak zeuden, hala nola, ama gaixotu eta, orduan, umeak gainontzeko nebarreba txikien kargu hartu behar zuelako, baina gutun gehienek honako esaldi laburra izaten zuten "gogoz besteko arrazoiak tarteko".

## **Ikasgelen eta bertan erabilitako materialaren ezaugarriak**

Eskoletan egiten ziren inbentarioei esker<sup>117</sup> dakigu, gaur egun, zelakoak ziren ikasgelak eta zer ikasmaterial erabiltzen zen, bai eta zein bestelakoak ziren neskentzako eta mutilentzako irakaskuntza XIX. mendearen amaieratik XX. mendearen lehenengo laurdena arte.

Nesken zein mutilen eskolek gurutzea eta sortzaileen nahiz ongileen erretratuak edukitzen zituzten buru, erresel moduko baten azpian. Orobat, hormetan garaian gariko errege-erreginen erretratuak zeuden dingilizka. Badakigu 1903an Alfontso XIII.aren irudia erosi zela, 25 pezetan, eta artean ez zutela jarri, markorik ez zeukalako. Erretratu horiekin batera, ohorezko zerrendak, egutegiak, Andra Mariaren Jasokundearen irudi bat, eskolara sartzean eta ateratzean errezatu behar ziren otoitzak gogora ekartzen zituzten lamina batzuk, "Isilik" eta "Zintzotasuna eta denbora eta lana ondo banatu" goiburuekiko beste batzuk, eta hainbat taula ezkoztatu, arbel eta arbeltxo, horien gainean klarionaz idaztekoak. Maisu-

maistrek, ostera, idazmahai bat, besaulki bat, aulki batzuk, brontzezko eskribania bat, denbora neurtzeko erloju bat eta ikasleei isilarazteko txilin bat zeuzkaten.

Maisuaren aurrean ikasleak esertzen ziren, egurrezko mahai luzeei loturiko jarleku jarrietan, mahaietan idazteko eredu eta tintontziak zeuzkatela. Nesken ikasgelan, maistrak bazeuzkan konketa, ur-txarro bat, josteko mahaitxo bat eta aulkitxo bat, eta josteko gauzak gordetzeko.

Ikasgelatik kanpo, bazegoen sarrera bat umeei txanoak eta berokiak utz zitzaten pertxetan. Ikasgelak ginarrak garbitzen ziren, eta perradez taulada hareaztatzen zen; ikasleek eurek egiten zituzten, sarritan, egiteko horiek. 1904an, argindarra instalatu zen eskolan, hiru bonbilla, eta beste horrenbeste tulipa, hain zuzen. 1916an, Elexaldeko haurtzaindegiko maistrak, Cornelia Sarria y Goyenaga andreak, gogoratzen zuen zelan hainbat urtetako leioaztarrek eskatzen zuten eliz dorreko erlojua konpontzeko, "denbora eta lana ondo banatzeko beharrezkoa da-eta". Eliza horren hur zegoenez, nahiko izaten zen leihotik begiratzea erlojua ikusteko edo orduak adierazten zituzten kanpai-hotsak entzuteko; izan ere, jendeak eskuturreko erlojua erabili baino arinago, huraxe izaten zen kontuan.

### **Maisu-maistren eginkizunak**

Elexaldeko eskola berriak sortu zirenez geroztik, maisu-maistra lanpostua lehiaketa bidez esleituko zela ebatzi zen. Honako betekizunak ezinbestekoak ziren lanpostua lortzeko: maisuek goi mailako titulua eduki, eta maistrek oinarrizko mailakoa. Fundazioak berak maisu-maistrei ordaintzeko asmoa erabili zuten, baina ez zegoen behar beste dirurik, eta José Ramón de Aketxe jaunak 65.000 erreal eskaini zituen bere patrikatik. 1915ean, fundazioko patronatuaren buruak dirulaguntza eskatu zion udalari, lehen mailako hezkuntzarako, eta hark urteko aurrekontuan partida bat gorde zuen, Aldundiak maisu-maistren ordainsarietarako ematen zuenaren zati bat udalak berak egiteko. Baina dirudienez, ez zuen beti gogo onez egin; are, batzuetan, uko egin zion ordaintzeari, eta horrek liskar batzuk sorrarazi zituen 1904an. Gainontzeko eskoletan ere antzera ibiltzen ziren. Denboragarrenean, gauetan nagusientzako eskolak ematen hasi ziren. Urte batzuetan, enpresa nagusiek -besteak beste, Earlek- diru handiak eman zituzten, irakaskuntzako gastuak ordaintzeko.

Batzuetan, maisuek soldata igotzeko eta haien maila aintzat hartzeko eskatu zuten, Adrián Bolinaga jaunak, Elexaldeko haurtzaindegiko maisuak, kasurako. Izan ere, hark, 40 urtean soldata bera jasota, 1917an soldata igotzeko eskatu zuen, ondo arrazoiturik, ezen ikasle gero eta gehiago zegoenez lana ere handiagoa zen.

Ingeles astea ezarri arte, 6 lanegun zegoen astean, eta eguena baina ez zen jai. Irakasle bakoitzak hain urtetako umeen kargua zeukan. Maisu-maistra batzuk, urte askoan jendearen gogoan eginikoak, leioaztarrak ziren, baina gehienak kanpotik zetozen, besteak beste, Bilbotik. Normalean, umeei eta helduei oso maitea zituzten maisu-maistrak, miretsi ere egiten zituzten, eta jarraitu beharreko eredu

izaten zen, batik bat moralean eta erlijio-jardunean. Eskola baino arinago, ez zen arraroa egunero meza entzutea.

Beste maisu-maistra batzuek, eskolak emateaz gain, kulturari lotutako beste egiteko batzuetan jardun zuten. 1908an, María Carmen Quincoces y Díaz de Tuesta andreak, Lamiakoko neskontzako eskola publikoko maistrak, "Hechos históricos más notables de la Anteglesia de Lejona" [Leioako elizateko jazoera gogoangarrienak] izeneko liburuxka idatzi zuen, eta udalari eskaini zion. Udalak, bere aldetik, abuztuaren 29ko bilkuran "erabaki zuen liburuan behar besteko estimutan hartzea, eta, hala, egileari bere esker on zintzoro adieraztea, udala gogoan edukiagatik, eta urtero aparteko ordainsari bat ematea bere egiteko egokiaren ordain eta irakaskuntzari, maistra gisa, eman izan dizkion zerbitzuen pagu; orobat, aipatu liburuxkako 200 ale inprimatzea xedatu zen, auzoen artean banatzeko".

Liburuan, alegia, Leioako historia gai bakartzat zeukan lehenengo argitalpenean, zehatz eta argi azaltzen da zer den elizate bat eta Leioaren etimologia nondik datorren, eta gurtza, gerrateak, ohitura, jai, Leioako herritar eta ordura arte jazorik aldaketa nagusiei buruzko datuak, herriaren alderdi horiek idatzian jasotzeko eta herritarrei aditzera emateko.

### **Hezkuntza sistema eta irakasgaiak**

Maisu-maistrek hainbat koaderno zituzten: bat izena emandakoak jasotzeko, beste bat eskolara zihoazenetz jasotzeko, beste bat kalifikazioetarako, ikuskatzaileentzako liburua, eta urteko zereginak biltzen zituen almanaka.

Irakasgaiari eta erabilitako didaktika-materialari dagokionez, lehenengo egitekoa irakurtzen eta idazten ikastea zen. Irakurtzen ikasteko, letra larri eta xeheko abezeak eta silaba-zerrendak erabiltzen ziren. Ikasteko metodorik erabiliena Garcíaren berba-zerrendak, eta honako liburuak ziren normalean irakurtzen zirenak: Escuderoren ume-ipuinak, Serranoren olerkiak, Pilar Pascual andrearen "Frasas y cuentos", "La Juanita" eta "Trovador de la niñez" liburutxoak, Callejaren "Trozos literarios", Terradilasen "Páginas de la infancia", eta Flórezzen afixa bilduma. Errege Akademiaren Gramatika ere gogotik ikasten zen, eta 1903an Gaztelera Hiztegia erosi egin zen. Kaligrafiarako hainbat motatako paperak erabiltzen ziren. Paper laukiduna erabiltzen hasi baino arinago, marrak egiten ziren arkatzez, letrak okerturik atera ez zitezen, eta "Corona" etxeko altzairuzko lumez idazten zen (kirten gorria zeukaten, eta puntu batzuk ingeles letretarako), eta portzelanazko tintontzietan busti egiten zen. Tinta hautsez eginda zegoen, eta kristalezko botiletan gordetzen zen.

Liberalak herrialdea bateratzen ahalegindu ziren, hizkuntza eta administrazioaren bitartez, herrialde hartan txokokerien arazoa eta dialektoen nahiz gaztelaniaz besteko hizkuntzak bizi-bizirik zeuden eta. Eskolek programa horren eragile nagusi izan behar zuten. Hezkuntza plan eta lege guztiek hartzen zuten hizkuntza ikasketen zati funtsezkotzat, eta hizkuntza hori gaztelania zen; hortaz, euskara argiro

baztertu zuten, baina hark bere bizitasunari eutsi zion XX. mendeko lehenengo urteetan, batik bat abertzaletasunaren erakartzeko bide bihurtu zenean.

Ikasturteak igaro ahala, gero eta irakasgai gehiago zegoen, eta gero eta zailagoak ziren. Eragiketa nagusiak ikasteko, kontatzeko taulak edo abakoak eta taulak zituzten afixak erabiltzen ziren; afixa batean irakur zitekeen zein ziren erabilitako pisuak eta luzera neurriak, eta haien baliokideak, eta hori guztiori biribiltzeko Gaviriaren "Aritmética" liburua eta Sáenz-en problema bilduma erabiltzen ziren. Geografia ikasteak ere egundoko garrantzia zeukan, eta, horretarako, Bizkaia, Espainia eta Europako mapak erabiltzen ziren, bai biribilkietan -irakasleak zabalitzen zituen, makila batez lekuak eta akzidente geografikoak erakusteko-, bai umeek eurek osatzen zituzten buruhausgarrietan.

Hezkuntza sistemaren beste ardatz bat Bibliaren historia zen, eta eskola horietarako ere hainbat material zegoen: Rosado eta Palucie-ren afixa eta laminak, Pirala-ren Urrezko liburua, Sor Isabel izeneko lekiamen baten Ama Birjinaren liburua, Asteteren Katixima eta Rojasen Bibliaren historia liburua, guztiak erdaraz. Ikasgela guztietan bazegoen erlijio-goiburu lamina bilduma bat eta hainbat liburu, hala nola, Molineroren Irakasteko elkarrizketak eta Caballeroren Betebeharren liburua. Erlijioaren aurkako irainak zorrotz zigortzen ziren.

Bilboko liburu-denda, inprimategi eta koadernatze-lantegi nagusiek -kasurako, XIX. mendearen amaieran Segundo Salvadorrek Santiago plazan zeukanak- beharrezko guztiez hornitzen zituzten Leioako eskolak. Irakasleek eurek eskatzen zuten behar zuten oro, eta, gero, udalari aurkezten zioten faktura. 1903an, Bizkaiko Aldundiak hala aginduta, eskola-materilean gastatzen zenaren laurden bat ordaintzeari utzi zion, eta harrezkero seiren bat baino ez zuen egiten.

1915ean, Juan Fernándezek, lehendik Balmaseda, Burgos, Valladolid eta Gasteizen irakasle izan eta orduan Leioan behin-behineko irakasle zenak, Irakaskuntzaren egoera orokorrari buruzko txostena idatzi zuen, eta bertan, haren ustez, hezkuntza sistema onaren arauak batu zituen, laburrean:

"Ordena ezartzea ezinbestekoa litzateke, diziplinaren oinarri da eta; baina ez da halakorik lortuko, harik eta maisu-maistrei eskumen zabala ematen ez zaien artean, egunerokoan umeekin jarduteko (...)

Umeek, eskolara sartzean eta maisua edo maistra agurtu ondoren, beren lekuan eseri behar dute, eta, gero, haien higiena ikuskatu; denak belauniko jarrita sarrera-otoitza egin eta eguneko eskola-abestia kantatu behar dute (...)

Sailak ikasleen jakituria eta adinaren arabera antolatu behar dira, haien adimen-garapena kontuan izanda (...)

Ahozko irakaskuntza egokia da, baina hanka-motz gertatzen da irakaskuntza objektiborik ezean; maisu onak baliabide guztiak erabiltzen ditu. Ikustea eta begiratzea ez dira nahiko, eta maisu zintzoak etengabe gogora ekarri behar dizkigu lezioak: horra ikasteko liburua; baina ez dago halakorik; oroimenaren lezio-biltegian izan behar da uste osoa; badaude lehen mailako irakasgai guztiak batzen

dituzten liburuak, hiru maila onetan banatuta, laburrak eta definizio ulerterrazekoak (...) kasurako, Juan Ruiz Romero jaunak, Bartzelonako maisuak, idatzitakoa" (...)

Idazmenean ingeles letra motako metodoak erabiliko nituzke (...), eta eguen eta zapatuetan apaintzeko letra motak, gotikoa eta biribila, irakatsiko nituzke.

Gramatikari dagokionez, aditzak haren funtsa direnez gero, aditzak osoro jokatu beharko dituzte, kantuan legez, eta lerro bat edo esaldi bat aztertu (...)

Taulak aritmetikaren giltzarri direnez gero, ume guztiek ahoz gora esan beharko dituzte batuketak eta biderketak, eta 2. eta 3. mailakoek egunero lau eragiketetakoak esan, jarraian edo tartekaturik. Halaber, koadernotxo bat eduki beharko dute, problemak idazteko, eta nagusiek beste bat ere beharko dute, diktaketak egiteko; neurri zaharrak bazter utzi beharko dira, sistema metrikoari traba egin eta maisu-maistren ohorea apaltzen dutelako (...)

Ondo irakurtzeko, argi, zuzen eta behartu gabe egin irakurri behar da; batik batik azken hori da ezaugarri gorena (...)

Proporzioak eta oinarriko proporzio-arauak 3. mailako aurreratuenei irakatsi ahalko zaizkie

Lanbide apalenetan erabil daitezkeen marrazketa geometrikoko jakintzagai batzuk landu beharko dira (...)

Kristau ikasbidean, maisuak kontu handiz ikasgaraziko die ikasleei katiximaren testua oso-osorik, jarrera heretikoetara lerra ez daitezen (...)

Arauzko azken irakasgaiak, Bibliaren eta Espainiaren historia, batera irakats daitezke.

Eguen eta zapatuetan, hezkuntza moraleko arau bat irakurriko da, eta azken egunean, arrastiz, arrosario santua errezatuko".

Gerra Zibila hasi zen urte berean, Madrilgo Magisterio Español argitaletxeak eta Espasa Calpek oso irakas-material berri eta ordura arte ia ezezagunaz hornitu zuten eskola: arkatzak zorrozteko makina bat, txintxetak, paperei eusteko bat, ebakitzeko soslai beltz eta koloretakoak -itsasteko kolatuak-, artaziak, kartoi mehe zuria, tinta-tutuak, arkatzak eta koloretako "Faber" margoak, karpetak, forruak, eskulanak muntatu eta itsasteko "Sindetikon" tutuak, borragomak, arbelak garbitzeko eskuilak, marrazki-ereduak, arbel apurtezinak, eta abar.

Berriak berri, azaldutako 1915eko hezkuntza sistema, alegia, ordena eta diziplina, otoitzak eta abestiak, higiene ikuskapenak eta Enciclopedia duntsua buruz ikasi eta ahoz gora esan beharra, bere horretan egon zen urte askoan, ia ezelako aldaketa barik, eta oraindino ere gure gurasoek ondo gogoan dituzte horiek guztiak.

### **Mutilak mutilekin eta neskek neskekin**

Mutilak eta neskek eskola berean, eraikuntza berean, egon arren, ikasgelak bereiztuta zeuden. Mutilek maisuak zituzten, eta neskek maistrak. Bestetik, eta inbentarioetako materialak ikusita, esan dezakegu mutilentzako irakaskuntzak baliabide gehiago zituela eta teknikoagoa zela. Horrela, ikasgeletan

honakoak zituzten mutilek: egurrezko konpas bat, zirkuluerdi bat, graduatzaile bat, kaobazko metro bat eta dekametro biribildu edo neurketa-zinta bat, termometro bat, baskula bat pisuak eta guzti, neurri metriko-hamartarren bilduma bat eta solido edo poliedro kutxa bat. Horiezaz gain, Palucie-k eta Cantalucella-k eginiko mapa bilduma handi bat, lur-globo bat eta natura-historiako horma-irudi bilduma bat (batik bat, ugaztunei buruzkoa) ere bazituzten.

Neskei josten eta brodatzen irakasten zieten, ikasteko aukera gutxiago zeukaten-eta, batik bat gizarte maila apalekoak baziren. Eta haien ikasgeletan, beraz, bastidore batzuk zeuden, bai eta oihalak, titareak, orratzak eta beharrezko beste zenbait material ere. 1899an Singer sistemako josteko makina bat erosi zen, "etxekoa" izenekoa. Makinak brodatzeko hizkidun albumak zituen.

Emakumeak ezkondu eta ama nahiz emazte ona izatea xede bakar izan behar zuelako ideia oso barneratuta zegoen, are emakumeen egoera hobetzearen aldeko ziren aurrerakoien artean. Emakumeei onartzen zitzaaien jarduera publiko bakarra karitate-ekintzena zen. Hori dela-eta, hezkuntzak oinarrizko jakintzagai batzuk barnera zezatela zuen helburu, baina, batez ere, etxeko andre eta ama onak izan zitezela. Izan ere, "Madre de familia" [Ama] zen irakurtzen zituzten liburuetariko bat. "Andereño agurgarrientzako" hezkuntza eta jokabide gidaliburu askok behin eta berriro esaten zuten etxeko lanetan trebe izatea, jendaurrean egokiro agertzen jakitea eta, bereziki, apaltasuna zirela hezkuntzaren oinarri nagusiak.

XIX. mendearen erdialdean, neska bakoitzeko 4 mutil ari ziren estatuko eskoletan, eta 1930an, oster, ia ez zegoen alderik generoen artean<sup>118</sup>. Hala eta guztiz ere, lehen mailatik gorako ikasketetan, aldeek euren horretan jarraitu zuten, eta, urte handitan, emakumeek aukera asko itxita izan zituzten. Aipatzekoa da lehen mailatik gorako ikasketak egin zituzten emakume gehienek Maisutza<sup>119</sup>, Letrak edo Farmazia ikasten zuten. 1858an, maisuak prestatzeko Espainiako lehenengo eskola sortu zen, eta 1900an bazeuden lehen mailako 12.000 maistra. Gainera, hezkuntza sistema ofizialetik kanpo, emakume askok akademiak ireki zituzten. Eskola partikular horiek eskolan jasotako heziketaren osagarri ziren. 30ko hamarkadan, Laura maistrak eta haren ahizpa Maritxuk -lekaimeia zen- ematen zituzten halako eskolak eliza aldean eta Tellerian.

### **Azterketak eta sariak**

Aldian behin, Bizkaiko Lehen Mailako Hezkuntzako Batzorde Nagusiak eskolak ikuskatzen zituen, ondo zebiltzala egiaztatzeko eta aparteko azterketak antolatzeko, ikasle onenak diplomez saritzeko<sup>120</sup>. 1894ko Errege egunaren biharamunean, Lamiakoko eskolara azterketak egiten joan zen ikuskatzailea oso pozik agertu zen ikasleen jakituriarekin, auzunea nahiko hondatuta zegoen arren. Azterketak eginda eta emaitzak ikusita, sariak banatzen ziren Lamiakoko eta Elexaldeko eskoletan. 1901eko uztailan, Patronatuko Batzaren buruak, José Ramón de Aketxe jaunak, Leioako Juan José Líbano Sangroniz, Eusebia Aresti Basáñez, eta Pantaleón Amézaga Santamarina umei eta Bilboko Isabel Bravo Escuza

umeari banatu egin zizkien sariak. Ume horiek 11 eta 13 urte bitartekoak ziren, eta Diego Quincoces jaunak, Serapia Ubago andreak, Claudio Icaza jaunak eta Carmen Quincoces andreak Elexalden gobernatzen zituzten geletako ikasleak ziren, hurrenez hurren.

### **Eskolako jaiegunak**

Urriaren 1ean, Maisu-maistren jaia ospatzen zen. Egun horren karira, 1926an iragarki-afixak paratu ziren Delta eta Maximo Agirre kaleetan eta Udondo eta Elexalde auzuneetan, eta guraso guztiek gonbidatu zituzten eguerdiko hamabietan hasteko zen jaialdira.

Urte bereko urriaren 12an, Arrazaren Eguna ospatzeko, ume jaialdi bat antolatu zen. Jaialdia irail hasieran hasi zen prestatzen: Lamiakoko markesari baimena eskatu zitzaion jaia usakumeei tiro egiteko zelai ondoan ospatu ahal izateko, lursail hura harena zen eta; hainbat diru eralgi zen, sari eta gozokietarako, eta gonbidapen ugari bidali zitzaizkien pertsona ospetsu eta erakunde garrantzitsuenen (Unión Patriótica Nacional-i, Pedro León Etxeandia abade-ekonomoari, Fernando Lapatz-Gortazar, Bernardo Iza eta Julián Fullaondo lagunkideei, Ondiz-Aketxe Fundazioko lehendakariari, Herriko Hezkuntza Batzari, Eskauten buruari, Jungitu andre-gizonei, karabineroen etxeko komandanteari, Guardia Zibilaren kasernako goi kargudunei, enpresa guztietako alkate-gerenteei, eta auzuneko alkate, zinegotzi, bake epaile eta fiskalari).

Jaialdira, gonbidatuetariko asko joateaz gain, udalbatza eta eskolako maisu-maistra eta ikasle guztiak -jaiaren ardatza- joan ziren. Hasieran kanpainako meza antolatzeko asmoa egon zen arren, ez zen halakorik egin, ezen Gasteizko gotzainak esan zuenaren arabera "Jaungoikoa gurtzeko arrazoi goren-gorenek egon behar dute tarteko, eta fededunen hobe behar izpiritualak eraginda jardun, eta ez, gertakizun profanoak edo jai politikoak goratzeko asmorik badago (...) eta egun horretan, laneguna denez gero, ez dago indarrean meza entzuteko agindua", eta, halakorik barik, Guardia Zibilaren aldeko meza esan zen 10:15ean, San Maximo elizan, eta, gero, egitarauko honako ekitaldiak egin ziren:

- "Arrazaren eguna", José Basarte umeak irakurritako hitzaldia
- "Korroa" abestia, neska talde batek abestua.
- "Karabelak", María Jesús Temprano neskak bertsoan irakurritakoa.
- Herri eskolako neska-mutilek eginiko gimnastika-erakustaldia.
- "Urriaren hamabia", Jesús Basáñez umeak irakurritako hitzaldia.
- "Espainiako bandera", Marcelino López Pasaría umeak irakurritako olerkia.
- Jaiari buruzko hitzaldia.
- Banderari kantuka, mutil abesbatzak abestua.
- Sari banaketa<sup>121</sup>.

## **LANERATZEA ETA EMAKUMEEN EGOERA**

Umea lanean hasi baino arinago, etxekoen bizimodua ateratzen laguntzeko, eskola eta olgetak ziren haren eguneroko bizitzaren ardatz, baina sasoi horrek ez zuen askorik irauten, eta ikasle onenatariko askok 14 urte barik utzi behar izaten zioten eskolara joateari. Alabaina, premiaren gorriak bestelako gauza asko ere ikasi eragiten zizkien, eta gehienak, ia batere eskolarik izan ez arren, ondo moldatzen ziren merkatuko salerosketetan eta Lamiakoko eta hurreko lantoki eta fabriketan, langile-mutil. Bestetzetan, alokairuko jarduten zuten pinudiak sasiz garbitzen, lurra goldatzen edo antzeko eginkizunetan, normalean janariaren truke. Edo morroi ere ibiltzen ziren, ia-ia beste senitarteko bat izaterainokoan.

Familia guztiek ezin bidal zitzaizketen seme-alabak eskolara, hala eginez gero, familiaren ustiatzean edo industriari lanik egingo ez zutelako. Mutilekin hala jazotzen zen legez, alabak eskolara joateak etxeko kontuak txukun ez edukitzea zekarren. Beraz, behe-klaseko emakumeek, baita umeek ere, behar egin behar zuten. Eskolan, irakurri eta idazteko oinarrizko lezioak hartuta, etxekoen nekazaritza-ustiatzeak, ortuariak plazan saltzea, jostea eta neskame behar egitea izaten zituzten egiteko nagusi. Gainera, senarrak etxetik kanpo behar egiten zuenez, emakumeak egiten zituen etxeko lan gehienak. Leioako neska asko, eskola amaituta, josten eta brodatzen ikasten joan ziren, batzuk Udondoko estankoko Madalenenera. Baina gehienek soroko lanetan jardun zuten: 10 urte barik, neskatila askok belarra segaz ebaki, eta behiak jezten zituzten, egiteko batzuk aipatzearren. Neskak berdingoak zirela, azokara edo esnea saltzen joaten ziren, eta esnean astoek eroandako gurdietan garraiatzen zuten, haietariko batzuek "kabriolet" esaten zieten horietan.

XX. mendearen hasieran, manufaktura-industria sortu berrietan hasi ziren beharrean, baina baldintza askoz ere eskasagoetan, gizonezkoenen aldean (soldata gizonean baino hiru aldiz txikiagoa zen, 1847ko legeak ezarri legez, eta 1883a arte ez zen soldata parekatzeko legerik egin). Bizkaiko eta itsasadarreko alde bietako industrializazioak erakarrizko jendeketaz baliaturik, tabernen edo denden gobernua hartzea erabaki zuten emakume askok, edo etorri berriei edo haien senitartekoei ostatu eskaintzen zieten, bai eta alokairurik ordaintzerik ez zeukatenei ere. Sarritan emakume alargunek hala egiten zuten, eta apurka-apurka apopilo-etxe bihurtzen zen haien etxea; horiei esker, diru-sarrerak handitzen zituzten, eta modu apur bat duinagoan bizi zitezkeen. Emeki-emeki, emakumeak lan egiteko aukera berriak lortu zituen, hala nola, jostun, maistra, telegrafista, trenbideetako behargin, baina, batik bat, bere saltegia gobernatzen.

## **FAMILIA**

Andre-gizonak bereizten zirenean, batzuetan banantzen zirelako, baina gehienetan ezkontideatariko bat hiltzen zelako, egoera ekonomiko gorria larriagotzen zen, batik bat seme-alabak mantendu behar izanez gero. 1943a arte, ez zen pentsiorik kobratzen, eta alargunen gizarte-laguntza jasotzen zuten, harik eta seme-alabek 18 urte betetzen zituzten artean.

Beharginen estuasunek ez zuten zertan zapuztu edo petraldu etxeko bizitza, batik bat guraso eta seme-alaben arteko harremana. Gurasoak oso zorrotzak ziren seme-alabekin, eta ohiko bihurrikeriak direla eta (hala nola, astoaren buztanari latak lotzea, sororik soro egin zezan arineketan) zigorrak izaten zituzten ordain maiz.

Gurasoek umeak aurrera atera gura zituzten estuasun ekonomiko larri bariak, baina, askotan, aita edo ama gaixorik egonez gero, etxeko lana guztiak umeek egin behar izaten zituzten. Umeak gaixotzen zirenean, familia askok ezin ordain zezaketen laguntza medikorik, edo ezin sendagairik erosi, eta orduan sorospen eskabideak egiten zituzten.

Bizkaiko Umezurtzen Batzak kale gorrian zeuden umeak batzen jarraitzen zuten, eta inudeei ematen zizkien, haiek haz zitzaten, diru truke. Alabaina, lehendik parrokoak bizi-agerbidea sinatu behar zuten, eta umeari azterketa medikoa egin. Leioan ere ume abandonatuak aurkitu ziren: 1877ko abenduaren 6an egun gutxiko neska bat aurkitu zuten, honako idatzia paper baten zuela: "Leioa, San Andres eguna. Arrastiko bost eta erdietan jaio zen Andresa neskatila"<sup>122</sup>. Andre-gizonek umerik ez zeukatenean, sarritan umezurtz horietako bat adopzioan hartzen ahalegintzen ziren.

## **AISIALDIA**

### **Umeen olgetak eta helduen jolasak**

Oso jostailu gutxi zegoen, eta gutxi batzuek baino ezin erosi zitzaizkien; eta, beraz, erosi barik, umeek asmatu egiten zituzten. Hala, eurek egiten zituzten tiragomak, zerbatanak, trukemea, txapak, hezurak. Batzuetan jostailu merkeak erosten zituzten, atarramentu handia ateratzen zitzaizkien, hala nola, kanikak, kromoak, uztaia edo zibota. Beste batzuetan, taldeka jolasten ziren, beste ezereen premiarik gabe, kasurako, txorro-morroan, bapirukan, ostu-ostuka -arbolan azpitan edo sasirik sasira-, txapetan, kaniketan, "santuetan" (pospolo kutxek zituzten irudiak ebakita) eta barretan. Olgeta horietan oraintsu arte ibili izan dira umeak. Seilu eta film-iragarkien bildumak egiten ziren, baina, batik bat, tortoloxetan, soka-dantzan, palan eta txotxean jolasten ziren. Beste batzuetan, jalea lata handi eta biribila hartzen zen, eta makila sartuta bira-biraka erabiltzen zen. Hala ematen zuten orduko neska-mutilek zuten aisialdi apurra. Elexaldeko garbitokira ere zapaburuak harrapatzen ere joaten ziren, denbora-pasan. Txirrindua luxu hutsa zen. Umeek erabiltzen zuten, gurasoek beharrerako behar ez zutenetan. Ume batzuek, apur bat koxkorturik, Orbea etxeko lasterkari-txirrindua izan zuten. Errege Magoek ere ez zuten oparirik ekartzen, ezpada, arropa apur bat, abarketa pare bat eta, gehienez ere, jalea-lata bat. Umeak etxe inguruan, eskolan edo errepidean ibiltzen ziren olgetan; izan ere, errepidean ez zeukaten ezelako arriskurik, autoak oso lantzean behin agertzen zirelako.

Diru askorik ez zegoenez gero, umeek ia ez zuten gozokirik jaten. Eta oso egun berezietan baino ez zizkioten erosten txufak, kakahueteak edo karameluak auzunerik auzune eta erromeriarik erromeria

otzara eskuan saltzaile zebilen Teresaxuri. Ume batzuek Maria gailetak erosten zituzten Kooperatiba Katolikoan. Baina horiek jatea eta, areago txokolate ontza batekin, luxu hutsa zen.

20ko hamarkadan, umeen aisialdia antolatzen hasi zen: 1921eko irailean Lamiakoko Gonzalo Menciak idazki bat aurkeztu zion udalari "Lamiakon Esploratzaileen Batza (Eskautak) sortu eta talde bat eratu zela jakinarazteko, eta auzuneko eskolak bilerak egiteko uzteko eskatzeko".

Eskoletan antolaturiko jaietan eta irteeretan (halakoetan, jatekoa egunkari-paperetan bilduta eta zapata-kutxa baten barruan eroaten zuten) inoiz baino hobeto pasatzen zuten orduko umeek.

Helduei dagokienez, esan dezagun aisialdirako tartea beharrerakoa baino murriztagoa zela, eta, hartara, estimu handiagoan zuten. 1875tik aurrera garai berri bat heldu zen, ezen, ordura arteko denbora-pasei eusteaz gain, berariazko aisialdia eta ikuskizun komertzialak agertu egin ziren, urte horiez gerotik hasi zen urbanizazio eta industrializazioaren aieru. Garai modernoek bide luzea egin zuten elizatera ailegatu baino lehen, eta, beraz, sasoi hartan telebistarik ez zegoenez, aisialdian gehienetan osteratxoak egiten zituzten edo dantzan joaten ziren, eta, soroko beharrek tarterik uzten zutenean, tabernetara batzen ziren -halako gero eta gehiago zegoen- edo denbora-pasarako osterantzeko moduak erabiltzen zituzten, ondoren azalduko dugun gisan.

### **Tabernak**

Beharginek taberna zuten denbora emateko modurik ohikoena. Bertan, beste gizon batzuen lagunartea zuten, beti, eta baita ere dibertitzeko beste modu batzuk, hala nola, jokia edo kafe-abeslarien -hala esango diegu- ikuskizunak.

Taberna horiek janari-denda ere baziren, eta, biztanle kopuruak gora egiten zuen ginoan, horiek ere ugaltu egiten ziren. Denboragarrean, bestelako lokal dotoreago eta ordura arte ezezagunak irekitzen hasi ziren. 1904an, Claudio de Icazak, Pantaleón de Arestiren denda eskualdaturik, baimena eskatu zuen kafe-etxe eta billar-lokala eransteko dendari. Urte horretatik aurrera, lehen mailako hainbat kafe-etxe ireki zen. 1906an, Rafael Crespok edari eta freskagarri denda bat zabaldu zuen, eta bertan edari gasdunak ekoizteko makina bat paratu zuen<sup>123</sup>.

Halako lokal ugari zegoen Lamiako alderdian, baina, apurka-apurka, Leioako baserri-gunera zabaltzen hasi ziren. 1924an, kasurako, Hilario Ugarte Bastidak taberna ireki zuen bere etxean "Sakoneta izeneko lekuan", eta 1928an beste taberna bat zabaldu zen Artatzan.

Klase ertaineko eta behargin-klaseko kide agurgarriagoek salaketak jartzen zizkieten tabernei, etengabe. Klase ertainekoen ustez, tabernazuloak moralitate ezaren sorburu ziren, eta beharginaren

behar egiteko ahalmen nahiz gizarte-ordena mehatxatzen zizuten; maiz, tabernak sozialismoari lotzen zioten (batik bat, propaganda banatzeko eta grebarako deia egiteko lekuak zirelakoan).

Sindikatuetakoko buruzagi batzuen ustean, hala nola Manuel Vigil-enean, alkohol danga-danga edaten zuten beharginak ez zirela bizioagatik joaten tabernara "ezpada, inguruan duten munduak zurruta eta karta-jokoa beste kontsolabiderik ez dielako eskaintzen"<sup>124</sup>.

Beharginen erakundeak osterantzeko lokalak irekitzen ahalegindu ziren, behargin-klasea bertan atsegin har zezan: Herriko Etxeak eta Ateneoak. Halakoetan, irakurraldiak, antzerkia eta abesbatzen emanaldiak antolatzen ziren, eta liburutegia edukitzen zuten. Anarkistek antzerkian zuten interes berezia, propagandarako bide oso eragingarria zelakoan. Sindikatu katolikoak zeuden lekuetan ere antzeko erakundeak zeuden: Zirkulu Katolikoak.

### **Irratia, zinema eta telebista**

Oso jende gutxi zeukan irratarik etxean. Askok 30 hamarkadaren amaieran erosi zuten, baita bigarren eskukorik ere. 40ko hamarkadan, irrati-antzerkia, barietateak eta lehiaketak ziren irratsaiorik gogokoenak, baina saiorik arrakastatsuenak irrati-nobelak ziren, etxeko guztiak erakartzen zituzten-eta irrati-aparatuaren ingurura, pertsonaien barrei eta negarrei adi. Izan ere, pertsonaian horren sartuta zeuden etxean, ezen ia-ia etxekotzat hartzen zituzten.

Leioaztarrak Ikea zinemara joaten ziren, Bilboko Trueba-ra, Areetako Gran Cinema-ra edo Asuako La Cadena-ra.

Baina, zalantza izpirik gabe, ikuskizun komertzial berrietan gailena zinema izan zen. 1896an lehenengoz proiektatu zen film bat Espainian, eta laster pantaila handiko ikusgarriak arrakasta handia bildu zuen. Batzuen ustez, zinema -edo zinema-aretoen iluna- moralaren aurkako zemaia zen, eta, hori dela-eta, sasoi batez, genero bateko eta besteko ikusleak leku desberdina eduki zuten aretoetan. Gainera, filmak zentsurak ikuskatzen zituen.

Telebista 1960an heldu zen Hego Euskal Herrira, urte hartan Solluben paratu zuten-eta lehenengo antena. Eta ezarian-ezarian, pantaila txikikoak ordura arte etxean jaun eta nagusi izandako irratiaren lekua hartu zuen.

### **Futbola Leioan**

XIX. mendearen amaieratik aurrera, Ingalaterrako ikastetxeetan ikasle zebiltzan Neguriko kapitalisten seme-alabak, ingeles gazteei bezala, kirol sortu berriarekiko gogoia egin zitzairen. Herrira itzulita, futboleak jokatzeko jarraitu zuten, Bilbo hiriko eta itsasadarraren ertzetako lantegietan beharrez ari ziren britainiar merkatari, ingeniari eta teknikariek legez.

Apurka-apurka, kirol berria sustatu zuten kirol-elkarteak eratu ziren. Hala H. Jones britainiarra - Erandion bizi zen- Club Athleta de Astilleros del Nervión elkarteko lehendakari zen, eta, 1892an, baimena eskatu zien probintziak gobernuari eta Leioako alkateari, azaroaren 1ean, arrastiko hiru eta erdietan "foot-ball partida bat (pilota partida) joka zezaten 15 jokalariko talde bik" Lamiakoko hipodromoan. Geroxeago, partida bat jokatu nahi zuten bakoitzeko enbarazurik ez egiteko, alkateari baimena eskatu zion azarotik apirila arte egin behar ziren partida guztietarako, "foot-ball denboraldia orduantxe amaitzen zen-eta", eta aditzera eman zion hura, alkatea, ohorezko bazkide izendatzera menturatu zela<sup>125</sup>.

Urte bi geroago, zale berriek erronka jo zieten Averly zelaian edo ingelesez zelaian "sport" horren berri hartan jokatzeko zuten ingelesei. Ingelesen taldea (jokalariai: G. Baird, Hamilton, Wilson, Mc Donald, Rearey, Smeddon, Bill, Bruce, A. Roblo, Armstrong eta Brand) eta bilbotarrena (jokalariai: S. Borde, J. Alarcón, R. Lekue, B. Zabala, V. Milikua, B. Otero, A. Zubillaga, P. Unzueta, J. Azkue, F. San José eta G. Greaves) garaiz heldu ziren, eta partida 10:30ean hasi zen. Ingelesek eguzkiari lepoa ematen zion zelaia aukeratu zuten, eta krema koloreko elastikoak zituzten jantzita, eta bilbotarrek zuriak. "El Nervión" egunkariaren 1894/05/04ko zenbakiak albiste hura jaso zuen:

"Atzo goizeko hamarretan, ingeles eta espainiarren arteko foot-ball partida jokatu zen Lamiakon. Ingelesek 5 puntuko aldea aterata irabazi egin zuten. Ikusle asko joan zen norgehiagoka ikusten. Dioskutenez, hilaren 25ean, atzera ere, beste partida bat jokatu dute talde berek".

Bizkaian jokatuakoen lehen partida, edo haren berri daukaguna behintzat, Lamiakon egin zen. Bilbotarrek galdu eta gero, irabazleek, kontsolatzeko-edo, oilasko errea jatera gonbidatu zituzten. Eta, seguruenik, bazkaltzeko bilera horren aitzakian, esperientziaz eta jokatzeko taktikei buruzko iritziez jardungo zuten.

Football-a hasieran dirudunentzako kirola izan bazen ere, apurka-apurka ohiko bihurtu zen, eta ez zen harrigarria gizon batzuk ikustea pilotatza bati segika arineketan eta halako modu bitxian jantzita.

Kirol berriaren zaleak Bilboko Zamacois gimnasioan batzen ziren, eta ahal zuten guztietan hartan ibiltzen ziren. Juan Astorkiak, Alejandro Atxak, Iraolagoitiatar anaiek, Montejok, Enrique Goirik eta Luis Márquezek hala egiten zuten. Horiek guztiak, talde bat sortu eta izena ematekotan, Bilbotik Areetarako trena hartu zuten, eta bidaian 40 minutu eman eta gero Lamiakoko zelai bat begiz jo zuten, bertan jokatu ahal izateko; ordurako hainbat team-ek erabiltzen zuten. Elektrizitate azpiestazio sortu berri baten turbinen ondoan, sasoi hartan "elektrizitate fabrika" izena ematen zioten lursailaren aldamenean, zelai egokia aurkitu zuten. Lursaila Coste eta Agirre familiena zen. Arazo bakarra zen trena ez zela bertan lotzen, baina tren-gidariak, futbolzale ere bazirela-eta, abiadura moteltzen zuten, Areetarako geltokira hurreratzen ziren ginoan, jokalariai eta, oro har, ikusleak ere jaitsi ahal izan zitezeko, trena oraindik abian zegoela, partida (edo match-a) jokatzeko edo ikusteko.

Lamiakon ikusi ahal izan ziren, beraz, benetako lehenengo partidak. Horrela, 1900an, Bilbao Football Club taldea sortu zen, José Luis Villabasonen etxean eginiko bilera batean. Carlos Castellanos, Bilbora lehenengo baloia ekarri zuena, lehenengo lehendakaria izan zuen. Lehenengo partidak ondoko sakosta batean -geroago Areetako Zugatzarte pasealekua izan zen horretan- jokatu zituen talde horrek.

Urte bi geroago, 1898an, Athletic Club izeneko baltzua eratzeko asmoa sortu zen Zamacois gimnasioan (1894an sortu zen gimnasioa). Hasieran ofizialki eratu ez bazen ere, Lamiakon jokatutako partidetan izen hori berori erabiltzen zuten. 1901eko ekainaren 11an, García kafe-etxe entzutetsuan, eta Bilbo FCren sorrerak bultzatuta, Athletic Club-en araudia idatzi, eta lehenengo zuzendaritza aukeratu zen. Irailaren 5ean, baltzua azkenik ofizialki eratu zen, legearekiko, eta 33 bazkidek osatu zuen. Aktan bertan, klubak proposatzen zion Bilbo FCri Lamiakoko lursaila elkarrekin errentan hartzea Enrique Agirre eta Ramón Coste jaunei. Jabeek onartu, jakina, eta 200 pezetako urteko errenta finkatu zen.

Sasoi batean, talde biak elkarrekin lehiatu ziren zelaietan, eta, gainetik, areriorik gogorrenak: 1901. urtearen amaieran jokatu zuten partidaren berdindu egin zuten, eta errebantxa Lamiako jokatu zen 1901eko abenduaren 1ean (bana amaitu zuten). Talde bien arteko lehia areagotu egin zen, eta 1902ko urtarrilaren 19an beste partida bat jokatu zuten (Athleticek irabazi zuen 3-2) - Bizkaian jokatu eta hura ikusteko ordaindu behar izan zen aurreneko partida izan zen (30 xentimo edo 3 txakur handi kostatu zen)-, eta hurrengo egunean "El Nervión" egunkariak haren berri eman zuen:

"Arrastiko hirurak eta laurdenetan hastekoa zen Bilbo FC eta Athletic Clubeko eleven-en (hamaikakoen) artean iragarritako foot-ball partida (...) Athleticeko jokalariek elastiko zuri eta urdin ikusgarriak zituzten, atzokoan lehen aldiz jantziak 126. Dotore-dotore jantzita zeuden, seguruenik, irabazi egingo zutelako susmoak hartuta. (...) Athleticeko jokalaria txalagarriek, batik bat forwardek (atzelariak) pilotari etengabe jarraitzen zioten, eta teameko gainontzeko jokalariek hartan laguntzen zieten. Alabaina, talde horretako jokalaria batzuei konfiantza larregarri genien, eta bertatik ohartarazi nahi diegu, atrebentzia ez bada, konfiantzak arriskua dakarrela. Gainontzean, hala jokatuta irabazi egiten da. Zorionak eta ez ibili esnetan".

Lamiakoko lursaila burdin hari arantzadunez zegoen hesituta, bertan zaldi lehiaketak antolatzen zirelako. Futbol zelairako lur-zatiaren sarreran egurrezko etxola bat zegoen, eta txarteldegia gisa erabiltzen zen; lekuri onena lehenengo heltzen zirenek lortzen zuten. Jendeak joko-marrak egiten zituen, eta, atsedendietan, umeak eta nagusiak zelaira sartzen ziren, baloiari ostiko batzuk emateko.

1902ko martxoaren 19an, Bilbao eta Athletic Club berriro lehiatu ziren elkarren aurka Lamiakon, eta Athleticek 1-0 irabazi zuen. Urte hartan, Bilbo eta Athletic Clubek indarrak batu, eta Team Bizcaya taldea sortu zuten, herrialdeko selekzio gisa-edo, atzerriko taldeen aurkako partidak jokatuz. Hala, 1902ko martxoaren 31n Bordeleko Burdigala taldearen aurka jokatu zuten, itzulerako partidaren, eta 7-0 nagusitu zitzaizkien "apatheen moduan jantzita" etorri ziren jokalaria haiei. Lehenago, martxoaren 9an, joaneko partida jokatu zuten Bordelen, eta han ere Bizcayak 2-0 irabazi zuen. Partida ikusten 3.000

lagun baino gehiago joan ziren, haietariko asko andrazkoak, eta leku onenetan Erruki-Etxearen aulkiak paratu ziren.

Bizcayak lorturiko garaipenei esker (1902ko errege kopa irabazi zuten, Alfonso XIII.ren koroatzea ospatzeko antolaturiko txapelketa), zale kopurua handitu egin zen. Bilboko eta Athleticeko kapitainei elkarri erronka jotzen zioten, eta domeketan partidok jokatzen zituzten Lamiakon. Bizkaiko elizjendearen orduko ikastetxe nagusietako lehen jokalaririk harrobia sortzen hasi zen: Eskolapioen, Bilboko eta Algortako Kristau Dotrinako anaia eta Urduñako josulagunen ikastetxeetan, hain zuzen. Baina, ustekabean, bazkideek klubei laguntzeari utzi zioten, eta horiek gorriak ikusi zituzten bizirik irauteko. Hala, 1903ko martxoaren 29an Bilbao FC desagertu zen, eta haren bazkideak Athleticenera batu ziren. Horrela, Athletic Club de Bilbao sortu zen, eta, harrezkero, etengabe baimenak eskatzen hasi zen Lamiakon jokatzeke. 1903an, garaipen asko lortu eta gero, Madrilen ari zirenen euskal ikasle batzuek Athleticen filiala sortu zuten han.

Denboraldi berean, (ekar dezagun gogora, ordurako, karratu urdin eta zuri handiko elastikoa, praka urdinak eta borla zuriko cap (kapela) urdin iluna erabiltzen zituztela uniforme moduan), 1903ko apirilaren 7an, hilaren 13an Lamiako Burdigala eta Bordeleko Athletic Clubek bat eginda sorturiko taldeak eta Athletic partida behar zutela-eta, honako albistea agertu zen egunkarietan:

"Athletic Club baltzua.- Bazkide jaunei eta baltzu honetara batuko diren Bilbao FCko bazkideei aditzera eman gura diegu ezen, datorren astelehenean Lamiakoko zelaiaren egiteko den partida ikusteko, batzak erabaki duela nahitaez ikurra erakutsi beharko dela zelaira sartu baino arinago. Oraindino izena eman daiteke egun horretan, gaueko bederatzietan, egiteko den afarirako. Batzak".

Partida amaiturik (3-1), egunkariek ohiko kronikak plazaratu zituzten, bertako giroaren erakusgarri: "Iragarrita zegoen legez, atzo Burdigala eta Bordeleko Athletic Cluben elevenaren eta Bilboko Athletic Clubenaren arteko partida jokatu zen Lamiakoko zelaiaren. Arrastiko lehen orduetatik giro handia zegoen zelaiaren inguruan, eta apur bat geroago hamar mila bat ikusle agertu zen. Errepidean neskato dotore franko zegoen, partida zalgurdietatik ikusten.

Partidaren lehen herenean talde biak oldartsu borrokatu ziren, nor baino nor trebeago. Burdigaliakoak oso elkar hartuta borrokatu ziren, eta zeregin handia eman zioten Athletici, defendatzen zebilen eta. Bigarren herenean, aurrekoan legez, borroka ikustekoa izan zen, eta elevenek ez zuten goal bakar bat ere egin. Ikusleen esanak Burdigalakoen aldekoak ziren. Azken herenean, bilbotarrek gogotsu ekin zioten borrokari, eta orduko jokatzeke moduari esker irabazi egin zuten. Jendea nonahitik bibaka hasten zen pozez zorutzen. Ondoren, jokalaririk aldagelara joan ziren".

1902 eta 1903ko Espainiako txapelketak irabazi zituen, eta gero eta zale gehiago erakartzen zituen<sup>127</sup>, baina, hala ere, Athleticek bere lehenengo krisia izan zuen. Lamiako apur bat asago zegoenez, jokalariai entrenamenduz kexu ziren; gainera, bazkide askok ez zuten kuotarik ordaindu, eta lokala ordaintzea oso garestia zen. Hori dela-eta, 1903ko azaroaren 15ean batzarako deialdia egin zen, baltzua desegiteko asmotan. Alabaina, bakar batzuen -kasurako, Alejandro Atxaren- temari esker, ez zen halakorik jazo. Karguak berriztatu ziren (G. Kareaga lehendakari eta Alejandro de la Sota lehendakariorde), eta jokalariai entrenatzen hasi ziren, 1904ko txapelketa prestatzeko.

1904ko apirilaren 24an, Madrid taldea lehen aldiz heldu zen Lamiakora. Zelaiak, sasoi hartan, belartza parebakoa zeukan. Partida bakar bat ere jokatu barik txapeldun izandakoa -aurkaririk ez zen-eta aurkeztu- azpiratzeko asmotan etorri zen Madrilgo taldea. El Nervión egunkariak honela jaso zuen partidaren albistea:

"Arrastiko lau-lauetan hasi zen iragarrita genuen partida. Club de Madrid taldeak Gobela ibaira ematen duen alderdia hartu zuen, eta Athleticek itsasadarraren aldekoa. Arana jauna izan zen epaile".

Albiste horri esker badakigu zelaia itsasadarraren perpendikularrean zegoela, eta Athleticek 2 eta 1 irabazi zuela.

1904ko amaieratik 1905ko hasiera arte, Athleticek ez zuen ia partidarik jokatu, eta taldea bihotza galduta zegoen, entrenatu arren partidarik jokatzen ez zuelako. 1905eko San Jose egunean, Athleticek Uniónen aurka jokatu zuen (talde hori 1901ean sortu zen), Bizkaiko Karitate Elkartearen alde. Burdinbide enpresak tren gehiago jarri behar izan zituen, eta 50 ogerleko baino gehiago irabazi. 1905eko martxoaren 26an, Recreativo Club de San Sebastián taldea etorri zen Lamiakora, adiskidantzako partida jokatzeko. Gipuzkoarren eta bizkaitarren arteko lehen norgehiagoka izan zen. Euria egin arren, zaleak ez ziren kikildu, eta tren berezi bi jarri behar izan ziren, ikusle guztiak bertara eramateko. Nervión egunkariak partidaren berri eman zuen honetara:

"Lamiakoko larrea ikusle dotorez gainezka zegoen. Oso norgehiagoka gogor eta nekeza izan zen. Batzuek gogoz egiten zuten eraso, eta besteak, defendatzeaz gain, kontraeraso bortitzean hasten ziren. Trebeak, bipilak, zoliak, gipuzkoarrek eta bilbotarrek ikusleen txalo eta aupada guztiak merezi izan zituzten".

Egun horretatik aurrera, hedabideek entrenatu beharra nabarmendu zuten, Nervión egunkariak 1905eko martxoaren 30ean plazaratutako zale ezezagun baten gutun honek salatu bezala:

"Bilboko footballmenei: (...) bilbotarrek zeuen jakituria eta indarra agerian utzi duzue jokoan, baina baita ez duzuela gogoko Lamiakora entrenatzen joatea ere (...)"

Baina arazo ekonomikoengatik ez ziren joaten entrenatzen, eta ez zaletasun epel edo gogo gutxi zutelako, eta, gehienetan, norberaren lanarekin bateraezina zelako; izan ere, "amateurrak" ziren, eta ez zuten sosik kobratzen.

1904-1905 denboraldia amaitu baino arinago, Bordeleko Burdigala atzera joan zen Lamiakora, eta Athletic menderatu zuen; Athletic burumakur zebilen, arestian Madrilek ere irabazi egin zuelako.

1905eko martxoaren 19an, Bizkaiko Karitate Elkartearen aldeko foot-ball matcha jokatu zen. Partidan liskarrak egon ziren, eta martxoaren 23an Athletic Clubek baimena eskatu zuen ordaindu behar ziren partidetan "zelaia ibai ondotik zeharkatzen zuen herri-bidea edo gozamen-bidea itxi ahal izateko edo atean pertsona bat ipintzeko -udaleko txinela izan zitekeen, inork baino hobeto ezagutzen zituelako bertako auzoak-, beste leku batera edo zer edo zertan doazenei bakarrik pasatzen uzteko, eta aurreko domeka hain ikuskizun negargarria eragin zutenei sartzen ez uzteko (...) izan ere, hori dela-eta, ikusleak kexu izan ziren, eta batik bat andreak; izan ere, batzuk, ukatu ezin zaien eskubideaz -bidetik igarotzeaz- baliaturik, joko-zelaian geratzen ziren, eta txartela eskatzen zieten baino gehiago zirela baliaturik"<sup>128</sup>.

Denboraldia ekainean amaitu zen, Athleticek Leioako selekzio baten aurka jokatu zuenean Lamiakon, hondoratutako Uriarte II eta Olaeta arrantza-ontzietako arrantzaleen senitartekoen alde. Athleticek irabazi egin zuen, eta 306 pezeta batu ziren.

Denboraldi berria hasi baino lehentxeago, 1905eko uztailaren 9an, bazkideen batzarra egin zen Lamiakoko etxolan, eta denboraldiari gogo handiagoz eta helburu zoliagoen bila ekin zitzaion: nazioarteko lehiaketa antolatu zen, eta orduan "Bizkaia Kopa" sortu zen, baina sasoi hartako talde nagusiek muzin egin zioten gonbitari, eta txapelketa probintzia mailako ekitaldi hutsa izan zen.

1906ko apirilaren 15ean, domekarekin, Athletic Bartzelona boteretsuarekin lehiatu zen Lamiakon, eta 10-1 irabazi zion partidua. Hurrengo egunean, denboraldiari buru emateko, Burdigalaren aurka jokatu zuen, eta hura ere mendean hartu zuen 4-0.

1906ko abuztuan, entrenatzen hasteko sasoiaren, uholdeek ia guztiz txikituta utzi zuten Lamiakoko zelaia. Ur asko metatu zen, eta berdegunea lupetza hutsa zen. Jokalarien etxolek, zuzendaritzakide eta gonbidatuentzat klubak zituen instalazio apurrek, zaleen jarlekuek eta sarbide guztiek kalte handiak izan zituzten. Askoren ahalegina eta erakunde ofizial, industria eta saltegien laguntza ezinbesteko izan ziren, zelaiak lehengo itxura izan zezan eta, hala, Athleticek 1906-1907 denboraldian bertan jokatu ahal izan dezan.

Orduan Athletic eta San Sebastián-en arteko beste partidu bat jokatu zen. El Nervión-en aipuak honela jaso zuen:

"Gaur Lamiakoko zelaiaren jokatzeko den foot-ball partidua gogoangarria izango da, zalantza izpirik gabe. Areetako trenen enpresak erabaki du trenak foot-ball zelai aurrean dagoen geralekuan gelditzea. Gaur, partiduaren baldintzak zehazten dituzten egitarau asko banatuko dira".

1907-1908 denboraldian, Athleticek ez zuen ezta partidu bakar bat ere jokatu estatuko talde baten aurka, eta horrek gogoan apaltzen zien jokalariei. 1908ko apirilaren 19an, aspalditik ezagun zuen talde baten kontra jokatu zuen, Stade Bordelais-en kontra, eta 2-0 irabazi zuen.

1908-1909 denboraldian, Donostiako Ciclistaren aurka adiskidantzazko partidu bi jokatu zituzten. Lehenengoa, Lamiakon, otsailaren 28an jokatu zen, eta zelaia apain-apain prestatu zuten. Bestetzetan baino zalgurdi gehiago zegoen inguruetan. Probintziako egunkari batek zioenez "matcherako orduan, zelaia ikusle gainezka zegoen, eta bertan zeuden neskatila eder eta dotoreek goratzen zuten jai-giroa". Benetan ikustekoa izan zen. Areetarako tren normalean baino askoz ere bidaiari gehiago izan zituen, eta, tren konpainiak agindu legez, zelai aurrean gelditu zen. garaipen handia lortu zuen Athleticek, 8-0, kopa irabazi berria zuen taldearen aurka. Joaneko partidua ekainaren 6an jokatu zen Atotxan, eta Athleticek berriro irabazi zuen, 0-3. Adiskidantzazko partiduak izan arren, orduan igartzen hasi zen talde bien arteko lehiakortasun gero eta biziagoa; hala, Donostiako ikusleek ez zuten jarrera batere dotorea izan, eta Atotxako zelaiaren egoerari kritika zorrotzak egin zitzaizkion.

Madriilen aurka jokatzeko talde bat sortzeko asmotan, beste partidu bi jokatzeari hitzartu zuten. Nork irabazi, hark emango zion izena talde berriari. Orduan, azaroaren 7an, Athleticek berriro jokatu zuen Atotxan, eta atzera ere irabazi zuen. Lehiakortasuna horren handia zen -zurigorriek berriro irabaztearen beldurraren adinakoa-, ezen azaroaren 28an jokatu behar zen joaneko partidua ez zen jokatu, Ciclistakoak agertu ere ez ziren egin eta.

1910an -Athletic elastiko zurigorria jantzi zuen lehenengo urtean, eta Espainiako Futbol Federazioa ofizialki eratu zenekoan- jokalariek oraindik kexu ziren jaiegunetan Lamiakora entrenatzen joan behar zutela-eta. Arrangura horiek eta Leioako Udalak, Lamiakoko zelaiari atarramentua ateratzeko, sorturiko udal zerga direla-eta, Bilbon bertan zelaia eraiki beharraz jabetu zen jendea. Gainera, Federazioak erabaki zuen 1911ko txapelketan Bilbon antolatu behar zela, eta Lamiakoko zelaiak berdegune txukun samarra eduki arren (hango belarrak oso ondo xukatzen zuen ura, hareatza baten zegoelako), ez zituen beharrezko egiturak neurri horretako ekitaldi bat bertan antolatzeko. Horrela, Bilbon futbol zelai berria eraikitzeke eginbideetan hasi ziren, baina denbora arin joan eta oraingoz ez zegoen Bilbon halakorik egiteko aukerarik: Terrenos de Neguri baltzuak eraikitako Jolasetako zelaia errentan hartu zuten, Lamiakokoa bezain asago egon arren. Bestetik, lehenengo entrenatzailea kontratatu zuten, Mister Sheperd, eta, jokalarien artean zegoen nahastea ikusita, ia hilabete eta erdi ere ez zuen iraun.

1912an, Bilboko kale nagusiaren luzapeneko lursail baten San Mames zelaia eraikitzea erabaki zuten. Proiektua Manuel María Smith arkitektoak egin zuen, eta 50.000 pezetako aurrekontua izan zuen. Zelaia 1913ko abuztuaren 21ean lehengo partidua jokatu eta inauguratu zen.

Futbolaren hasierako urteetan, Leioak aurrendari sorta bikaina izan zuen: Sesumagatarrak, Arruza anaiak, Sabino Bilbo, Alzaga, Basáñez, Gumersindo Uriarte... Horiek guztiek "Amaika Ollarak" taldea sortu zuten, eta sekula ez zuten partidurik galdu. Jokalari handi horiek sakabanatu egin ziren, beste talde batzuetara joan ziren-eta. Félix Sesúmagak Getxoko Arenas-en jokatu zuen 1915eko denboralditik 1920koa arte; 1919an, kopa txapelketa irabazi zion Bartzelonari. 1920an klub horrek fitxatu zuen eta Anberesko Olinpiar jokoak jokatu zituen, Sabino Bilbo leioztarrarekin batera. Guztira, nazioarteko 8 partidu jokatu zituen, eta 7 irabazi. Ondoren, Bilboko Athleticen jardun zuen, harik eta lesio larrik batek futbol zelaiak uztera behartu zituen artean.

XX. mendeko lehen hamarkadan, beste futbol talde bat sortu zen Leioan, talde gogor eta oldartsua: "Arrapatzen ba zaitut". Orduan herriak bertso hauek hasi zen kantatzen:

XX. mendearen bigarren hamarkadan, udako txapelketak antolatzen ziren, Athleticetako eta beste talde batuetako gazte taldeen artean.

Denboragarrenean, talde franko sortu zen herrian, besteak beste, "Los Diablos Azules" [Deabru Urdinak] eta, 1925ean, "Sociedad Deportiva Leioa" izeneko. Futbolarekiko zaletasuna handitzen ari zen ume eta helduen artean, eta musika bandek partiduak gortzen zituzten.

Urtebete geroago, 1924ko azaroan, Arenas Clubek Kareagako lur-zatia erosi zuen, kirol zelai gisa erabiltzeko asmotan<sup>130</sup>. Berdegunea egokitu ondoren -Leioako Udalari horretarako dirulaguntza eskatu zioten-, 1925ean Ibaiondo futbol zelaia sortu zen. Hurrengo egunean, Espainiako txapelketako final zortzirenetako partidua jokatu zuten Torrelavegaren aurka. Lursail horietan (egun Ibaiondo urbanizazioa dago), Areetarako errepidearen ondoan, taberna txiki bat zegoen, eta bertan zaleek egarria berdinduko zuten, partiduan airean ibili eta gero.

1927an, Lorenzo Velasco, Antonio Aresti, Juan Luis Sesúmaga eta Juan Ondiz azken horren tabernan elkartu ziren, eta kirol baltzu bat eta foot-ball talde bat sortu zituzten

## **Hipika**

1887en, Augustus Levison Bilboko Hipika Elkartearen laguntzaz, Lamiako aldeko ibaiertzaren zati bat prestatu zen hipodromo gisa erabiltzeko. 1889ko abuztuan, erre familia zetorrela baliaturik, hipodromoa inauguratu zen. Eta hori ospatzeko, nazioarteko zaldi lasterketak egin ziren hiru egunean, eta udalak 250 pezeta eman zituen sarietarako. 1891n, sozietateak errentan hartu zuen lursaila, eta lasterketa asko egin ziren urte hartako abuztuan, gobernu zibilaren baimena jasota.

Hipodromoari esker, Bilbo hiriak Aste Nagusiko jai egitaraua edertu ahal zuen. 1907an, hiriak baimena eskatu zuen, abuztuko azken astean hipika lehiaketa bat antolatzeko, eta baimena eman zioten, egunero 25 pezeta ordaindu eta udaleko kideei doan sartzan utziz gero. Bilbo uzkur agertu zen ordaindu

behar izatearekin, ezen, haren ustez, ikuskizunak ez zeukan irabazi asmorik eta elizateak mozkin handiak lortu zituen, baina Leioako udala tematuta zegoela-eta -dirua premiazko ei zuen-, Bilbok amore eman behar izan zuen<sup>131</sup>.

### **Poloa**

1927ko abuztuan, Lamiakoko Polo Elkarteak, José Luis Aznar lehendakari zuela, jaialdi bat antolatu zuen usakumeei tiro egiteko zelaian.

### **Golfa**

1913an, Manuel María Smith arkitektoak Neguriko Golf Elkartearen eraikuntza diseinatu zuen, Avanzada errepidean. 9 zuloa zelaiko lursail batzuk Leioako elizateko lurreen zeuden. 1054an Galeako golf zelaia eraiki zen artean, egun Golf Zaharra esaten zaien lursailetan, Smith eta Victor Chávarri -20ko hamarkadan elkarteko lehendakari izan zen-, bai eta Bilboko goi burgesiako beste kide entzutetsu batzuk ere, golfean ibili izan ziren, eta jai eta erromerietan askotan parte hartu.

### **Txirrindularitza**

Txirrinduarekiko zaletasun apurka-apurka zabalduz joan zen. Oso goizik, 1891ean, Astilleros del Nervióneko Atletak elkarteak baimena lortu zuen, urriaren 17an hipodromoan belozipedo, oinezko, oztopo eta zaku lasterketak egiteko<sup>132</sup>. Hurrengo urteko irailaren 8an, Erandioko William H. Calvert jaunak antolatu zituen lasterketa horiek.

Txirrindua garraio bide legez hasi zen erabiltzen jendea, eta 1896an, aldundiak eskatu behar izan zuen txirrindularien eskubideak bermatzeko eta horiek oinezkoenak begira zitzatela.

1924an, Excelsior egunkariak I. Euskal Herriko itzulia antolatu zuen. Lasterketak 627 km ibili zituen, eta azken aurreko etapa, Bilbotik atera eta Bilbora ailegatzen zena, Leioatik igaro zen abuztuaren 10an<sup>133</sup>. Udalak 50 pezeta eman zituen, 1926ko ekainean Jerónimo Bilbori, Athletic Clubeko Txirrindularitza Batzordeko idazkariari, beste horrenbeste diru eman zion, hilaren 27an egin zen "Bizkaiko II. Sariketa Nagusia" txirrindulari lasterketa antolatzeko. Txirrindulari lasterketetan gorabeherarik gerta ez zedin, errepideek zoladura ona izan behar zuten, eta, hala, 1926ko uztailan, Excelsior-ek antolaturiko txirrindulari lasterketak Ibaiondoko zelaia helmuga zuenez gero, kalean zegoen trango bat estali zen. Urte hartan bertan, beste txirrindulari lasterketa bat antolatu zen Donibane jaien hurrengo asteburuan, eta bertan Leioan hamar urte baino gehiago bizitzen emandakoek baino ezin har zezaketen esku.

Txirrindua askotan erabiltzen hasi zen batetik bestera ibiltzeko, baina ezin eros zezaketen familia guztiek, udalak 1928tik 1929ra egin zituen estatistiketan ikus daitekeenez. Bertan, "Automoto", "Peugeot", "Jean Lauvet", "Beccion", "Paneton" eta "Diaman" etxeko txirrinduak ageri ziren batik bat,

eta gutxiago "Echeverría", "Arbay", "Christophe" "Royal Espagne", "Pursan", "A.B.A.", "Elvetia", "Royal Trium" paseatzekoa, "Cicles Roleo. Paris", "Hirondelle", "F.L. Morreau", "Francis Spar", "Morales", "Olimpique", "Robust", "Roleo" eta beste hainbat etxetakoak<sup>134</sup>.

1935ean, segurutik, txirrindu horien jabe batzuek esku hartu zuen irailaren 15ean, goizeko 11etan, egin zen lasterketan, "Espainiako Belozipedo Batasunaren baimenik ez zeukaten hasberrientzat" beren beregi antolatu zen-eta. "Ondizko aldatsaren hasiera, Udondo, Vista-Alegre, errepide berri eta Udondorako lau bideen bidegurutze arteko ibilbideari 15 bira egin, eta Ondizen zuen helmuga -azken biran izen horretako aldatsa igo behar zuten eta." Ahalegin fisiko ikaragarria egin behar izan zuten lasterkariek.

### **Autoak eta motozikletak**

Mende hasieran, ia ez zen beribilik ikusten Leioan. Bide eta errepideetan halako "tramankulurik" ikusteko ekandurik ez zegoenez, Parisetik etorrita Gasteiza bidean 60 autok igaro behar zutela-eta, Bizkaiko aldundiko lehendakariak hainbat gomendio eman zituen, hala nola, "aipatutako egunean ez dadila gurdirik edo osterantzeko ibilgailurik utz udalerriko bide bazterretan; horien gidariei eta oinezkoei jakinaraz dakiela zein ibilbide egingo duten, beharrezko neurriak har ditzaten; eta agintaritza horren mendekoak kontu handiz ibil daitezela errepidean, batik bat umeak, edozein arduragabekeria tamalgarririk gerta ez dadin, eta bidaiariei norabidea adierazteko jarritako seinaleak jagon daitezela, desager ez daitezela." Berria gehiago zabaltzeko, ediktuak jarri ziren herriko hainbat lekutan, eta trafiko-nahaste hori zuzendu behar zuten hiru udaltzainei argibide xeheak eman zitzaizkien. Alkateak, bere aldetik, eskatu zien "guraso guztiei umeak ondoan edo etxean edukitzen ahalegin zitezela, aipatutako beribilak alde hartatik (Bilbotik Areetako errepidea) igaro behar zuten orduan"<sup>135</sup>.

1908an, Ford T beribila ekoizten hasi zen EEBBetan, eta sasoi hartan kate-ekoizpenari ekin zitzaion lehen aldiz.

Herritarrak oinez ibiltzen zirela eta astoek edo zaldiek eroaten zituzten gurdiak (1928an baserri guztietan bazeuden hainbat mota eta edukitakoak-3000 eta 2.500 kilo bitartekoak-) eta txirrinduak garraibide erabilienak zirela kontuan izanda, gero eta beribil eta motozikleta gehiago erabiltzen hasi ziren.

1928an, Leioan auto bi baino ez zeuden: Robustiano Eguíaren Renault 6 zaldiko 4 zilindrokoa, 6181 matrikulakoa - jabea Maximo Agirre kaleko 1. atarian bizi zen- eta beste beribil bat, iragarki moduko azalpen xehe-xehe hau zeukana:

"Delage" autoa, 6258 matrikuladuna, Guillermo Ormaetxea jauna du jabe. Honako ezaugarriak dauzka: 13,7 HPko potentzia, 75x120 mm-ko 4 zilindro, magnetoz isiotua, gasolina, 4 abiadura, 4 igurzte-galga, metalezko gurrpilak, 780x150eko pneumatikoak, 50 litroko tanga, 1.200 kilo, 40 km/h-ko batez besteko abiadura (...)" .136

Jakina, zenbat eta ahalmen ekonomiko handiagoa, hainbat eta aukera gehiago autoa erosteko, luxuzko salgaitzat jotzen ziren eta. 1929an, Luis Victoria Etxebarriak bigarren mailako Delaunay auto bat zeukan, 16 zaldikoa, eta Guillermo Ormaetxea y Endemañok "De Soto" etxeko bat, 18 zaldikoa, eta beste bat "Avión" etxekoa, 17 zaldiduna. Trianoko markesak 8 zaldiko Hispano Suiza auto bat, etxe bereko beste bi 32 zaldikoa, 12 zaldiko Renault bat, 48ko Rolls Royce eta 12ko Morris Oxford bat zituen Artatzako bere jauregian.

Salgaiak garraiatzeko, kamionetak hasi ziren gurdi motelen lekua hartzen, eta errepide eta bideez zarata berriak jabetu ziren. Gainera, kontu handiagoz zeharkatu behar ziren. 1928an EEBBetako kamioneta bi zeuden: bata Bulcan etxekoa eta bestea 4 gurpil haizedunekoa. 1929an, Leioako ibilgailu kopurua handitu zen, Francisco Ercilla Mauriren (Artatza, 24) "Fiat" etxeko kamioneta erosi zuen eta. Honako ezaugarriak zituen furgonetak: 25 zaldi, 32x6ko airezko bandajeak, 50 litroko gasolina-tanga eta 2000 kg garraiatzeko ahalmena.

Abiada bizian ibiltzeko jorana zela-eta, 1928an dirutxoa zeukaten herritar batzuek motozikletak erosi zituzten, hala nola, Hipólito Ugarte Villalabeitiak (Maximo Agirre, 5) erosi zuen 2,5 zaldiko Douglas motorra, edo Patricio Alejandrek (Erribera, 10) erositako 7 zaldiko sidekardun Harley Davison motorra; Tomás Ugarte Goyenagak eta José Asúa Sarriak (biak Lamiakoko Maximo Agirre kalean bizi ziren) motor bera erosi zuten baina sidekar barik. Itxura batez, Douglas motorra boladan zegoen, ezen hurrengo urtean Peruriko Manuel Bada Mollidak eta Hipólito Ugartek (Maximo Agirren bizi zen) halako bana erosi zuten.

### **Hegazkin erakustaldiak**

Badakigunez, Lamiakon hegazkin pista egon zen, eta zaletasun hori zabalduz joan zen, XX. mendeak aurrera egin ahala. 1923ko uztailaren 26an, Export. Orte y Cía hegazkin konpainiak dirulaguntza eskatu zuen, ibaiertzetan eta Abrako hondartzetan hegazkinaren aste bat antolatzeko: "ekitaldiek, bitxi-bitxiak direla-eta, kanpotar ugari erakarri behar dute, eta bertan uda ematen dutenei oso jakingarri gertatu behar zaizkie. Baina Espainian honelako ikuskizunak ezagunak ez direnez gero, ikaragarri garestiak suertatzen dira".

### **Ehiza eta arrantza**

Leioan ehiza eta arrantzarekiko zaletasun handia zegoen. Ume askok igeri, olgetan eta arrantza egiten zuten itsasadarrean, baita heldu askok ere. Espezie batzuk desagertu ez zitezen -besteak beste, ostrak-, 1854an gobernuak debekatu zuen hazbete eta erdiko diametrok ere ez zeukatenak, eta mende hasierak ostrak saltzea ere galarazi zuen, osasunerako kaltegarriak zirela eta.

Ehizari dagokionez, udalak postaz jasotzen zituen debekaldiari buruzko aginduak (martxoaren 1etik abuztuaren 31ra) eta gaiari buruzko xedapenak. Alabaina, baimenik gabeko ehiztariek, batzuetan,

hautsi egiten zituzten arau horiek guztiak. Ordainetan, 1928an, Leioako elizateko Animalia eta Landareak Babesteko Herriko Patronatua eratu zen.

### **Ur-kirolak: estropadak eta igeriketa**

Irakurleari irudikatzen gaitza gertatuko zaion arren, 1895ean, Bilboko portuko kapitaintzak baimena eskatu zuen Gobela ibaian estropadak egiteko irailaren 15 eta 22an<sup>137</sup>. 20ko hamarkadan, Abrako eta irailean Donostian egiten ziren estropadek itzal handia zeukaten.

Herriko jaiak-eta ospatzen zirenean (batik bat, Udondo eta Lamiakon), normalean itsasadarra jaun eta jabe izaten zen. 1920an, Andra Marien hurrengo asteburuan, igeriketa lehiaketa bat egin zen, eta beira-fabrikak baimena eman zuen bere nasa erabiltzeko "domekan itsasadarrean egiteko den ospakizuna dela-eta, baldin eta herriko agintariak, Jai Batzordea eta igerilariak baino ez badira sartzen; izan ere, jende gehiago sartuz gero, istripurik gerta liteke"<sup>138</sup>.

### **Tiroa**

1892ko ekainean, gobernadore zibilak "Usakume-tiroko" elkartearen araudia onartu zuen, eta hala, ofizialki, eratutzat jo zen. 1927ko abuztuan lehendakariak aditzera eman zuen abuztuaren 31n eta irailaren 1 eta 4an tiraldi bereziak egingo zirela.

1903an, Felipe Lasernak baimena eskatu zion gobernadoreari balezta-tiroan jarduteko gunea antolatzeke, eta hark eman egin zion, jokabide zuzena zeukala-eta. Alkateak aukeratu behar zuen lekua, baina geroztik ez zen halakorik inoiz aipatu.

### **Herri kirolak: pilota eta idi-probak**

José Luis Iriartek dioen legez, euskal herri-kirolak "eguneroko lan gogorraren (...) ordain goratua dira"<sup>141</sup>; baserrian egin behar izaten ziren zeregin guztien erakusgarri ziren, eta, batzuetan, lehiakortasuna eta hobea izateko era etxekoen ospari eusteko guraria azaleratzen zuten. Leioan, pilota eta idi-probak nabarmendu ziren.

1910 inguruan, badirudi udalaren frontoian pilotan jokatzeko zela eta "lehen jolas soil, herrikoi eta bertokotzat jotzen zena eta gizarte eta erlijio ospakizunak alaitzeko erabiltzen zena -etxeko giro barnekoa areagotze zuen-eta-" nabarmen endekatuta zegoela. Izan ere, "abeslari edo toreatzaile lanbideen gisa, diruz erosi eta kontratatzen dira (...) eta, beraz, trinketak jokoan aritzeko zulo nazkagarri bihurtu dira, eta etxeko askotako ogia malkoz garratzen dute"<sup>140</sup>. Badakigu leioaztar batzuk pilotari ezagunak izan zirena, hala nola, Luis Basáñez, Felipe Etxebarria eta S. Gorocica, baina 1926ko jaietan jokaturiko partidu baten aipua besterik ez dugu aurkitu.

Agintari zibilek eta elizakoek jarritako eragozpenak eta debekuak ezarri arren, idi-probak, Euskal Herriko kirol motarik zaharren eta zabalduenetarikoa, gizon eta animalia-aren arteko uztarduraren erakusgarri dira, mendeetan baserriko ekonomiaren oinarri izan da eta.

1900 inguruan, Getxo, Loiu, Berango, Plentzia eta Laukizen idi-proba asko antolatzen ziren, eta horien osagarri bertsolaritza saioak egiten ziren. Horien berri emateko afixak paratzen ziren.

1900ko urrian, gobernadore zibilak baimena eman zuen, lehen aldiz, idi-probak antolatu ahal izan zitezkeen Udondon. Egun horretatik aurrera, nahiko sarritan antolatzen ziren halako probak. 1930ko urrian, Alfontso XIII.a kalean (1932an Sabin Arana izena hartu zuen) eta Kandelazubietatik Bidekurtzerako errepidearen zati batean egin ziren probok.

Udondoko probak egiten hasi baino lehen, San Bartolome larrean antolatzen ziren, eta ospe handia zeukaten eskualde osoan, bai parte-hartzaileen kalitateagatik, bai banatzen ziren sarien muntagatik. Idi-probak antolatzeko, gobernadore zibilaren baimena lortzea ezinbesteko zen, eta hark, gobernadoreak, behin eta berriro esaten zuen probak "airea zabalean eta sarrerarik kobratu barik egin behar zirela, eta animaliak xaxatzeko aldarri egitea baino ez zegoela, animaliak kinatu eta, hainbat gutxiago, horiek gaizki tratatu barik. Gainera, akuiluak erabiltzea eta postura egitea debekatuta zeuden". Egun horietan, goizeko hamaikak inguruan, eta betiere meza entzun eta gero, bikoteak zozkatzen ziren.

1930an, San Joan jaiak zirela-eta, Elexaldeko larrean edo José Ramón de Aketxe jaunaren plazan egin ziren idi-probak, eliza ondoko errepide zati baten, eta horretarako baimena eskatu behar izan zen. Parte-hartzaileek (Mauricio Sarria, Venancio Aurrekoetxea, Emeterio Mota, Francisco Alzaga eta Pedro Aranak -30ko hamarkadako probalaririk itzaltsuenek- eta Román Atxalandabaso, José Azkue, Luis Llona eta Toribio Gana leioaztarrek) 10 pezeta ordaindu behar izan zuten izena emateko. Proba bakoitzak 40 minutu iraun zuen, eta 15 minutu gehiago eman ziren, uztarri apurtuz gero, eta beste 15, kateak hausten bazen. Mauricio Sarriak 125 pezetako saria poltsikoratu zuen, haren idi-bikoteak 36 iltze egin zituelako.

Bestela ezin izan eta maiatzaren 15ean San Isidro Nekazariaren jaietan ere idi-probak antolatu ziren. Gerra piztu aurreko urtean, oso sari oparoak egon ziren, eta probak amaituta, erromeria egin zen, txistu eta danbolinaren doinuez alaitua; txapliguak ere bota ziren.

## **KONTSUMOA ETA ELIKADURA**

Hainbat bider esanda gauden legez, baserri askotan abere batzuk (sarritan oraintsu azaldu ditugun proba horietan erabiltzen ere zirenak) eta etxe-koentzako produktuak ereiteko lursail bat, txikia ala handia, zeuzkaten. Baina, biztanleriak gora egin zuenez, emeki-emeki, jateko guztiak baserrian bertan

ekoizteko ahalmena galdu zen, eta azoka eta saltegiatarako jo behar izan zuten, etxean ekoizten ez zena erosteko.

Lamiakon, beste udalerrri batzuetan (Portugaleten, Sestaon...) erosten ziren produktuek fieltro batetik (udal aduana moduko bat) igaro behar zuten, han merkeagoak izaten zirelako, eta beraz kanon bat ordaindu behar izaten zen.

XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako industrializazioak etorkin asko erakarri zituen. Leioako biztanleria ikaragarri handitu zen, eta guztien kontsumo-beharrizanak ase behar ziren. Hortaz, urte gutxitan (batik bat 1880 eta 1905 bitartean<sup>142</sup>) hainbat motatako 19 saltegi ireki ziren La Delta, Erribera eta Udondon. Langile heldu berriek ostatua behar zutela-eta, leioaztar batzuek ostatu bihurtu zituzten euren etxeak. Nekazari batzuek, negozioetarako sen ona zutela-eta, lanez aldatu zuten; kasurako, 1902an Juan José Basáñez y Zárragak baimena eskatu zuen janari eta edari saltokia irekitzeko Lamiakoko Erribera kaleko 2. atarian. Denetariko lokalak ireki ziren: okela epaitu eta saltzeko denda bat; jateko eta edateko txiribogak; ardo, uxuala eta pattarrak saltzen zituzten biltegiak, janari-dendak, baina, gehienetan, denetarik saltzen zuten jatetxe-taberna-dendak irekitzen ziren.

Oparoaldi ekonomikoaren abaroan irekitzen ari ziren negozio berri horiek kontrolatzeko, eta gehiegikeriarik gerta ez zedin, erabiltzen ziren pisu eta neurriak zorrotz ikuskatu behar ziren<sup>143</sup>. 1876tik aurrera, sistema metriko hamartarra erabiltzen hasi zen, eta udaletxe guztietan neurri berrien ereduak zituen tiradera jaso zen. Tiradera horretan, gauza benetan bitxi eta berri-berriak zeuden, hala nola, kate itxurako burdinazko dekametro bat, 9 zenbatze-domina eta 10 orratz lokabe zituena. Udalak egin behar zituen aldiaren behin ikuskapenak, baina, horrez gain, lantzean behin probintziako balantza-orratzen ikuskatzaileak ere aztertzen zituen saltoki guztiak, dena zuzen zegoela egiaztatzeko. 40ko hamarkadan, oraindino antzinako neurriak erabiltzen ziren: pitxerra (4 pinterdi edo 2 litro), kopa (pinterdiaren laurdena) eta laurdena (460 gramoko antzinako liburen laurdena).

1928 eta 1931 bitartean eginiko estatistiken arabera<sup>144</sup>, hainbat lekutan egin zitezkeen erosketak: Elexalden denda bi zeuden (Eleuterio Basáñezena eta Petra Beitiarena), 3 Udondon (Santiago Martín, Simón Ayo eta Isidro Lezertuarenak), Aketxen Nekazari Sindikatua eta denda bi zeuden (Secundino Osacarena eta Ruperto Ayorena), beste bat Ondizen (Prudencio Udondo zuen jabe), beste bi Perurin (Serafin Ubedarena eta Leandro Gorostiagarena), baina saltegi gehienak Lamiakon zeuden, biztanleriaren hazkundera han inon baino handiagoa izan zen eta: Kooperatiba bat, zazpi denda, Delta-ren ekonomatzailea -Earle kalean-, beste denda bat eskoletan, beste bat Erriberan eta lau Maximo Agirren. Denak elkarrekin lehian bezeroak -gero eta gehiago ziren- euren gantzetako.

Udondon, horiezaz gain, bazegoen Kooperatiba Katoliko bat, Simón Ayoren etxe eta dendaren aldamenean: beheko solairuan jakiak saltzen ziren, eta hango loja baten ikatza, patatak eta beste eros zitezkeen, eta goiko solairuan kinkila-denda zegoen. Kooperatiban hilean edo astean behin ordaindu behar izaten zen. Orobat, kinkila-dendak, oinetakoak konpontzeko lantegiak, ikatza saltzeko etxolak, bizartegiak eta ile-apaindegiak ireki ziren.

Jaki-dendek hileroko adierazi behar zuten zer produktu zeukaten biltegian, eta bertan denetariko produktuak erosi ahal ziren, kasurako, azukrea, oliba-olio arrunta, olio findua, arroz ñabarra, barbantzuak, indaba zuri, gorri eta ñabarrak, artoa, dilistak, bertoko nahiz atzerriko arrautzak, Asturiaseko nahiz Ingalaterrako ikatza, babak, Islandia eta Eskoziako bakailaoa, giltzurrun patatak, eta pentsurako lastoa. Nekazari Sindikatuan, osterako, artoa, luzerna, babak eta pentsurako lastoa baino ez zegoen. Bertara, zapatuetan joaten zen. 1930an, artean alea ehotzen joaten ziren errota bitara: Bernardo de Villalabeitiak Udondon eta Telesforo Garayk Elexalden zeuzkatenetara, hain zuzen.

Normalean bazkaritarako, indabak, patatak, taloa eta arrautzak -etxean oiloak egon, eta arrautzak saldu behar ez zirenean- jaten ziren, eta domeketan barbantzuak okelarekin. Bijilian, arraina jaten zen, batik bat bakailaoa. 1929an hiltegiaren hildako azien zerrendari esker, badakigu behiki, txahalki, ardiki, ahunzki eta txerriak jaten zena. Askaritan, normalean laranja erdia, ogi puska bat eta, ahal zenetan, txokolate-ontza bat jaten zituzten. Umeak, normalean, ez ziren gose izaten, baina beste gauza batzuk edukitzeko gogoak zuten. Ume gutxi edukiz gero, hobetoxe bizi zitekeen. Gozokiei dagokienez, esan dezagun, gerra piztu baino lehen, fruta azukreztatutak, txokolatea eta tartak izaten zirela gogokoak. Gerra amaiturik, gose urteetan, errazioko pastela nagusitu zen. Egun berezietan -hala nola, Gabonetan-, zer edo zer berezia jaten zen: oilaskoa, eta haren salda, edo untxia. Auzune bakoitzeko zaindariaren jaiak ospatzeko, dirurik egonez gero, artxo bat erosi, eta auzo guztiek jaten zuten.

Erretzeko ekandua zabalduz joan zen, eta estankoetan, seiluak eta gauzaki zigilatuez gain, tabakoak saltzen hasi ziren. Hasieran, Ogasun Eskuordetzaren mendean zeuden estankoak, baina, XX. mendearen hasieran, Zuricalday Echevarría y Cía Tabakoak Errentatzeko Konpainiak hartu zuen haren lekua. Hilean hainbat bider, udaleko langileek xehe-xehe miatzen zituzten estankoak. Miaketa horiek direla-eta, badakigu 1900an hiru estanko zeudela (Juan R. Basáñez, Indalecio Aresti eta Gabriel Elorriaga ziren haien jabeak) eta leioaztarrek Chica etxeko zigarroak (puruak) -meheak, arruntak, gogorak eta Farias etxeko goi mailakoak- erretzen zituztela, bai eta goi mailako zigarretak -meheak, labur eta mutur batetik itxiak edo labur irekiak- ere. Puru eta zigarreta mota horiek paketeetan saltzen ziren, baina tabako-orririk ere saltzen zen erretzaileek eurek bil zituzten euren zigarretak; horretarako, Virginia tabako-orri eskutadak erabiltzen zituzten<sup>145</sup>.

## **JANTZIAK**

Emakumeek askotan euren jantziak josten zituzten (izan ere, eskolan zelan josi irakasten zen), eta elizara sartzean mantelina bat eroan behar zuten buruan, eta gizonek jaka eta gorbata. Arropa apurtzen zenean, edozein oihaletako txaplatak jartzen zitzaizkion. Kooperatibez eta kinkila-dendez gain, baserririk baserri, fardel handi-handi bat zeroatela, zebiltzan "kinkila-saltzaileek" jantziak-eta saltzen zituzten. Normalean, jantziak apurtu arte edo adabakiz bete-beterik egon arte erabiltzen zen arropa. Premia gorriko garaietan, azukre-zaku mehe batzuk tindatu, eta gonak egiteko erabiltzen ziren. Jakina, jantzirik dotoreenak ospakizun handietarako gordetzen ziren.

## **LEIOAZTARREN BIZITZAKO GERTAKIZUN GARRANTZITSUAK**

### **Bataioak, jaunartzeak, ezkontzak eta hiletak**

Jaun-hartzea San Joan elizan egiten zen. Neskak zuriz edo kolorez jantzita joaten ziren, eta mutilek marinel edo almirante jantzia eroaten zuten. Etxean zenbat diru zegoen, jantziak amak edo senitarteko batek egiten zituen, edo jostun bati agintzen zitzaion. Meza amaiturik, umeei opiltxo bat eta txokolatea banatzen zitzairen, eta inoiz Jesus Bihotzaren margolantxo bat opari eman ere bai. Ondoren, normalean argazki bat egiten zitzairen. batzuk inguruko bazter batera edo Pinuetara joaten ziren senitartekoren baten kameraz argazkiak egiteko, eta beste batzuk argazki-denda batera joaten ziren, besteak beste, Cañadak Areetan zeukanera. Argazkiak egin eta gero, bazkari lege bat egin ohi zen etxean edo senitarteko batenean, askotan umeen izeko ezkonbakoenean.

Gutxienik XIX. mendearen erdialde arte, eta batik bat gizarte maila ertainetan, ezkontza, nagusiki, hitzarmen ekonomikoa zen. Ezkontzak modu apalean ospatzen ziren, senitarteko eta bizilagunentzako bazkari batean. Gonbitaren ondoren, ezkonberriak eztei-bidaian joaten ziren. 30 eta 40ko hamarkadan, leioaztar asko Donostiara joan zen ezkonberritan. Bestetzueta, apur bat asagoago bizi zen senitarteko baten abegi onari esker, diru polita aurrezten zen, bidai amaituta familiaren mantenurako oso baliagarri izango zen dirua.

Oraintsu arte, heriotzak askoz leku handiagoa zeukan Leioako bizitzan. Inor hiltzen zenean, kanpaiek jakinarazten zioten herri osoari, eta kanpaiek zelan jo, herritarrek bazekiten hildakoa umea ala nagusia zen. Hildakoaren etxean eginiko beilaren ondoren, hilkutxa sorbaldetan eroaten zuten elizaraino.

Hileta gehienak elizak egiten zituen, baina, 1912ko irailaren 1ean, Juan Mandaluniz udaltzainak jakinarazi zion alkateari ezen arrastiko lau eta erdietan modu zibilean lurperatu zutela 22 hileko ume bat, Horacio, Alfonso Araluze eta Felipa Gallastegi Leioako herritarren semea<sup>146</sup>. Ideia sozialistak zabaltzeaz batera, sozialista askok elizatik bereiztea erabaki zuen.

Hildakoenganako begirunea hain zen handia, ezen 1924an domeketan Ondizen egiten zen erronomia lekuz aldatu zen Villalabeitiatar baten aldeko segizioaren ibilbidea ez eragozteko.

## **LEIOAKO JAIK GERRA AURREAN**

### **Elizateko jaiak**

Leioako jaiak maiatza eta iraila bitartean ospatzen ziren, eta jendea haiek noiz helduko egoten zen. Udalak, haien arrakastaren jakitun, urterik urtera gero eta erakargarriagoak egiten ahalegindu zen, eta albait publizitaterik handiena egiten, afixak jarritz, eskuko egitarauak banatuz edo iragarkiak ipiniz tranbietan edo egunkarietan (El Noticiero Bilbaínon, kasurako), hala albait jende gehien erakartzeko; baina segurtasuna ez zen zokoratzen, eta miñoiek eta udaltzainek horren ardura hartzen zuten.

1903an, Ondiz eta Lamiakoko jaietara horrenbesteko jendetza etortzeko ei zela-eta Enrique de Líbano y Aretxabaleta alkate jaunak Bilbo-Areeta trenbideko zuzendariari eskatu zion "goizeko 9etako trenak eta arrastiko 3etatik 8etarako tren guztiak geldi daitezela Leioako geraleku zaharrear, alegia foot ball partiduak jokatzaren diren egunetan gelditzen den leku berean".

### **Jai batzordea**

1935a arte, udalak egiten zituen jai-egitarauak, eta ikuskizunak ere antolatzen zituen, udal aurrekontuetako diruaz eta enpresa nagusien nahiz familia garrantzitsuenen dohaintzez. Baina urte horretan, Kirol Elkarteari agindu zitzaion egitaraua prestatzeko, "herri hau aupatu eta ikaragarri maite duenez (...) egitarau erakargarri taxutzen asmatuko du (...) bai lorturiko azken garaipenagatik bai jendearen, ume nahiz nagusien, ikuskizun-gura arruntak gogobetetzen dituzten ekitaldi egokiak txukun antolatzeagatik". 1936an, Jai Batzordea apirilean hasi zen batzen, jai egitaraua taxutzeko. Lehenengo, aurrekontuak eta ordutegiak kalkulatzaren, eta musika taldeekin (Labe Garaiko, Erandioko eta Barakaldokoekin, Bilboko Talde Filarmonikoarekin eta Bilboko Particular-ekin...) eta piroteknia batzuekin harremanetan jartzen hasi ziren, baina gerra pizteak eten egin lan hori.

Egutegia:

San Isidro Nekazaria, Ondizen (maiatzaren 15ean)

30ko hamarkadan hasi zen ospatzen. 1935-1936an, idi-probak eta erromeria -musika bandarekin, txistu eta danbolinarekin eta txapliguekin-. Jai honen ondoren, Lamiakon San Maximo ospatzen zen (maiatzaren 29an) eta Elexalden Gorpuzti eguna (ekainaren 11n).

San Joan eguna (ekainaren 24an)

1910ko hamarkadaren erdialdean, herriko jairik garrantzitsuenak ospatzeko, mezan abesbatza batek abesten zuen, organoa lagun zuela. 20ko hamarkadaren amaieran, hurrengo domekan jai berriro ospatzen zen Elexalden, eta Leioako Kirol Elkarateak hainbat kirol ekitaldi antolatzen zituen.

Santimami (abuztuaren 17an)

Lehenengo albistea 1898koa da, baina 1935a arte ez dugu jai honen berririk izan. Urte hartan, herrialdeko jota-dantzarien lehiaketa, gitarra eta bandurria lagun, bertsolari lehiaketa bat, erromeria -txistu eta danbolinarekin- eta esku-soinu taldeen emanaldia antolatu ziren, gaueko 8ak arte.

San Bartolome (abuztuaren 24an)

Aurkitu dugun lehenengo aipua 1898koa da. 30ko hamarkadan, aurrekulari eta jota-dantzarien lehiaketak antolatzen ziren, eta erromeria. Musika bandekin, txistu eta danbolinarekin eta esku-soinu emanaldiak egiten ziren, baina idi-probek erakartzen zuten jende gehien. Idi-probetan -moralisten eta animaliak babestu beharraz jabetu ziren lehen aurrendari haien jomuga izan ziren-, postura egitea eta idiak akuilatzea debekatuta zegoen.

Andra Mari eta Andramaritxu, Ondizen (irailaren 8 eta 9an)

Hauek ziren, San Joan egunarekin batera, jairik ezagunenak eta erakargarrienak.

Mende hasieran honela ospatzen ziren: irailaren 8an, goizeko 9etan, San Joan elizatik prozesioan ateratzen zen, bandera aurretik zihoala eta musika lagun. Goizeko 10etan, Ondizko baselizara heltzen zen, eta bertan meza nagusia esaten zuen abadeak, eta Ama Birjinaren aldeko panegirikoa irakurtzen zuen. Meza amaituta, larrean, asto-lasterketak, zakuetan sarturiko gizonen lasterketak edo aurrekulari lehiaketak egiten ziren. Arrastian, erromeria egiten zen, eta musika-bandak eta danbolin-joleek jotzen zuten berariaz eraikitako egurrezko kiosko batean. Hilaren 9an, goizeko 6etan, diana jotzen zuten musika-bandak eta danbolin-joleek, eta, goizeko 10ak jo baino lehentxeago, ezpata-dantzariak arku bat osatzen zuten baselizaren atean, gero kanta-meza egiten zen. Ondoren, zantzolari (irrintzilari) lehiaketa, oilaskoen jokoa, dantza erakustaldia -gitarra lagun edo bikoteka "Euskal Herrian moduan"- eta Donibane-zuhaitzaren lehiaketa egiten ziren, ondoren sariak banatzen ziren, baita ondoen apaindutako saltokiei. Amaieran, erromeria egiten zen.

30ko hamarkadan, ospakizunak antzekoak izaten ziren, baina berrikuntza batzuk sartu ziren, hala nola, zartagin grekoa ume-jolasa, cross-country lasterketak, e.a. Ia jai guztietan antolatzen ziren jota-dantzarien lehiaketek ere harrera ona izan zuten.

1935ean, jaiak are distira handiagoa izan zuten: hilaren 8an, erromeriarako kontrataturiko musika banda kalejiran joan zen Maximo Agirre kaletik, Eskoletara eta handik Udondora eta, ondoren Ondizeraino. Eta meza amaituta, Galdakaoko Udal Bandak eta Bilboko Zabalguneko Abesbatzak (50 lagunek osatzen zuen) emanaldi bat egin zuten; 11:00etatik 14:00etara, Sestaoko Udal Bandak eta Portugaleteko abesbatzaren Danok Bat zortzikoteak euren emanaldiak egin zituzten, txandaka (kontu hau lehen aldiz telefonoz hitzartu zen, eta ez gutunez, ordura arte egiten zen legez). Txirindulari lasterketa bat, ume krosa eta Donibane-zuhaitzaren lehiaketa ere -Earle enpresak utzitako tantai batez- egin ziren.

Udondo (irailaren 10 eta 11n).

Normalean, irailaren 10ean idi-probak egiten ziren Udondon, eta, bide batez, erromeria egiten zen. Denboragarrean, jaiari tankera eman zitzaion eta San Nikolas Tolentinokoaren omenez ospatzen hasi zen. Hilaren 11n, musika-banda eta danbolin-joleak diana jotzen hasi ziren; ondoren, Ondizen meza, aurrekulari lehiaketa; arrastiz, erromeriara, eta gaueko 9etatik 10etara su festa. 1935ean, sokatira, sopa-boba eta zaku-lasterketak antolatzen ziren.

Andra Mari ondoko domeka, Ondizen (irailaren 15ean)

1865ean, probintziako gobernuak baimena mena zuen Ama Birjina Erremedioetakoaren egunean Ondizko larrean egiten zen erromeria hurrengo domekan berriro antola zedin urtero. 1901ean, 10etako meza amaituta, aurrekulari txapelketa egiten zen -gizon eta emakumeena-, eta, arrastiz, erromeria, musika-banda eta danbolin-joleak lagun. 20 eta 30ko hamarkadetan, meza amaitutakoan, soka-tiran egiten zen. Hurrengo jaiak Lamiakoko Delta auzunekoak zen (irailaren 19an); jai hori 1936a ezkerreko ageri da egitarauetan.

Lamiako (irailaren 21ean)

"San Otzaragile" izeneko jaiak XX. mende hasieran hasi zen ospatzen (1904ko jai egitarau baten haren lehen aipua ageri da: "Erromeria Lamiakon, herriak "San Otzaragile" diotsona). Itxura batez, Ondizen irailaren 20an egin zen erromeria amaituta, bertan bildutakoak, eskutik helduta, dantzari jaitzi zien, txistu eta danbolinaren doinuak lagun, Txopoetaraino, eta han txitxiparran jarraitu zuten. Dantza gehien egin zutenetarikoa Lamiakoko hondartzako baserrietako baten bizi zen otzaragilea izan zen. Hurrengo urtean ere jaiak horrela egin zenez, jende gehiago batu zen hara, eta otzaragilea, atzera ere, besteren artean nagusitu zenez gero, norbaitek esan zuen San Otzaragileren jaiak zela. Beste batzuek diotenez, otzaragile hiltzean, bost ogerleko utzi zituela jaiak egiten jarraitzeko. Otzaragilea zenduta, San Frantzisko Asiskoaren omenez egiten hasi zen.

1901ean, Ondizen meza entzunda, denak jaitzi ziren eskolen plazara, eta bertan hainbat joko egin ziren, hala nola "presku jana". Arrastiko lehen orduetan, Donibane-zuhaitzaren lehiaketa egiten zen, eta ahatearen ihesaldia itsasadarrean, beira fabrikaren ondoan. Gero erromeria egiten zen, eta gauean, 10etatik 12etara, plazan bertan, dantzaldia, foku elektrikoez argizatua. 1904an, jaiak hasiera iragartzeko, bonbak eta txapliguak jaurti ziren, eta gaita-joleak, danbolin-joleak eta musika-banda batek diana jo zuten. Arrastiko egitaraua hiru urte arinagokoaren antzekoa zen, baina, gauean, su festa ere antolatu zen. 1926an, aipatutakoez gain, umeentzako hiru joko ere egin ziren: "gozo-eltzearena": "eltzea dingilizkatzen zen, eta 6 mutiko, makilak eskuan eta begiak estalita, puskatzen ahalegintzen ziren"; itsumandoka eta sagarren jokoak. Hori guztiori, gerra hasi baino apur bat arinago Pablo Iglesias izena hartuko zuen plazan. Sasoi hartan, gaueko dantzaldia beira fabrikaren ondora eroan zen, eta, 1935an, honako hauek egin ziren: danborrada, antzinako jantziak soinean eta zuziak eskuan (guztiak Portugaletek maileguan utziak), nasa-puntakoa (tantaia ere portugaletarrena zen), "itsas borrokaldi

handia edo gondolariaren heriotza, baina treska txikietan", xingola-lasterketa (leioaztarrentzat bakarrik), 4 pezetako jantzien lehiaketa eta su festa.

Herriko azken jaiak San Migelekoak ziren Txopoetan (irailaren 29an). Bestela ere, Gabonak eta Aste Santua ere ospatzen ziren, eta Lamiakon pasioaren antzezpenak egiten ziren, eta prozesioak; halakoetan, San Joan, Doloretako Ama Birjina eta Nazaretoko Jesusen irudiak eroaten ziren kaleetan.

Herriko jaietara joatez gain, Santimamikoetara (bertan, asto-lasterketak eta xingolako txirrindulari-lasterketak egiten ziren, gainera auzoek emaniko sariak banatzen ziren), Astrabuduako San Lorentzora, Goierriko San Kristobalera eta beste batzuetara ere joaten ziren leioaztarrak.

XX. mendearen hasieran, Bilboko Jai Batzordeak ospakizun batzuk egin gura izan zituen Bilbotik kanpo, baina eskaerak aparteko harrerarik izan ez zuenez gero, Lamiakoko football txapelketak baino ez zituzten antolatu, ordura arte egin bezala.

Jaietako ekitaldi nagusiak:

Dantza

Dantza, menturaz, herriko jaietako ekitaldirik arrakastatsuena zen. Hala, Leioa inguruko herrietan -hala nola, Erandio, Areeta, Berango<sup>148</sup>, Portugaleta eta Asuan-, gehienbat udan, antolatzen ziren erronomia eta gaueko dantzaldien zain ez egotearren, astean dantzaldi bat antolatzen zen, eta hara leioaztar gazte asko batzen ziren, bai eta beste herri batzuetako gazteak ere. Dantzaldia egin behar zen lekura oinez joan eta gero, dantzaldi horietan (gehienetan, txistu, danbolina eta esku-soinuaz porrusalda eta arin-arinak jotzen ziren, eta musika-banda batek dantza egiteko doinuak) musika-tresnen doinuaren abaroan, eta denboragarrenean bozgoragailuenean, aldarerako bidea hartu zuten bikote asko sortu ziren. Izan ere, garai hartan, aisialdia oso urria zen, eta, beraz, estimu handian hartzen zuten. Hala, dantzaldia ia aukera bakarra zen auzo edo bizilagun ez ziren beste pertsona batzuen ezaupidea egiteko. Dantzaldira baino arinago, mutil koadrila askok askaldu, txikito batzuk edan eta kartetan jarduten zuten. Batzuetan horiek guztiek luze jotzen zuten, eta kontuan sartzen zirenerako, dantzaldia amaituta zegoen, eta neskekin dantza egin edo horiek ezagutzeko aukera alfer galdua.

1908an, Sestaoko musika-banda partikularraren zuzendariak domeka guztietan Lamiakoko eskoletako plazan bere hamabi musikaririk jotzea proposatu zuen, honakoak argudiatuak: "Domekako Atsedenaldiaren Legeak hartu ez dituen herrietako bat da Leioa, eta domeketan gazte jende asko ibiltzen denez dibertitzeko eta lokalak irekita dituen leku baten bila, nire ustez herriarentzat nahiz bandarentzat onuragarria izan liteke". Urtaroa zela-eta, dantzaldiak aire zabalean ezin antola zitezkeenean, leku estalietan egiten ziren. 1923an, Camilo López García baimena eskatu zuen, azaroaren 18an, domekan, gaueko 9etatik 11etara doako areto-dantzaldia, soka-orkestra bat lagun, antolatzeko bere lokalaren behealdean. Horrenbeste arrakasta izan zuen, ezen azkenik domeka eta

jaiegun guztietan antolatu zen arrastiko 8etatik gaueko 11etara<sup>149</sup>. Eguraldi onarekin batera, gaueko dantzaldiak aire zabalean egiten ziren. 1926an, kasurako, Deltako gazte batzuek, "atsegin apur bat hartzeko", baimena eskatu zioten alkateari, bederatzietatik hamaiketara piano biraderadunaz eta danbolinaz erromeria antolatzeko. Alkateak baimena eman zuen, honela: "auzune horretako auzo eta gazteei beti izan diedan begirune eta on-iritzia dela eta, seguru nago bakea nahasten duten gustu txarreko liskar eta katramila oro baztertuko dutena".

Musika:

Txistu eta danbolina

Atabal-jolearen lana oso garrantzitsua zen, elizatean antolatzen zen edozein ekitaldi garrantzitsutarako dei egiten zioten eta. Hala bada, udal askotan danbolin-jole lanpostua zegoen, eta asko hura euren ganatu guran zebiltzan. 1894tik 1899ra, hainbat pertsonak eskatu zuen lan hori, harik eta, urte horretako abenduan, lehiaketarako deialdia egin zen artean. Horretarako, ohiko afixak jarri ziren ageriko lekuetan, El Noticiero Bilbaíno eta El Nervión egunkarietan ere iragarkiak jarri ziren. eskabide bi baino ez ziren aurkeztu, eta, azkenik, Portugaleteko Tomas Galarza aukeratu zuten, "txistua jotzeko moduagatik eta jo zituen doinuen harmonia onagatik". Horrenbeste danbolin-jole eskatzen zen, ezen 1900an soldata igotzeko eskatu zuen, baita onartu ere, jakina. 1902an, musika-banda batek girotu behar izan zuen Gorpuzti eguna, udaltzaingoak ere ezin izan zuelako aurkitu danbolin-jolea. Halakorik ostera ere ez gertatzeko, ekainean oposizio baterako deialdia egin zen, eta plaza betetzeko baldintzak ezarri ziren (Lehena, urteko soldata 547,50 pezetako izango da 4 urtetan, baina egunero 25 zentimo utzi beharko dira, kontratua betetzen dela bermatzeko; bigarrena, zortzi erromeriatan, "goizeko ordu egoki batean hasita, jaiegun guztietan arrastian -ordu bietatik aurrera neguan eta hiruetatik aurrera udan- eta oharkabean sortzen den edozein ekitalditan" jo beharra; eta hirugarrena, atabal-jole ona lortzea, berari lagun egiteko San Joan, Santimami eta San Bartolome egunetan). Ondoren epaimahaia osatu zen, honakoek osatuta: Rogaciano Azuaga jauna, Bilboko danbolin-jole nagusia, José Crespo jauna, Barakaldoko "La Lira" bandaren zuzendaria, eta Pedro Crespo, solfeo eta kantu irakaslea. Izangaiak honakoak izan ziren: Domingo Arrieta y Garay, Mungiakoa, Tomás Ibarzabal, Urretxukoa, Fernando Uribe-Etxebarria y Urtueta, Legutiokoa eta Ondarroako danbolin-jole nagusia, Tomás Galarza, Portugaletekoa, eta Primitivo Onrraita, 18 urtekoa eta Barakaldoko seme. Proba ekainaren 21ean goizeko hamarretan egin zen. Teoria ariketak egin zituzten, eta 20 minutuan prestaturiko konposizio bat eta prestatu bagako beste bat jo behar izan zituzten. Primitivo Onrraitak lortu zituen kalifikazio onenak. Bazirudien dena konponduta zegoela, baina lau urte geroago, danbolin-joleak soldadutzara joan behar izan zuen, eta beste oposizio bat antolatu behar izan zen. Soldata aurreko aukeraketak eskainitakoaren halako bi zen, eta hori, zalantza barik, pizgarri izan behar zuen balizko izangaiantzat. Hala eta guztiz ere, horrenbeste danbolin-jole behar zenez gero, Fernando Uribe-Etxebarria baino ez zen aurkeztu, 1902ko oposizioan bigarren gertaturikoa, eta, jakina, harek lortu zuen lanpostua. Hortaz, urte hartan jaiak girotu behar izan zituen, eta udaltzain lanean jardun, goizeko 7etatik gaueko 9ak arte udan, eta

goizeko 8etatik arrastiko 6ak arte neguan. 1907az geroztik, ez zen oposiziorik antolatu, eta nork egin eskaintzarik onena, hark lortzen zuen lanpostua.

### **Musika bandak**

XIX. mendearen amaiera aldetik, makina bat banda sortu zen itsasadarraren alderdi bietan, eta hain eginkizun garrantzitsua eurenganatu zuten jaietan, ezen udalek lehiaketak antolatzen zituzten zien kontratatu erabakitzeko. Lehiaketa horiek lehiakortasun handia sortu zuten banden arten, prezioak ahalik eta gehien murrizten zituztelako eurak kontratatzearen. Horrela, 1895az geroztik, Leioako Udalak eskaintza ugari jaso zituen, eta xehe-xehe aztertzen zituen, merkeena eta kalitate handienekoa aukeratzeko. Bandek edo aurrekontu zehatz-zehatzak eta argudio sinesgarrikoak -"errepertorio berdin bakoa zutela, esatera"- bidaltzen zituzten, edo jaien arduradunarengana jotzen zuten, eta kontzertu bat doan eskainiko zutela berbatzen zioten, haien kalitatea aztertu ahal izan zezan. Bazeuden hainbeste: Erandioko "La Harmonía" eta "Aurrera", Luis Urquidi zuzendari zuela, Barakaldoko "La Lira", Bilboko "Santa Cecilia", Sestaoko musika banda partikularra eta Galdakaoko beste bat. Hainbeste bandaren artean aukera zitekeenez eta lehiakortasuna gero eta sutuagoa zenez, nahiko zen hitzartutako alderdi bat ez betetzea kontratua hutsaltzeko berehalakoan.

1934an, udalak lehiaketa bat antolatu zuen, herriko jai guztietan joko zuen banda kontratatzeko. Bilboko banda partikularra, Bilboko "Lagun-Artian", Erandioko banda bat eta Euskal Musikarien Elkartea -azkenean hautatu zutena- batu ziren bertara, eta albait aurrekonturik doienak aurkeztu zituzten, ezen udal batekin kontratua sinatzeak sarrera finko batzuk bermatzea zekarren, eta musikariak ez zeuden, ez, horretara oso ohituta.

1936an, Bilboko Banda Filarmonikoak bere zerbitzuak eskaini zituen Leioan, José Gainza jauna buru zuela eta "musikari oso jantziek -gehienek irakasle lanbidea dute-eta- osatua (...) eta dantza egiteko konposizioen nahiz kontzerturako lan handien errepertorio hauta eta gaur-gaurkoaren jabe dena". Apirilaren 14a, Espainiako Errepublikaren V. urteurrenaren ospakizuna, laster zela-eta, banda hori kontratatu zuten.

### **Gaita-joleak**

1904ko irailaren 1ean, alkateak Arrasateko gaita-jole buruaren, Benigno de Altuberen, gutuna jaso zuen; bertan, jakinarazten zion, bidaiaren prezioa zela-eta, ezin kobra zezakeela 100 pezeta baino gutxiago, gainera, ostatua eurei ordainduz gero. Gutunak honela amaitzen zuen: "Ezin dut zentimo baten ere merkatu, eta prezioa halakoa da, gure beharra Bizkaian, eta batik bat inguru horretan, ezagutarazteko dudan gogoagatik"<sup>150</sup>.

## **Abesbatzak**

Musika aisialdiari estuki lotuta zegoen, eta beti oso garrantzitsua izan da Leioan, eta egun oraindino hala da. XX. mendearen hasieran, jaietan zantzolari (irrintzi) txapelketak antolatzen ziren, eta diru-sariak banatu. 1929an, "Santa Agatako ohiko bertsoak kantatzen ziren aldraka", eta agintariak ohartarazten zuten "ordena jagon beharra zegoela, eta auzoei enbarazurik ez egin ibilbidean osterantzeko kantak abestuz". Denboragarrenean, hainbat lan eta kultur elkartek euren abesbatzak sortu zituzten.

## **Doinu berriak**

1913an, Erandioko herritar batek baimena eskatu zuen, biraderadun piano jotzeko Ondiz eta San Otzaragileko larreetan, baina uko egin zioten, menturaz orain arte aipaturiko musika mota horiek giroturiko erromeriak eta kalejirak zituela gogokoen herriak.

## **Lehiaketak eta jokoak**

Jaietan, barraskilo txapelketak antolatzen ziren, eta berrikiago itsusi txapelketak. Horietan, Gorin eta Parola ospetsuak gailendu ziren, eta haien imintzioak Leioatik kanpora ere entzuterik izan zuten. Joko eta lehiaketa guztietan sari mamitsuak zeuden, eta horrek parte hartzera bultzatzen zuen jendea.

## **Txosnak**

Leioako tabernariak txosnak ipintzen zituzten jaietan, udalaren berariazko baimena lortuz gero. 1926an, Petra Beitia halako bat paratu zuen San Bartolomek, eta Restituto Fernández, Eleuterio Basáñez eta Eleuterio Mezo beste hiru Ondizko larrean.

## **Su-festak**

1934an, lehiaketa bat antolatu zen, jaietarako txapliguak erosteko. Eta honakoek aurkeztu zituzten aurrekontuak: Gasteizko Casa Lecea-k, Bilboko Pirotecnica Landak, Areatzako Lucio de Astondoa y Sopelanak eta Francisco Portillok -Bilboko "Charterina" etxeokak. Eta denetariko materialak eskaini zuten, hala nola, hiru tiroko txapliguak, bonba soilak, bonba bikoitzak eta argi ikusgarrizko txapliguak. Azkenean, 174 txapligu hegalaria eta 81 bonba erosi ziren jaietarako.

## **APARTEKO JAI AK**

### **Errege-erreginen aldeko ospakizunak**

Herriak ospatu behar zituen errege-erreginen bizitzetako gertakizun garrantzitsuenak. Hori dela-eta, 1880ko urriaren 22, 23 eta 24a jai nazionaleko egunak izendatu zituzten, erresuma jarauntsi behar zuen printzesa jaio zela ospatzeko, eta eraikuntza publikoak argiztatu eta apaindu zituzten; orobat, herritarrei beste horrenbeste egiteko eskatu zitzaizkien. Baina jai egun horiek baino errege-erreginen bisitaldia ikusmin handiagoa sorrarazten zuten; alabaina, jai egun horiek ere pozarren hartuko zirela, segurutik, eguneroko lana etetea zekartelako.

1884an, Alfonso XIII.a etortzekoa zen, baina bisitaldia bertan bera utzi zen, Ekialdean sorturiko kolera-izurritea zela medio. 1887an, erregea etorri egin zen: Probintziako Aldundiak eta Bilboko Udalak batzorde bat eratu zuten, errege familiaren harrera antolatzeko (izan ere, Alfonso XIII.a, haren ama erregeordea -María Cristina- eta haren arrebak -María de las Mercedes Asturiasko printzesa eta María Teresa infanta etortzeko ziren), eta Leioako elizateari dei egin zioten "aipatutako ekitaldiak goratzen eta ikusgarriago egiten laguntzera". Ezer ere ez ahazteko, hainbat bilera egin zuten, eta, azkenean, itsas jai egin eta itsasadarreko alde bietako mendietan su-metak egin ondoren eta hari buru emateko, "Koroarekiko atxikimendu zintzoena eta leialtasunik argiena erakutsi beharra zegoen".

Hiru urte geroago, 1890ko abuztuaren 26an, aldundiak laguntza eskatu zion Leioako Udalari, Ibaizabaleko ontzioletan eraikitako "Infanta María Teresa" gurutze-ontzia uretaratu behar zutela-eta, erregina erregeordea zetorrela ospatzeko.

1900ean, azter etorri ziren errege-erreginak, baina, Alfonso XIII.a koroatu zutela-eta, 1902an eginiko ospakizunak ikusgarrienak izan ziren: itsasadarreara ematen zuten etxeetako balkoi eta zabaltza guztiak apaindu zituzten, eta guztiz argizatuta egon ziren irailaren 4tik 7rako gauetan. Egurrezko egituradun arku bat eta 200 argi baino gehiago ipini zituen beira fabrikak bere nasan, eta bertatik agintariek agur egin zioten erregeari. Hain txundigarria izan zen, ezen aldundiak zorionak eman zizkion Leioa herriari "antolaturiko ekitaldietan emandako laguntza baliotsu eta ausartagatik, eta, batik bat, errege-erregina agurgarriek Jaurerrian egin dituzten gauetan ikusitako argiztapen harrigarri eta artistikoagatik".

### **Gorazarreak**

1902an Alfonso XIII adindun izan, konstituzioa zin egin eta koroa jaso behar zuenez gero, urte bereko maiatzaren 6an udalak batzorde bat eratzea erabaki zuen, "Eduardo Coste jaunarengana joan, eta zorionak emateko, Lamiakoko markes titulua jaso izanagatik". Eduardo Coste y Vildósola, Jacquet y de Labayen jauna Maximo Agirreren suhia zen. Titulua jaso zuela-eta, 1902ko irailaren 18an udalerraren armarrria eman zioten.

Leku berriak sortu ziren, apurka-apurka, eta, udalaren erabakiz, elizateko pertsona garrantzitsuen izenak hartzen zituzten. 1924ko azaroaren 15ean, Elexaldeko plazari 1919an zendutako José Ramón de Aketxe izena jarri zioten. 1925eko martxoaren 16an, Eduardo Earle enpresaburua -Lamiakoko metal fabrikaren jabea- Leioako seme izendatu zuen udalak "bere merezimenduengatik, eta, orobat, oraingo Delta kaleari "Eduardo Earle jaunaren kalea" izena ematea", eta urte bereko uztailearen 15ean, "Ramón Coste Acharen plaza" izena -alegia, Lamiakoko markes izendatu berriaren izena-ematea auzune hartako eskoletako plazari. 1929ko ekainean, Cándido de Arrola y Aketxe herriko seme izendatu zuen udalak; otsailetik, Altamirako eskola berriek haren izena zeukaten, beste egitasmo asko legez eskola horiena ere sustatu zuelako.

Dohaintzak ematea zen gorazarreak egiteko beste modu bat, pertsona garrantzitsuen estatuak ipintzen laguntzeko: Leioak 30 pezeta eman zituen, 1875ean Manuel Gutiérrez de la Concha Dueroko markes eta kapitain nagusiaren omenez eraikitzea erabaki zen estatuaren lanetan laguntzeko. Albia lorategietan egon eta Mariano Benlliure eskulturagileak eginiko Antonio de Truebaren aldeko monumentua eraikitzen ere lagundu zuen. Olerkari horrek hainbat idazlan eskaini zizkion Leioari ("El canto de Lamia" eta "La Labradora de Ondiz", hain zuzen ere, 1851an agitaratutako El Libro de los Cantares-en bilduta), baina udalaren diruzaintzaren egoera txarra zela-eta, 1892tik 1894ra hainbat bider eskatu behar izan zioten Leioako Udalari agindutako 85 pezetako dohaintza ordain zezala.

1900ean, Portugaleteko Udalarik batera dirua eman zuen, Víctor Txabarri y Salazarren aldeko monumentua altxatzeko; izan ere horren semeak, hura ere Víctor Txabarri izenekoak, Artatzako lursaila aukeratu zuen bere jauregia eraikitzeko, elizateko eraikuntzarik nagusia, zalantza izpirik gabe, arkitekturari erreparatzen badiogu.

## **ELIZATEKO GOBERNUAREN JARDUNBIDEA**

XIX. mendearen amaiera arte, ohiturek eta foru erakundeek eginiko xedapenek arautzen zuten eliza. Baina herriko biztanle kopuruak gora egin zuenez gero, udalak hainbat ordenantza plazaratu behar izan zituen, eta ageriko lekuetan horien bandoak paratu, herritar guztiek haren berri izan zezaten. 1892an, Victoriano de Basáñez Arteagabeitia jauna alkate zela, gobernu oneko lehen bandoa promulgatu zuen udalak, honetara:

1. artikulua. Aurrerantzean, guztiz debekatuta egongo dira gauean -hau da, otoitz-kanpaiez geroztik- abestea, dantza egitea eta edozein musika-tresna jotzea elizate honetako tabernetan.
2. artikulua. Halaber, biraoak, berbak lohiak eta irainak esatea debekatuta egongo da, bai eta kortesia eta moralarentzat kaltegarri izan eta herritarrengan ezinegona eta arrangura sorraraz dezaketen edozelako zemaik egitea ere.
3. artikulua. Urriaren 1etik martxoaren 31era tabernak gaueko 9etan itxiko dira, eta hamarretan apirilaren 1etik irailaren 30era. Kafe-etxeek tabernak itxi eta ordu bigarrenean itxi beharko dira. Ordu horiek igarota, galarazita dago familiaz kanpokorik egotea taberna edo kafe-etxeetan.
4. artikulua. Lokal horietako jabeek debekatuta izango dute banka-jokoak edo legez kanpoko beste batzuk antolatze, bai eta karta debekatu edo faltsutuak erabiltzea ere.
5. artikulua. Gisa berean, debekatuta daude gaueko hamarretatik aurrera kalean abestea, zarataka ibiltzea edo herritar baketsuen lasaitasuna urratzea.

6. artikulua. Azkenik, lokal guztietako jabeek debekatuta dituzte edari edo produktu aizundunak edo nahasita daudenak edo osasunerako kaltegarri diren substantziak dituztenak saltzea eta edarietarako legezko ez diren neurriak erabiltzea.

7. artikulua. Nire agintepeko agenteek begiratuko dute araudi honetan jasotzen diren xedapenak betetzen diren. Inork araurik urratuz gero, legozkiokeen isunak ezarriko zaizkio, eta, horrez gain, arau-urratzaileak auzitara eroan litezke, hala behar izanez gero<sup>151</sup>.

Zortzi urte geroago, Pantaleón Aresti alkateak beste bando bat plazaratu zuen, aurrekoa osagarri. Eta bando horrek arau bitxi batzuk erantsi zituen, hala nola, 14. artikuluan jasotakoa:

"Udalerrri honetako etxeetako ate, leiho edo balkoietatik bide publikora urik, sastarrrik edo dinezkoak asalda ditzakeen gauzarik edo nazkagarri nahiz osasungaitz denik jaurtitzen duenari 5 pezetako isuna ezarriko zaio; eta beste horrenbeste jazoko zaio udalerriko moila edo erreka-bazterretan horrelakorik egiten duenari" ;

Hurrengo artikulua ere bitxia da:

"Pertsona guztiei debekatzen zaie pasealekuetan eta ageriko lekuetan gernu egitea edo sabela hustea; eta halakorik egiten duenari -alegia, araua urratzen duenari- pezeta bi eta berrogeita hamar zentimoko isuna ezarriko zaio, eta, isuna ordaintzerik izan ezean, kaudimenik ez edukitzeagatik, gobernua 12 orduz edukiko du atxilo".

Udalak beste makinatxo bat gauza egin behar izaten zituen, eta batzuk nahiko bitxiak ziren, esatera, txakur errolda egitea. 1926an, elizatea ibili zuten udal behargin batzuek eginiko ikerketek honako emaitzak jaso zituzten: Leioan (Elexalde, Sarriena, Santsoena, Santimami, Udondo, Aketxe, Ondiz, Artatza eta Perurin) 342 txakur zeuden, honetara sailkatuta: 137 etxeoak, 16 polizia-txakurrak eta 189 ehiza-txakurrak<sup>152</sup>.

Hazkunde demografikoaz batera, jagon beharreko gaiak gero eta gehiago ziren, eta udala zeregin batzuk beste batzuen esku uzten hasi zen; hala, 1929ko uztailearen 1ean, Bizkaiko Aurrezki Kutxak hartu zuen udal gordailuzaintzaren gobernua.

### **Udalbatzako kideak, udal beharginak eta soldatak**

Hurrengo hauteskundeetarako errolda egin behar zela-eta, 1931ko martxoaren 13an probintziako gobernadore zibilak zera iragarri zuen: "Leioak daukan biztanle kopurua kontuan izanda (1930eko abenduaren 31ko erroldaren arabera, 5.41 biztanle zituen), 12 zinegotzi izan behar zituen: 6 udaletxeko barrutiarenak eta beste horrenbeste Lamiakorenak".

1904ko urtarrilaren 17an, Vicente Bilbo Icaza zinegotziak proposatu zuen ohiko aurrekontuan honako zenbatekoak urtero esleitzea nominetarako: 750 pezeta idazkaritza eta kontu-hartzailentzako; 250 gordailuzaintzako beharginentzat; 45 pezeta, epaitegirako dirulaguntza; 91,25 hiru udaltzainen soldatarako; 50 pezeta arkitektoarentzat; 47,50 danbolin-jolearentzat; 50 San Joan parrokiako organo-joleentzat, eta beste 50 sakristauarentzat. Halaber, albaitariarentzako 250 pezetak eta abokatuarentzako 375 pezetak ezereztatu ziren. Proposamena oso zorrotza izan zen, alde horretatik, eta esaten zuen interesatuak bat etorri ezean beste batzuek beteko zituztela haien lanpostuak.

### **Udal zerbitzuak**

1902an eginiko galdetegiari esker, badakigu zein zerbitzu hartzen zituen bere gain udalak: udal idazkaritza, osasun zerbitzua, ariel kontu-hartzailentza, zalgurdi-ikuskaritza, instrukzio publikoa, udal lanak, gurtza eta kleroa, eta segurtasun-polizia.

### **Zerga-bilketa**

Udal behargin batzuek zelako edo halako arriskua izaten zuten beharrean. Udal arielen buruari (hau da, zerga-biltzaileari) eta Bilboko Compañía Vascongada de Seguros y Reseguros-en kobratzaileari halaxe jazotzen zitzaion, eta, beraz, 1934an udalak lapurreten aurkako aseguruua kontratatu zuen, La Previsión Nacional (La Catalana etxearen filiala), Aurora, La Equitativa, Sun Insurance Office edo La Vasco Navarra aseguru-etxeen eskaintzak azterturik<sup>153</sup>.

### **Segurtasun publikoa**

Udalak ordena eta segurtasuna jagoten zituen herrian, eta arauak hausten zituztenak atxilotu behar zituen. XIX. mendearen erdialdean, udaletxean bertan kartzela txikitxo bat jarri zuten, prebentzio edo udal biltegia izenekoa, eta aparteko aurrekontu bat esleitu zitzaion, alkaideari ordaindu eta preso behartsuak mantentzeko.

Honakoak ziren maizen gertatzen ziren delitu eta hobenak: norbanakoen etxeetan eta tabernetan ostea, jabeei eraso eginda; eta, batik bat, mozkorkeria, eskandalu publikoa, irainak eta borrokaldiak. Bestelako delitu gutxi gertatu arren, "erromerietan eta jaiegunetan antolatzen ziren liskarrak lartxo zirela-eta", 1897ko otsailaren 20ko bilkuran, udalbatzak erabaki zuen miñoi-talde bat ekartzea, eta udaletxean bertan paratu zuten. Emakume eta bertoko nahiz atzerriko beharginen arteko liskarretan esku hartu zuten miñoiek, baita inoiz gaizki atera ere. Ordena publikoak nabarmenki hobera egin, eta suzko armak erodateko baimena zeukan udaltzain batek ere ordena jagoten zuenez<sup>154</sup>, 1902an miñoi taldea kendu zen. 1917an, ostera ere etorri zen miñoi-talde bat, Lamiakoko enpresa nagusien laguntzari esker.

1905ean, Laureano Ugartek eta Eulogio Learrak gauzain, edo gaueko jagole, lana egiten zuten Lamiakon.

1844ko martxoan, nazio-miliziak, 1808an sortutakoak, desagertu, eta haien ordean indar berri bat eratu zen: Guardia Zibila. Indar armatu sortu berria eliteko indarra bihurtu zen, administrazio zibilaren zerbitzuko eta ordena publikoko gaitan armadaren ordain izan guran. Guardia Zibila hasieran oso talde xumea izan zen, baina arin bai arin hazi egin zen, kopurua eta hedapena kontuan izanda. Errepideei eta burdinbideei jarraituta, epai-barrutietako hiriburuetara heldu zen indar hori, eta, ondoren, herrialdeko hiri eta herri guztietara. XIX. mendearen amaieran, behargin mugimendua garatzeaz batera, geroa eta sarriagotan erabili izan zen indar hori grebak zapuzteko, ordena publikoaren aurkako mehatxutzat jotzen ziren-eta, protesta egiteko bide zilegitzat barik. 1919an, guardia zibilen kaserna ezarri zen Leioan, Juan Zabala jaunaren etxe baten, Eguzkitza izeneko lekuan Matías Romo kaletik Asuaraino eraikitzen ari den errepideraino doan bidetik hurre. 1920an, Trianoko markesak, Alberto Aznarrek, Antonio Mentxakak, Agirre y Costeren oinordekoek, Atxutegiren oinordekoek, beira fabrikak, Earle enpresak eta alkohol konpainiak beren gain hartu zuten urtero alokairuko 500 pezetak ordaintzea<sup>155</sup>. Udaltzaingoak ere begiratu behar zuen elizateko segurtasuna. Hasiera-hasieran txinelak egon ziren, udal ordenantzen betearazle. Ordenantzak betetzen ez zituztenak isunen bidez zehatzen zituzten, eta 1880az geroztik estatuko paperaz ordaindu behar ziren. Besteak beste, honakoek jaso zuten isunik: Andrés Peña gidariak 100 erreale ordaindu behar izan zituen, Bilbotik Areetarako errepidean arbola bi puskatzeagatik; François Debrande frantsesak, debekaturiko armak erabiltzeagatik; Donato Zárragak, errepidean gurdiz halako moduz ibiltzeagatik; eta beste askok higijene publikoa urratzeagatik, hau da, kalean txiza egiteagatik, berba lohiak esateagatik, sastarra leihotik behera botatzeagatik edo pisu gutxiko ogia saltzeagatik, besteak beste. Leioaztar batek bete udalerrri bateko ordenantzak urratzen zituenean, alkateari gertatutakoaren berri ematen zioten, eta hark horren arabera jokatzeko zuten.

Hasieran, ez zeuden ondo zehazturik udaltzainak egin beharreko lanak. 1906an, kasurako, dirudienez Benigno Ayo udaltzainak -uniforme berria eskatu zuen- udaletxea garbitzeko ardura zeukan<sup>156</sup>. Bestetuzetan, udaltzainek arielak kobratu, eta galdutako gauzaki eta animaliak jagoten zituzten. Askotan, herritarren laguntza ezinbesteko zuten udaltzainek. Hori dela-eta, 1918an erabaki zen "argi publikoetako bonbillak apurtzen dituztenak salatzea sariztatzea".

1924ko otsailaren 4ko bilkuran, Aniceto Zárraga jaunak udaltzain gehiago izatea proposatu zuen, "herri baketsua izateagatik", baina udalbatzak uko egin zion proposamenari. 1929an, Juan Mandalunizek erretiroa eskatu zuen, gaixo egoteagatik: 5.000 biztanletik gorako herri bateko -Leioako- udaltzain bakarra zen, eta, gainera, postari- eta epaitegiko udaltzain-lanetan ere baziharduen.

## **Justizia**

Gaizkileak atxilotuta, epaile aurrean agertu behar zuten, eta hark eginiko delitu edo hobenaren araberrako epaia plazaratzen zuen. 1892an, Blas Basáñez bake-epaileak eskatu zuen atxilotze-gela bat atontzeko udaletxean. 1899ko uztailean, Lamiakon epaitegi bat paratzeko, hemengo eta hango beharginen arazoak konpontzea aldera, hango herritarrek behin eta berriro eskatua zuten, Pantaleón

de Aresti y Basáñez alkateak Lamiakon zeukan Gobela etxean horretarako gela bat egokitzea erabaki zuten.

Lokal horietan auzoen arteko auziak ebatzi ziren, garrantzi handiko nahiz txikikoak, hala nola, 1913an txakur batek haginka egin izanagatik aurkezturiko salaketa. Hona hemen, salaketa horren txatal bat: "(...) goizeko bost eta erdietan nire eguneroko lanetara nindoala eta, Udondo auzunean Carlos Ayo auzoak daukan 9 zenbakidun etxerako bide ondoan, txakur handi bi atera zitzaizkidan bidera, itxura batez Carlos jaunarenak biak. Eta haiek ikusita, geldirik lotu nintzen, zer egin ez nekiela, jakina baita oinezkoei eraso egiten dietela. Gauzak horrela, pauso bat egitea erabaki nuen, arriskuari izkin egitearren, eta berehalakoan txakur bietan handienak eraso egin zidan, eta hanka batean haginkada ederra egin zidan. Jabearen laguntzari esker, "ora" banatu zuen kendu ahal izan nuen gainetik, baina lan ehoak egin beha; erpe eta haginaren zantzuak utzi zizkidan, eta etxera itzuli behar izan nuen, lanerako moduan ez nengoela; ondoren, medikuaren laguntza behar izan nuen (...) Gertaturikoa ez da jazoera bakana, ezen nire alaba bat itzulipurdika erabili zuten txakurrek, eta urrakada arin batzuk izan zituen. Beste auzo batzuen seme-alabei beste horrenbeste jazo zaie, eta "oren" ugazabak ez entzunarena egiten du, Ayo jaunak jakin badakielako lotuta izan behar dituela, edo, deslai egonez gero, muturrekoa eroan behar dutela"<sup>157</sup>.

Leioako biztanle kopuruak gora egin zuen ginoan, haien arteko gatazkak ugaltu egin ziren. 1930ean, udal epaile eta fiskal izateko pertsona aproposen zerrenda egiteko eskatu zen, eta izangaiei buruzko txostenak egin zituzten.

### **Suhiltzaileak**

Mende honen hasieran, Leioan sutarik gertatzen zen guztietan, Portugalete edo Erandioko suhiltzaile-taldeek etorri behar zuten, sutea amatatzen. Sute arrisku handia zegoen, etxe asko eta asko egurrezko zen-eta; hala, 1913tik 1914ra, suteen aurkako aseguruak kontratatzeko aurrekontuak eskatu zituen udalak.

1923an, sute arrunten aurkako estazio bat sortzeko eskatu zuen Getxo Udalak, baina gaiari buruz eztabaidatzeko bilkura ekainaren 5a arte atzeratu zuten, Gorpuzti eguneko prozesioari ezin huts egin ziezaiketelako ezelan ere<sup>158</sup>.

### **Garbitze-lanak**

Gero eta herritar gehiago zegoenez gero, kaleak garbitu eta sastarrak batzeko zerbitzua antolatu behar izan zuten. 20 urtean, Jesús Etxebarria izan zen udal ehorzle eta kale-garbitzailea. 1923an, "bere adina kontuan izanda, eta Lamiako garbitzean aurkitzen dituen lohikeriek eragindako gaixotasuna dela-eta"<sup>159</sup>, ehorzle-lanetan baino ez ibiltzea eskatu zuen.

## **Pasadizo batzuk**

Antza denez, udal behargin batzuek huts egiten zioten lanari, eta, hortaz, 1892ko ekainaren 20ko bilkuran "aho batez erabaki zen idazkariak eta haren laguntzaileak 9:00etatik 12:00etara eta 15:00etatik 17:00etara udaletxeko bulegoetan egon behar zutela, eta, egon ezean, soldata murriztu zaie lanari huts egiten dioten egun bakoitzeko". Kargudun batzuek dimisioa aurkezten zuten, udalarekiko betebeharrak betetzen uzten ez zieten beste behar batzuetan zebiltzalako. Beste baten bat kargutik kendu zuten, jokabide txarragatik.

1898ko maiatzaren 1etik aurrera, osoko bilkurak, zapatuetan arrastiko 7etan egin barik, domeketan goizeko 8etan antolatzen hasi ziren (7etako mezaren ondoren). Denboragarrenean, bilkurak egin baino arinago, administrazio-lanak artez joan zitezela eskatzeko, meza entzuteko ekandua bazter utzi zuten.

## **GARRAIO ETA KOMUNIKAZIO ZERBITZUAK**

### **Posta, telegrafo eta telefono zerbitzua**

Denboraren poderioz, posta zerbitzuak hobera egin zuen, baina batzuetan nahiko zerbitzu eskasa eskaintzen zuen, arduradunek ez zuelako euren eginkizunik betetzen. 1887an, posta administratzaile nagusiak postariari agindu behar izan zion Areetara joateko egunero, postaren bila, trena heldu eta irtetean. Hala ere, badirudi arazoa ez zena konpondu, ezen hurrengo urtean Bilbotik Areetarako tren konpainiak berak kexua agertu zuen Marcelina Bilbao korrespondentzia-arduradunaren aurka, "makinetako biltegira sartu eta, hartara, beharginak estuasun baten jartzeko ohitura txarra zuela-eta". Izan ere, debekatuta zegoen lan-eremutik sartzea geltokira, eta postariak itxarongelan jaso behar zuen korrespondentzia, baina ez zion arauari jarraitzen. Postariaren ardurabakokeria zela-eta, tren konpainiako beharginei demanda egin, eta isun bana ezarri zieten.

XIX. mendearen amaieran, Bizkaiko Aldundia zerbitzuaren akats guztiak konpontzen ahalegindu zen - 1892an, ikerketak egiten eta orduko egoerari buruzko txostenak egiteko eskatzen hasi zen-, eta Bilboko posta zuzendari nagusia bera ere bide berean saiatu zen. Hala, zuzendari nagusiak galdetegi bat bidali zion Leioako alkateari, zerbitzuaren hainbat alderdiren berri eman ziezaion: baliza garraiatzeagatiko ordainsaria; zenbat ordaintzen zitzaion postariari gutuneko; korrespondentzia leku batzuetara eroateak gainordainik zekarren; ea udal postari edo oinezkorik zegoen, eta zein ziren haren izen-abizenak, soldata eta betebeharrak. Ikerketa guzti horien ondorioz, 1900ean Bilbotik Plentziarako postetxe ibiltari bat antolatu zen, joan-etorri biko zerbitzua eskaini guran (Bilbotik 8:45ean eta 15:00etan irteten zen, eta Plentziatik 12:00etan eta 18:00etan). Leioako postariak geltokira joan beharko zuen, posta-trena noiz helduko, ibiltariari korrespondentzia eman, eta hark ekarritakoa jaso. Zerbitzua urriaren 16an jarri zen abian, eta Domingo Uriartek bete zuen postari-lanpostua. Dirudienez, aurretik Leioak trenen ordutegia aldatzeko eskatu zuena, postariaren hobe beharrez. Ez zuten eskaera onartu, baina

korrespondentzia Areetan jasotzeko baimena eman zioten, "auzune horri kalterik ez egiteaz gain, ez diolako eragozpen handirik sortzen aipatutako postariari". Egun batzuk geroago, udalak erabaki zuen Bilbotik Plentziara ordu bikoitietan atera eta Lamiakoko geltokian gelditzen ziren trenetan hartu behar zuela postariak korrespondentzia.

Batzuetan, zerbitzua ez zen egokia, arduradunak ez zuela lana taxuz egiten, baina, beste batzuetan, erabiltzaileek baliatzen zuten txarto, amarrutxoren bat egiten ahalegintzen zirelako, kasurako, 1902an José Mauriz jaunak seilu erabili batez bidali zion gutuna Soduertan zuen anaia bati, eta 5 pezetako isuna ezarri zioten; edo 1911an, Rufino Mezo umeak beste horrenbeste egin zuen, eta isuna haren aitak egin behar izan zuen. Halakoetan, posta administrazioak espedientea irekitzen zuen. Eta, 1905ean, hala egin zuen, Galo Ortiz jaunak, Bilboko herritar eta Lamiakoko "La Camera Española" enpresaren beharginak, bere kexua aurkeztu zuenean, Bartzelonatik zetorren inprimaki ziurtatu bat galdu zelako. Katramila ederra antolatu zen, baina, azkenean, erabiltzailearen hutsa izan zen, hartutako korrespondentziaren artean aurkitu zuen-eta.

Zerbitzua hobera ari zen, eta, bide batez, erabiltzaileen eskakizunak gero eta zorrotzagoak ziren, gutunak hainbat arinen banatzea eskatzen zuten eta, batik bat enpresa handien negozioen ibiliari eragiten zienean; hala, 1902an, Lamiakoko "Tubos y Metales" baltzuak (Earle Bourne & C<sup>o</sup> Ltd) eskatu zuen korrespondentzia "iritsitakoan" helarazteko berari.

Apurka-apurka, garai modernoak gure udalerrira heltzen ari ziren, eta tantaiez eta aireko nahiz lurpeko kableez betetzen hasi zen. Esaterako, 1883an kable-linea bat ezarri zuten, Leioa osoa zeharkatzen zuena, Bilbo-Areeta telegrafo-linea hobeto ibil zedin. 1900ean, linearen ibilbidea aldatu zuen "Direct Spanish Telegraph Company" kable-enpresak, ezen "Enekuri gaintik Algortako Avanzadarainoko lurpeko klabeak nahiko hondatuta zeuden, eta berriztatu behar ziren". Zerbitzua ez eteteko, Ondizko baselizatik Gobela erreka ingururainoko auzo-bideari jarraiki egin zen Leioako zatia. Urte bi geroago, Posta eta Telegrafo Zuzendaritza Nagusiak Bilboko telegrafo estazioa lekuz aldatzea erabaki eta gero, Bilbotik Ingalaterrarako urpeko kablearen zuzendariak Leioatik Algortarainoko aireko kablea ezarri beharra aldarrikatu zuen -lurpeko kableen ibilbideari eutsita. Eta, hala, horretarako baimena eskatu zuen, eta hitz eman lurzorua lehengoetan utziko zuela.

Baina, zalantza barik, irrika handiena pizten zuen komunikabidea telefonoa izan zen, ondoren ikusiko ditugunak kontuan izanda. 1892ko abuztuaren 29an, telefono konpainiak uko egin zion telefono bat Leioan instalatzeari, telefono-lineetatik oso asago zegoela-eta. Antzaenez, udalak horrenbeste bider egin zuen eskabide berori, ezen azaroan konpainiak eskatu zuen pertsona baimendun bat bidaltzeko Bilbora, euren urregorritzko denbora alferrik gal ez zezaten.

Sumatzen zutenez, oraindino denbora apur bat joan zen, herrian telefonorik eduki arte. Leioako Udalak erabaki zuen Getxokoarekin erdi bana ordaintzea telefono-aparatu bat instalatzea Guardia Zibilak Areetan zeukan kasernan, baldin eta urtean 180 pezeta baino gehiago kostatzen ez bazen. Jakina, modernotasuna eurenganatu gura zuten, baina ez edozein preziotan, eta hainbat gutxiago kontua izanda beste herri batzuetan telefono-lineak gaizkileen jomuga zirela; izan ere, aldundiak arazo horren berri eman zuen gutunez, honetara: "probintziako lineetan eginiko azken ikuskapenean, portzelana edo isolatzaile asko harrikadek porrokaturik aurkitu dira, batik bat Galdakao, Zornotza, Durango, Elgeta, Berriz, Gernika eta Lekeitio inguruan".

Telefono zerbitzua beti ez zen ona izaten. 1901ean, esatera, suak hartu zuen Areetako azpizentrala, eta sei hilabetez ezin izan zuten telefonorik erabili Leioako herritarrek. Beraz, udalak uko egin zion denbora-tarte horri zegokion kuota telefono konpainiari ordaintzeari; hala eta guztiz ere, kexuak gorabehera, konpainiak kobratu egin zion kuota, ezen haren ustez, udalak bajari eskatu ez zuenez, abonatu izaten jarraitu gura zuen.

Azkenik, 1914an, Leioak lehenengo telefono publikoa izan zuen, Robustiano Egia mediku titularrak Udondoko errota jarrita zuen telefonoaren kuota udalari ordaintzeko eskatu zionean, ordurako bizilagun askok erabiltzen zuela-eta, kuota bat ordainduta. Udalak proposamena onartu zuen, eta, uztailaren 20an, hari urtean 150 pezeta ordaintzea erabaki zuen, baldin eta aparatua "etxe barruko gelatik kanpo paratzen eta han egoten bada, auzoek erabilgarri eta, bereziki, udalaren eta bertako beharginen eskuetan, beharrezko edo egoki deritzoten guztietan erabili ahal izango dute eta". Medikuek hitz eman zuen ohartarazpenak helaraziko zituela.

1916ko irailaren 29an, mediku horrek berorrek jakinarazi zion udalari, telefono konpainiak 300 pezetatik 180ra beheratu zuela kontuan izanik, on izango zela udaletxean bertan telefonoa instalatzea, "ezen, hala eginez gero, (...) baserri-guneko biztanleek ere balia lezakete zerbitzu hori, haiei ere ondo letorkiokeelako zerbitzu hori". Telefonoa udaletxean instalatzea aho batez onartuta, udalak, beti aurreztu guran, proposatu zion konpainiari medikuaren etxetik haraino luzatzea linea, Portugaletetik ekarri barik, baina, egun batzuk geroago, konpainiak gutuna bidali zien gaiari buruz gutxi edo ezer ere ez zekiten haiei, honako argibideak emateko asmotan:

"telefono-instalazioak ez dira argi-instalazioen modukoak, ezin egin daitekeelako abonatu guztientzako deribaziorik linea igarotzen den lekutik. Telefono-lineek hari bereiz bi dituzte, zentraletik abonatuaren aparatuko borne bietarainokoak, ezen, osterantzeko deribaziorik eginez gero, abonatu guztiek linea beraren bidez berba egingo lukete, eta ez liokete elkarri ulertuko solaskideek, eta norberaren elkarrizketak ez lirake isilekoak izango".

Geroxeago, baimena eman zuten telefono-hariei eutsi behar zieten 19 tantaiak ipintzeko Areetatik Leioarako errepidearen ertzean.

Telefonia erabiltzeak zekartzan onurak ikusita, 1920an Bizkaiko Aldundiaren Sustapen Batzordeak argibideak eskatu zizkien udalei, probintzia osorako behin betiko telefono-sarea eraikitzeko.

## **Ura**

Kontuan izan behar dugu, neurri batean, oraintsu arte ez dela iturriko urik egon etxeetan. Ura etxera eroateko iturrietara joan behar zuen jendeak, eta arropa garbitzeko, latsetara edo beren beregi eraikitako garbitokietara. Abereek ur-asketan edaten zuten.

Biztanleriaren hazkundera eta higiene eta osasun egoera hobetu beharrak bultzaturik, agintariak jabetu ziren premiazkoa zela Lamiako -elizateko auzuneetan biztanle gehien zituena- urez hornitzeko plana taxutzea. 1899ko otsailaren 19an, egitasmoa eta aurrekontua (29.900 pezetakoa) aurkeztu ziren. Urte bereko irailaren 5ean, Aketxe eta Lamiakoko iturriak eraiki zituzten, eta 1900eko abuztuan, langilezain bat izendatzeko eskatu zuen udal arkitektoak, lanean hasi baino lehen.

1904ko otsailaren 14an, Erandiok Leioako iturburuak, Getxorekin erdi bana, baliatzeko eginiko eskabidearen berri eman zen. Leioa erabat aurka agertu zen, ezen ur hori udalerrri hau zeharkatzen duen Gobela erreka adarrak dira, eta badaude lege-aukera batzuk lats horiek baliatzeko, eta, gainera, Erandiok eta Getxok, lats horiek barik ere, ur ugari daukate, eta Leioak Lamiakorako eta bertako fabriketarako lats horiek baino ezin erabil ditzake". 1900ean, Lamiakon ura hartzen hasi zen.

1921eko otsailaren 19ko bilkuran, Aketxeko estratan garbitokia eta ur-aska eraikitzea proposatu zen. 1922ko apirilean, Víctor Txabarri jaunari baimena eman zioten, "285 metroko galeria egiteko, Artatzako bere finkarako lurpeko urak argiztatzeko, Bizkaiko Herri Lan Zuzendaritzak eskatu legez".

## **Argia**

Gasezko argia zabaldu zen artean, 1845 inguruan, Bilbon eta antzeko hirietan kandelak eta olio edo petroliozko kriseiluak erabiltzen zituzten, eta herrixketan, osteran, eguzkia ostentzen zenean, ilunpea nagusitzen zen bidez. Baina, modernotasuna Leioaraino ere heldu egin zen -geroago eta oso astiro baina-, eta, lehenengo, biztanle gehien hartzen zituzten auzuneetara.

Denboragarrean, argindarra zabalduz joan zen, eta, 1913an, Lamiakoko Casa Altako (beharginen etxeko) bizilagun batzuek eskatu zuten argi publikoak ezar zezatela errepidetik etxerainoko bide-tartea, "ezen, norberaren segurtasuna arriskuan igartzeaz gain, laster urak bidea ia osorik hartzen duen sasoia etorriko da, eta ia ezin ibil daiteke bertatik". 1915ean, Casa de Labradores de Lejona eraiki berriaren aurrealdean lanpara bat ezarri zuten, hau da sindikatuaren egoitza. Argiak segurtasuna ematen zuen, eta, beraz, hainbat leku argiztatzen hasi ziren, emeki-emeki: Lamiakoko tren-igarobidea (Andikera izeneko lekutik hurbil), Ondizerako aldatsa, Lamiako eta Delta bitarteko bidea, Erribera eta Maximo Agirre kalea.

1921an, Unión Eléctrica Vizcaína enpresak kalean 17 argi publiko baino ez zituen jarriak, beste bi Lamiakoko eskolaren barruan -gauetz bertan eskolak ematen ziren eta-, eta beste bat udaletxea garbitzen zuen andrearen gelan. Hasieran, lanparak ikatzezko harizpikoak ziren, 10, 16, 25 edo 100 bujiako potentziadunak (antzina, argiaren indarra bujien arabera neurtzen zen, eta ondoren kandelaka). Ondoren, metalezko harizpidun lanparak, potentzia handiagokoak, erabiltzen hasi ziren.

1922an, Leioatik beira eta alkohol fabriketarainoko aireko linea antolatu zuen Bizkaiko Herri Lan Zuzendaritzak, bai eta Lamiakotik Areetarainoko lurpeko kable biko beste linea bat ezarri ere. Halaber, zuzendaritzak erabaki zuen transformatze-estazioa Areetatik Leioara ekartzea, eta linea bien korrontea trifasikoa eta 3.000 voltetkoa izatea. Tantaien ordeztu metalezko zutoinak jarri zituzten.

Leioa goialdeko auzuneek ere argi gehiago eskatzen zituzten. 1924an, Udondoko auzoek euren esker ona agertu zuten, lanpara bat ipintzeagatik probintzia-errepidean, Juan de Aretxabaleta jaunaren etxe aurrean; eta, bidenabar, eskatzen zuten beste lanpara bat ipintzeko Udondoko bidegurutzean, "bertatik inondik baino zalgurdi eta pertsona gehiago igarotzen da-eta", hori guztiori kontuan izanda auzunearen biztanle kopuruak %100 gora egin zuela eta "elizateko baserri-gunekoetan biztanle gehien zeukan zela". Antzeko eskabideek egin zituzten Aketxen, Peruriko teileria alderdian. Zerbitzuaren hobekuntza nabari izango zen, "Unión Eléctricak" Jauregi baserriko lursailean etxolan transformadoreak ezarrita.

Hala eta guztiz ere, argindarra apur bat geroago helduko zen herritarren etxeetara, eta are geroago Leioako auzuneetan sakabanaturiko baserrietara. Hori dela eta, 50eko edo 60ko hamarkada arte, etxeetan oraindino gasogenozko -bentzina eta alkohol nahasizko-kriseiluak erabiltzen zituzten, eta horiek, argiz ez eze, sundaz ere betetzen zuten etxea.

### **Komunikabideak eta garraiobideak**

1878an, Portugaleteko barra kendu zuten, eta itsasadarra bideratu eta karrakatu egin zuten, Ezkerraldeko meategietan ateratako mearen %90 atzerri zeroaten itsasontziak errazago irten ahal izan zitezten. Itsasadarretik zebiltzan zingo gero eta handiagoko ontziez gain, baporetxo batek Areetatik Bilborako bidea egiten zuen hainbat bider egunean. 1893an, Bizkaiko zubia inauguratu zuten, itsasadarraren alde bien batasunaren erakusgarri. Antzinatek bidazti-txalupa batek eskaintzen zuen zerbitzua biribildu zuen zubiak. 1903an, kanpoaldeko portua amaitu zuten, Portuko Obra Batzordearen eta Evaristo de Txurruka ingeniariaren bultzadari esker.

Zalantza barik, garraiobideetan, tranbiak eta, geroago, trenak modernotasunez marraztu zuten XIX. mende amaierako eguneroko bizitza.

1856an, lehenengo eginbideei ekin zieten, Bilbo itsasoari hartutako herrigune berriei lotu behar zien burdinbidea eraikitzeko. 1875ean, Herri Lanen Zuzendaritza Nagusiaren aginduz, Felipe Lezama jaunari

baimena eman zioten, Bilbotik Algortarako tranbiari buruzko azterketa egin zezan, eta gobernadore zibilak alaitz laguntza handiena emateko eskatu zuen. Tranbia horrek Lutxanako zubitik Asuakorainoko adar bat izan behar zuen. 1878an, Bilboko tranbiako bidazti zerbitzuaren araudia eginda zegoen. 1881an, lehenengo zaldi-tranbia ibili zen. Bitxikeria moduan esan dezagun tranbiak asmatzailearen - Outram ingelesaren- izena hartu zuela. Urte batzuk geroago, lurrunezko tren-makinak erabiltzea hasi ziren aztertzen, eta 1885ean, burdinbidearen kableek igaro behar zituzten lursail pribatu batzuk indarrez desjabetzen hasi ziren. Ezequiel de Agirre jaunak, "Bilbotik Areetarako burdinbide merkeko konpainiako" lehendakariak aditzera eman zuen "burdinbideak ez duela hartuko Udondo eta Aketxetik Gobela ibaiaren ezkeraldera eta handik Areetako bideraino doan gurdi-bidea" . Eta, halaber, jakinarazi zuen gurdi-bide hori ukitzen duen aztertuko zela, baina eragin txiki-txikia izango zuela, burdinbideak udalerrriak ekarriko zion onuraren aldean. "Izan ere, alderdi hori oso lekukurik dago, eta onura handia izango du [ezen] Udondo erreka gainetik egingo den zubiari pasarela bat erantsiko zaio, Leioako bidaztiak arin bai arin heldu ahal izan daitezkeen Axpeko geralekura". 1886an, burdinbidea hartu behar zituen bide eta gozamenei buruzko oroit-idazki, krokis eta planoak aurkeztu zituzten. Bilboko merkataritza-kapitalak bultzatu zuen burdinbidea, lursail horiek balioa irabaz zezaten, eta itsas bainu osasungarri eta tonifikatzaileen gorakada baliatu guran. Urte bereko uztailaren 1ean, burdinbidea inauguratu zuten, ekitaldian errege familia zegoela. Burdinbide bakarra zegoen (1905a arte ez zen baimenik eman bikoitz egiteko), eta kableak halako moduz zeuden jarrita, ezen lurrunezko trenak ibilbideko leku jakinetan itxaro behar zuten, harik eta, tranbiak zeukan orratz-aldaketako sistemaren antzeko batez baliaturik, atzera bideari ekin ahal izan arte. Orratzak aldatzeko gune bat Leioa elizateko udalerrian zegoen: Udondon burdinbidearen gainetik igarotzen zen zubiaren eta Lamiakoko geltokiaren artean, Earle lantegitik hur, hau da, ibaiertza zeharkatuta Leioa eta Areetara lotzen zituen bidean.

1887an, Bilbotik Areetarako tren konpainiak baimena eman zuen tren batzuk Andikerako igarobidean gelditu ahal zitezkeen (3, 5, 25 eta 28 zenbakidunak, alegia, Bilbotik goizeko 6:30ean eta arrastiko 5:30ean ateratzen zirenak eta Areetatik goizeko 7:30ean eta arrastiko 6:30ean ateratzen zirenak). Ez zuten baztertzen zerbitzu gehiago eskaintzea, baina, horretarako, udalak bide bat eraiki behar zuen. Trenak zerbitzu ia ordeztuzina eskaintzen zien Lamiakoko industriei; izan ere, horiek baimena zeukaten "burdinbidea bide eroangarriz zeharkatu ahal zuten, salgaiak garraiatzeko" 1895a arte, ezen, urte horretan, bigarren mailako burdinbide bat paratu zuten, industrien zerbitzuko, alegia, bazterbide bat Lamiakoko geralekuaren aurrean, hareaz betetzeko behar ziren bagoian bertan uzteko.

Salgai eta bidaztiak bizkorrago garraiatu beharraz jabeturik, urte horretan, tranbiak argindarra erabiltzeko egitasmo bat aurkeztu zuen José Isaac Amann y Cía talde-baltzuak, eta 1899an Bizkaiko Argindar Konpainiak lanei ekin zien.

Trenak aurrerapen handiak ekarri arren, ohartu behar dugu, Leioa horren udalerriz zabal eta sakabanatua izanda, bideen egoera ona ezinbestekoa zela. Badakigu dilijentzia bat zegoena, "La

Paloma" izenekoa, eta horrek Bilbotik areetara joan gura zuten bidaztiak garraiatzen zituen. Itsasadar ondoan, bideak hobetzeko makina bat lan egin zen. Pantaleón Aresti alkate zela, Udondoko zubia eraiki zuten. Zubia 18.876 pezeta kostatu zen, eta horietarik 2.000 Erandiok eman zituen. José Martínez de las Rivas jaunarekin ere berbetan hasi ziren, hark Lamiakoko ibai ondoan zeukan lursail zati bat utz zezan, bertan itsasadarretik burdinbiderainoko bidea egin ahal izateko.

1901eko ekainean, Juan José Libano langilezainak lanabesak erosteko eskabidea egin zuen, auzo-bideetan egiten ari ziren lanetan horiek erabiltzeko. Garaia hartan ez zegoen, ez hondeamakinarik, ez zilindrorik, eta pikotxak, aitzurrak, palak, terrenak, palankak, otzarak eta eskorgak erabiltzen zituzten. Bide berriak eraiki eta gero, hark zeharkatzen zituen lanadak hesitu behar ziren.

1902an, herria 4 lau barrutitan banatzea erabaki zuten: lehengoa Lamiako eta Aketxe; bigarrena Ondiz eta Udondo; hirugarrena Artatza, Peruri eta Elexalde, eta laugarrena Santimami, Santsoena eta Sarriena. Azken barruti bi horiek, itsasadarretik asagoen zeudenek, oraindino baserri-giroari eusten zitoten, eta bertan ere lan ugari egin ziren.

Batzuetan, bide bat eraikitzeak ez zekarren buru-hauste makalik. 1903an, kasurako, Artatzako hareatzen arazoa artean konpondu barik zegoen. Irailaren 22ko bilkuran honakoa erabaki zuten: "udalbatza osoak jo behar duela Txabarri andrearengana eta Murga senar-emazteengana, Artatzako hareatzen jabeak dira-eta, mesedez eskatzeko baimena eman dezatela gurdi-bidea egin ahal izateko Ugarteondotik Delta auzuneraino eta Areetarainoko errepidea eraiki ahal izateko. Izan ere, lehengo bideak itxita daude, eta herritarrek auzune horietara joan behar dutenean, Artatzako soloetatik egiten dute, eta horrek kalteak ekartzen dizkie nekazariei". Eleuterio de Ugarte e Iturralde alkateak egin zuen lehengo lanetako bat horixe izan zen: Víctor Txabarri jaunak erositako Artatza, Ugarteondo, Ermitaondo, Txantela eta Sarbitako hareatzeei buruzko akordio adiskidetsu bat egitea Txabarri familiarekin. Hala lurjabeak "bideak utzi zituen gurdiak Deltatik (Lamiako) Gaztelu eta Artatzaraino joan ahal izan zitezten, eta Algortatik Ugarteondorako errepidea, Zarragatan, eta Zarragatatik Deltarakoa eraikitzeko". Bide horiek eraikitzeko, 1910eko uztailaren 20ko bilkuran erabaki zuten "litro bina ardo ematea gurdizainei, eta litro bana peoiei, bai eta ogia eta bakailaoa ere, behar-egun bakoitzeko".

1905eko otsailaren 26ko bilkura oso garrantzitsua izan zen, ezen Leioak hitzarmena egin gura zuen Getxo eta Erandiorekin, Asuatik Avanzadarainoko errepidea -herriak geroago "errepide zabala" esango ziona- egiteko. Arriluzen itsasoari hartutako lursailetan eraikitako kaildeari esaten zitzaion Avanzada. Et honakoa erabaki zuten "idazki bana bidaltzea Erandio eta Getxoko udalei, guztiak batu eta aldundiari eskabide arrazoitua bidaltzeko, Asuatik Avanzadarainoko errepidearen lanak hainbat arinen atera daitezten errematean".

1915eko urrian, Gobela erreka gainetik porlanezko zubia eraikitzea erabaki zuten, orduan Pantaleón de Arestiren etxe aurrean zegoen egurrezkoa ordeztzeko xedez. 1916an, "Giltzeko-erreak" zeritzan zubia eraikitzen hasi ziren, Evaristo Líbano, Santimamiko bideko lanen kontratista, lanen zuzendari zela. Urte horretan, Portuko zirga-lekuko bide zaharra, itsasadarraren paraleloan zihoana, errepide bihurtu zuten. Bidea eta errepideak ugaltu eta horiek konpontzeko aurrekontua hazi zenez gero, 1918an udalak aldundiari honako errepideak lagatzea erabaki zuen: Elexaldetik Liboarainokoa, Altamiratik Zuaturakoa, Udondotik Ondizerakoa eta Udondotik Bidekurtzerakoa.

Aurrerapenak aldraka heltzen ziren Leioara, eta gero eta egitasmo gehiago zegoen. 1919an, Maximo Agirre kalea saneatzea eta zoruztatzea erabaki zuten, baldin eta Costetarrek lurzorurik lagatzen bazioten udalari. Beste erabaki asko ere hartu zituzten: hilerria handitzea; hainbat kale, auzo-bide eta errepide lerrokatu eta konpontzea (Delta kalea Lamiako sarreratik Andikeraraino; Víctor Txabarrik 15 metroko errepidetik eraiki zuen kalea; Ugarteondo-Altamira auzo-bidea Anporrena alderdian); beste bide batzuk eraikitzea (Avanzadatik Zuaturainokoa, Zarragatik Perurirainokoa, Artatzatik Ondizerainokoa); oinezkoentzako beste bide batzuk taxutzea, aldats pikoegiak gurdi-biderik eraikitzeko aukerarik ematen ez zuen lekuetan (Bidekurtzetik Zabalerainokoa, kasurako). Egitasmo horiez gain, urte hartako maiatzaren 17ko bilkuran, "Aznar jaunak eta Torrecilla markesak utzitako 4 metroko bidea -Peruritik Negurirakoa- eta haren bazterrak konpontzea". 1919ko irailaren 27an, Víctor Txabarri jaunak eginiko gutuna jaso zuen udalak, eta haren arabera "baimena eman du 10 metroko kalea eraikitzeko, 1912an udalarekin hitzartuaren arabera. kalea bere jauregiaren aurrean dago, eta Zarragatik Teileriaraino heltzen da". Eskaintza onartu zuten, baina baldin eta Lamiako Asuatik Avanzadaraino zihoan errepide nagusiari lotzeko kalea eraikitzeko agindutako lursailak ere lagatzen bazituen.

1923ko azaroaren 10ean, Eduardo Coste Lamiakoko markesak gutun bat idatzi zion udalari, aditzera emateko aipatutako lursaila -itsadarretik Lamiakoko eskoletarainoko kalea eraikitzeko beharrezko zena- lagatzeko iradokizuna onartzen zuela.

1922ko apirilaren 1ean, Lino de Ugartek, Lamiakoko biztanleak, idazki bat aurkeztu zuen, ohartarazteko udalari "itsadarreko ura ateratzeko eta sartzeko Lamiakon zeuden txinboak ez zebiltzala ondo", eta, beraz, udalari esku hartzeko eskatzen zion, uholderik ez egotearren.

## **GERRAOSTEA ETA FRANKOREN DIKTADURA**

### **Gizartea, politika eta ekonomia**

Gerraren latzak banatu zituen familia asko, bai herritar zibilez berehalakoan eta trumilka hustu zituztelako herriak (maiatzaren 12an Bilbo setiatu ondoren, Santander edo Frantziara bidean), bai asko eta asko ezinbestean erbestera jo behar izan zutelako, Europara edo Ameriketara. Eta hango biztanleek, apirilaren 26an Gernikan izandako hondamendiak gogo hunkiturik, besoak zabalik abegi egin zieten. Edo modurik lazgarriagoan banatu ziren familiak: borrokan hildako soldaduak, eta, horiez gain, bonbardaketek hildako herritar zibilak, aurreko orrialdeetan aipatu dugun gisan.

Gainera, arima min hartuta zegoen, familia buruaren hutsari nekez aurre egin behar ziotelako -hura hilda edo espetxean zegoen-eta-, eta, egoera ekonomiko eskasaz ostera, errepresioa eta euskal kutsuko ororen ezabaketa izan ziren jaun eta nagusi diktadura osoan. Mende hasieratik egin izan ziren abertzaleen jaiak amaitutzat jo zituzten, eta euskaraz egitea debekatu zen edo etxe barruetara zokoratu zuten. Orduko ume askok oraindino gogoan dute "txakurzulora" eroan edo isuna ordaindu beharko zituztelaka mehatxatzen zituztela, euskaraz berba egiten jarraituz gero.

Ekonomiari dagokionez, demokrazia aldia amaituta, horixe izan zuten herritarrek ardura nagusi, zer sabelaturik ere ia ez zuten eta. Gerra zibilak XIX. mendeko egoerara atzera eragin zion ekonomiari, eta, nekazaritzako krisiaz batera, herritar gehienek eros-ahalmena hutsaren hurrengo zen. Gainera, atzerriko bahimendua (1953an Estatu Batuekin hitzarmena sinatu arte, amaitu ez zena) eta Francoren erregimenaren politika autarkikoak inflazio gero eta handiago ekarri zuten. Hiru mailako errazionamendu-libretak erabiltzen hasi ziren. Lehenengo, familia guztiek bana zuten, eta, 1943az geroztik, nor berea. Libretan, hainbat produktu kontsumitzeko kupoa ezartzen zen: okela, urdaia, arrautzak, gurina, gazta, bakailaoa, txitxarroa, olioia, arroz, barbantzuak, purea, azukrea, txokolatea, turroia, kafea, gailetak eta ogia. Salgairik ez zegoenez gero, oinarritzko jangai horiek luxuzko produktu bihurtu ziren, eta gero eta urriagoak ziren. Gisa berean, jangai horiek prezioak ikaragarri gora egin zuen merkatu beltzean, eta herri xehearen bizi-baldintzak kaskartu egin ziren.

Leioako errazionamenduan, sarritan, ogi-opiltxo bat baino ez zen banatzen. Familiek zer jan lortu behar zuten, eta, hala, bide luzeak egin behar izaten zituzten. Butroeko errotetara, Martiartuko erreka-bolura eta beste zenbait lekutara joaten ziren garia eta artoa zakuetan sartuta. Alea ehotzen zuten (ogia eta, batik bat, taloa egiteko), eta zati handi bat bahituran hartzen zuten; hortaz, jagoleen kontrolei izkin egiteko bide guztiak erabiltzen ziren, hala nola, trenetik jauzi egitea, oraindino abian zegoela, geltokira ailegatu baino arinago. Olioia lortzeko Astrabuduaraino joaten ziren. Prezio handia egiten zuenez gero, txarribodarik egiten zen etxeetan olioia txerri-gantzarekin nahasten zuten. Batzuetan, errazionamendurako ilaran orduak eman eta gero, ogia amaitzen zen, eta ezin denek eroan etxera.

50eko hamarkadan, hainbat aldaketa jazo ziren. Bizi-mailak, apurka-apurka, gora egin zuen, eta ohiturak aldatu egin ziren. Lehenengo vespa motorrak agertzen hasi ziren, lehenengo garbigailuak, butanoa, presio-lapikoa eta beste, bizi-kalitatearen hobekuntzaren erakusgarri. Moralak ere, ordura arte elizak jagonda, aldaketa txiki baina esanguratsuak izan zituen.

Euskal industria beste leku batzuetan baino aurreratuago zegoen, eta, horri esker, burgesiak -batez ere, Francoren aldekoak- kapital handiak metatu, eta negozio berrietan, lehengoak zabaltzen edo finantza erakundeetan inbertitu zituzten. Herrialdea berriro eraikitzen eta armada ekipamenduz hornitzen ziharduten ekonomia-sektoreetan oinarritu zen industria eta ekonomiaren hazkundera, batik bat, siderometalurgian, porlangintzan eta inportazioak ordeztzeko sortu edo garatzen ziren sektoreetan, hala

nola, kimika sektorean, elektrikan, makina-erremintan. Banka (autarkiak ezarritako derrigorrezko aurrezteari esker), aseguru-etxeak eta itsasontzi-enpresak ere ikaragarri hazi ziren.

Garai hartan honako enpresek osatzen zuten Leioako azpiegitura ekonomikoa: harri naturalezko adreilu erregogorrak ekoizten zituzten erauzte-enpresa bi, zerrategi bat, Elexaldeko irin-errota, lau garraio-enpresa, obra-kontrata bat, errementaldegi bat, zapata-lantoki bat eta hiru jostun. Jakina, jarduera horiek ez ziren ezelan ere ekonomia jardueraren ardatz, beste herrietan ere antzera gertatzen zen. Tamaina handiko eta behargin askoko enpresa batzuek eratzen zuten Leioako ekonomiaren ardatza. Haietako asko XX. mendeaz batera sortu ziren Leioan, hala nola, beira fabrika eta, batik bat, Earle. Francoren denboran, enpresa horrek askotariko produktuak ekoitzi eta biltegitatu zituen, hala nola, burdina beltz eta galbanizatua, hodiak, horietarako osagarriak, lapikoak, kobrezko alanbrea, kartutxoetarako letoia, hariak, alanbreak eta beste osagarri batzuk, aluminio-aleazio arinak, duraluminioa, alpaka eta metal zuria, eta plano edo laginetan oinarrituriko autoetarako piezak. Aguirena (bertan ere denetariko produktuak ekoizten ziren: txartagailuak, esmerilatzeko makinak, artezgailuak, letoizko hari eta alanbreak, iturriak eta iturgintzako osagaiak, instalazio elektrikoak, metal-estanzazioak, edergailuen plater eta zorroak, erradiadore-tapoiak, kolpe-leungailuak, ihes eta irteera tutuak, auto-argiak, e.a, guzti-guztiak automobilgintza hazkorrerako) eta Victoria Echevarría Hnos. - metal galdategia- ere gailentzen ziren.

Gerra piztu baino apur bat lehenago, beste enpresa batzuk ere sortu ziren, kasurako, Fábrica Española de Productos Químicos y Farmacéuticos (FAES) enpresa, 1933an sortua. Francoren diktadurak iraun bitartean, hainbat enpresa handi sortu ziren Leioan. 1939an, Banco de Vizcaya eta Banco Español de Crédito bankuen eta Bilboko Mea eta Metal Elkartearen ekarpenei esker, Dow-Unquinesa enpresa eratu zen Axpe-Erandio eta Leioako lursail batzuetan. Enpresa horrek Barakaldoko lantegia altxatu berria zuen, eta ikaragarri hedatu zen, bere ekoizpena dibertsifikatuz eta filialak (Metalquímica del Nervión, Inquítex, General Química, e.a.) sortuz. 1943an, idortea eta ikatz falta zirela-eta lehenengo argindar-murrizketak egin ziren urtean, Metales Ibérica Aranzadi SA (MISA) eta Cadenas y Forjados enpresak eratu ziren. Lehenengoak, kobre, berun eta eztainua tratatzen zituen, eta metalak eta aleazioak lingoteetan ekoizten zituen; bigarren enpresak, aldiz, itsasontzietako ainguretarako kateak ekoizten zituen, burdinazko eta altzairuzko piezak forjatzen eta estanzatzen zituen, eta mekanizate eta doitze-lanetan ere baziharduen. 1944an, argindar-murrizketek euren horretan jarraitu zuten, eta, hori dela-eta, Eskuinaldeko lantegiek 12 orduz egin behar izaten zuten behar martitzenetik zapatura (eta, gero, astelehenetik eguaztenera); Ezkerraldekoek, ostera, astelehenetik barikura egiten zuten.

1945ean, AGRA, SA Acidos Grasos y Derivados enpresa sortu zen; enpresa horrek margarina eta jateko gantzak ekoizten zituen, eta olioak, gantz-azidoak eta emulgenteak fintzen eta hidrogenizatzen zituen. 1946an, lapikoak ekoizten zituen Nicolás Salterain, SA enpresa sortu zen. 1950ean, balbulak eta kimika-industriarako osagarriak ekoizten zituen PRACSA, SA sortu zen; 1952, Precisión Mecánica SA

enpresa, burdina eta bestelako metalak galdatu eta oskolak eta galdatze-modeloak ekoizten zituena. 50ko hamarkadaren erdialdean, autarkia ekonomikoa bazter utzi zen, eta industria-gune handiak eraikitzea bultzatu zuten, enpresaburuak -soldata oso apalen bizkar- aberastu zitezen.

Esku-langileen prestakuntzari dagokionez, esan dezagun auzo probintzietako peoiak ugari zirela. Behargin prestatu gutxi zegoenez gero, erlijio-erakunde batzuek eta fabrikek eurek ikastun eta ofiziale eskolak antolatu zituzten, beharginak trebatzeko. halaxe egin zuen, kasurako, Dow Unquinesa enpresak.

Industria-azpiegitura hori egoera sozioekonomiko kaskarrean zegoen txertatuta. Fabriketako beharginen egoera, bereziki zen, halakoa, ezen bizitzaren kostuak gora egiten zuen ginoan soldatek behera. Eta Bigarren Mundu Gerrak iraun bitartean, herrialdeak izan zuen bakartzeak larriagotu zuen egoera hori. Arazo ekonomiko horiek eta errepresio politikoak eragiten zuen ezinegona politikara eroan zituen beharginen sindikatuak, eta erregimenari buru egitera. Horrela, 1945etik 1946ra, aurreko urteetan sindikatuei jazarri eta haiek desegiten ahalegindu arren, barrualdeko erresistentzia mugimenduak antolatu zuen beharginek pairatutako miseria gorriari emaniko erantzuna. Mugimendu horretan, sindikatuetak (ELA, UGT eta, neurri apalagoan, CNTko) ezkutuko kideek esku hartzen zuten. Apurka-apurka grebari zitaion beldurra arinduz joan zen (Zigor Kodearen 222 artikulua arabera, lesa-patriako delitua zen), eta, falangistek osaturiko sindikatu bertikala bazter utzita, 1946ko udan hainbat protesta ekintza egin zen, gosetea zela-eta. Lantegi asko zeukaten udalerrietan -Leioan, kasu- protestak larriagotu ziren, eta 1947an puri-purian zeuden.

Erresistentzia Batzordeak eta ELA, CNT eta UGT sindikatuek jardun zuten 1947ko greba prestatzen, hau da, euskal oposizio osoa elkarlanean ibili zen, aldeak-eta zokoraturik. Earle enpresan inon baino eragin handiagoa izan zuen grebak (578 behargin batu zitzaizkion). Dow Unquinesa enpresan, maiatzaren 5etik 7ra egin zen greba, eta 263 beharginek esku hartu zuen. Aguirenan behargin guztiek lana utzi zuten maiatzaren 1ean. Hasieran hilaren 1erako baino deituta ez zegoen mobilizazio horrek 10 egun gehiago iraun zuen. Errepresioa areagotzen zen ginoan, herriaren atxikimendua handitzen zen, eta gero eta behargin gehiagok hartzen zuen parte protestan. Guztira, 20.000 beharginek esku hartu zuten, eta lan-uzteak 80.000 bat behargini eragin zien. Oposizioak greba baino erantzun sendoagorik ematerik izan ez zuen arren, gertakizun horiek oinarri izan zituzten sindikatuek, erregimenaren aurkako geroagoko oposizioa gorpuzteko.

Erregimenaren erantzuna, aldiz, errepresio ekonomiko eta politikoa izan zen. Armada kalera atera zen, eta Bilbo, itsasadarreko herriak eta fabrika handi batzuk hartu egin zituen. Grebalariak trumilka kanporatu zituzten, eta behargin eta sindikatuetak ordezkarri asko atxilotu, kartzelaratu eta torturatu zituzten. Enpresaburu gehienek bete egin zuten grebalariak lanetik kanporatzeko agindua. Beste batzuk,

ostera, grebaren aldeko izanak ziren -Earlek, esatera-, eta euren aldetik osterantzeko konponbideak bilatu zituzten, zehapenak jasotzeko arriskua eduki arren.

Maiatzaren 8rako -ofizialki hilaren 10erako-, normaltasuna ia erabatekoa zen. 1947ko maiatzaren 1eko grebak agerian utzi zuen kanpoko eta atzerriko Eusko Jaurlaritzaren laguntza, eta argi utzi zuen barrualdeko oposizioak -politikoak nahiz ekonomikoak- gogor egin ziezaiokeela erregimenari. Astebeteko lan-uzteak eragin handia izan zuen grebalarien familien ekonomia erkinetan, eta, gainera, errepresio garai bati ekin zioten, ezen behargin asko erdi kanporaturik zegoen: ostera lanean hasteko egiten zituzten eskabideak ez zituzten aintzat hartzen; antzinakotasuna kendu zieten, eta "zerrenda beltzak" egin zituzten.

50eko krisi ekonomikoak agerian utzi zuen nazioarteko ekonomian txertatzeko ahaleginak porrot egin zuela, eta, atzera ere, greba deialdiak egin ziren. Orduan, beharginen protesta aldarrikapen materialetara eta gizarte arlokoetara lerratu zen, politikoetara barik. Hala, 1951eko martxoan, sindikatuek eta erresistentziak greba-deialdi bat sustatu zuten, soldaten igoera eta salneurrien kontrola eskatzeko, estatubatuarrek Francoren erregimenari ematen zioten laguntza eten guran. Kontua zen, azken batean, Francoren erregimenaren ahulezia eta gizarte zibilean zuen eragin urria agerian uztea. EAJK 1951eko apirilaren 23an greba egiteko deia egin zuen. Grebak egun bi baino ez zuen iraun, eta aipamen politiko oro estaltzen ahalegindu zen. Alabaina, grebak, 1947koa baino zabalagoa izan arren, ez zuen lortu munduko iritzirik publikoa Francoren aurka agerraraztea; aitzitik, nazioarteak hura onartzen jarraitu zuen.

Politika arloan, Francok gerra irabazita, Eusko Jaurlaritza Euskadiko gobernuari tinko eusten ahalegindu zen, eta erregimenaren aurkako oposizioa fronte bitan bideratu zuen: kanpoaldekoa, Agirre lehendakaria buru zuela, eta barrualdekoa, Juan de Ajuriaguerraren zuzendaritzapean. Gizartearen zati handi bat -dirudunak, burgesia eta Erregimena lagun izan zuten beharginak- eroso bizi izan zen arren, Leioan hainbat jende erresistentzia baketsuan jardun zuen: pintadak egin ziren; eskuorriak banatu; ikurrinak hurbilgaitz eta oso agerikoetan ipini; irrati interferentziak eragin, e.a.. Batzuetan, erregimen berriaren aldekoen kontrol zorrotzari izkin egitea lortu, eta ezelan ere susmagarriak ez ziren elkarrekin batzen ziren, hala nola, Leioako Grupo Alpino mendizale elkartearen eta haren Aketxe tabernako egoitzan. 60ko hamarkadan, sindikatu oso politizatuak, elizjendea eta ETA izan ziren nagusi oposizioan Euskal Herrian.

#### **40ko eta 50eko hamarkadetako hirigintza-hazkundera**

Apurka-apurka, industrializazio-prozesua azkartu zen Lamiakon eta Udondon. Itsasadarraren ondoan, etxe ilarak eraiki ziren, bidertzea, burdinbidea eta Ondizko magalaren artean. Etxe sakabanatuak eta etxe-multzo antolatutako batzuk ere altxatu ziren. Etxe-multzo horietariko bat "Lamiakoko behatokia" izan

zen, baina aurretik ere, horren ondoan, "Begoñako Andra Maria" etxe-multzoa eraiki zuten. Alde horretako industrializazioak aurrera jarraitu zuen, Erandioarekin bat egin ezinean.

Bestetik, Avanzadako errepide bazterretan, Ikea-Elexalde alderdian, etxe-multzo marapilotsuak eraiki zituzten hurreko fabriketan behar egiten zuten etorkinentzat. Horren erakusgarri Antonio Etxeandiak diseinaturiko San Joan auzunea dugu.

Industria alde bat, beharginentzako, zabaldu zen itsasadarretik, Lamiakora, handik Udondora eta handik udalerraren administrazio-muinera (udaletxe-eliza-eskolak gunera). Bestetik, kalitateko bitokiak ere ezarri ziren Artatzan eta Negurin. Hala, 50eko hamarkadan Negurigane sortu zen. Bizimaila handiko lorategi-hiri hori inguruarekin bat zetorren, baina lurzoru askoz garestiagoa zen.